

IRUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA



C DOKUMENTUA ARKITEKTURA ONDAREAREN KATALOGOA ARKEOLOGIA ONDAREAREN KATALOGOA



2015EKO URTARRILA

AURKIBIDE OROKORRA

A DOKUMENTUA

ANTOLAMENDUAREN MEMORIA

B DOKUMENTUA

HIRIGINTZA ARAUAK

PLANGINTZA ESPARRUEN FITXAK (I. LIBURUKIA)

PLANGINTZA ESPARRUEN FITXAK (II. LIBURUKIA)

C DOKUMENTUA

ARKITEKTURA ONDAREAREN KATALOGOA

ARKEOLOGIA ONDAREAREN KATALOGOA

D DOKUMENTUA

EKONOMIA-FINANTZA BIDERAGARRITASUNAREN

ETA EKONOMI IRAUNKORTASUNAREN MEMORIA

E DOKUMENTUA

ANTOLAMENDUAREN PLANOAK

ANTOLAMENDU XEHEA 1:2.000

KATALOGO PLANOAK

F DOKUMENTUA

INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA

NEKAZARITZAREN ALORREAN AZTERKETA ETA EBALUAZIOA

ONDORIOEN NEURRIAK JARRAIPENERAKO

LABURPEN EZ TEKNIKOA

ADIERAZPEN ARGIA ETA ULERGARRIA

G DOKUMENTUA

HERRITARREN PARTE HARTZEAREN MEMORIA

ERAKUNDEEN TXOSTENEN MEMORIA

ERANSKIN OSAGARRIA

IRUNGO HAPNAREN DIAGNOSTIKOA, EBALUAZIOA

ETA EGOKITZAPENA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO

BERDINTASUNARI BURUZ



C DOKUMENTUA

ARKITEKTURA ONDAREAREN KATALOGOA

ARKEOLOGIA ONDAREAREN KATALOGOA

IRUNGO UDALERRIKO HISTORIA ETA KULTURA ONDAREAREN KATALOGOA

AURKIBIDEA – HISTORIA ETA KULTURA ONDAREAREN KATALOGOA

IRUNGO HISTORIA ETA KULTURA ONDAREAREN MEMORIA.....	2
1.1- Historia eta Kultura Ondarearen egoeraren azterketarako abiapuntuak	2
1.2 Katalogaziorako proposamenaren planteamendua eta irizpideak	4
1.3 ARKITEKTURA BABESERAKO KATALOGOAREN oinarritzko egitura.....	6
1.4 Historia eta Arkitektura Babeserako Katalogoko Zerrendak	8
1.5 ARKEOLOGIA KATALOGOAREN oinarritzko egitura	12
1.6 Arkeologia Babeserako Katalogoko zerrendak.....	14
ONDAREAREN BABESERAKO KATALOGOAREN ARAUDIA	18
1.- ONDAREAREN BABESERAKO KATALOGOAREN ARAUDIA	18
1.1 Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoaren definizioa.....	18
1.2 Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoaren edukia	18
1.3 Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoaren tramitazioa eta Plan Nagusiarekiko lotura	19
1.4 Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoaren aldaketa	19
1.5 Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoaren artikulazioa.....	20
1.6 Historia eta Kultura Ondarearen definizioa	20
1.7 Babes neurri orokorrak eta bereziak.....	20
1.8 Arloko araudiaren edo araudi bereziaren nagusitasuna	21
1.9 Kontserbatzeko agindua	22
1.10 Katalogaturiko eraikinak kontserbatzeko aginduaren haustea	23
1.11 Katalogaturiko eraikinetako elementuen suntsitze partzial arrazoitua	23
1.12 Katalogaturiko edo babesturiko eraikinen eraistea	23
1.13 Salbuespenak Plan Nagusiaren araudia katalogaturiko eraikinetan bideratzerakoan.....	24
1.14 Katalogaturiko eraikinen kontserbatzeko aginduari loturiko onurak.....	25
1.15 Katalogoaren derrigorrezko eguneratzea	25
1.16 Indarrean dauden Arau eta Xedapenen lehentasuna aplikazioan	25
2. ARKITEKTURA ONDAREAREN BABESERAKO ARAUDI BEREZIA	26
2.1 Arkitektura Ondarearen babes mailak	26
2.2 Kultura Garrantziko Ondasunen ingurunea	27
2.3 Katalogaturiko eraikinetan egin daitezkeen lan moten deskribapena.....	27
2.4 Babes Mailaren arabera onartzen diren lanak	28
2.5 Babesturiko eraikinetako lanen baimen eta exekuziorako irizpide orokorrak	29
2.6 Eraikuntzan aplikatuko diren Ordenantzak	30
2.7 Baldintza estetiko bereziak Katalogoko eraikinei begira.....	31
2.8 Erabilera baldintza orokorrak.....	32
2.9 Monumentuen Babeserako eta Babes Osorako Mailen gaineko Arau Bereziak	32
2.10 Babes Partzialerako Mailen gaineko Arau Bereziak	33
2.11 Fatxadaren Kontserbazio Mailaren gaineko Arau Bereziak.....	34
2.12 Ingurumenaren Babeserako Mailen gaineko Arau Bereziak.....	35
2.13 Garaje horniduren instalaziorako Arau Bereziak	37
3. ARKITEKTURA ONDAREAREN BABESERAKO ARAUDI BEREZIA	38
3.1 Arkeologia ondarearen babeserako udal araudiaren izaera loteslea.....	38
3.2 Arkeologia Ondarearen Babes Mailak	38

3.3 Arkeologia elementu mota desberdinen kategorizazioa.....	39
3.4 Arkeologia eremuetan bidera daitezkeen lan motak.....	40
3.5 Babes Mailaren arabera onartzen diren lanak.....	41
3.6 Arkeologia eremuetako lanen baimen eta exekuziorako irizpide orokorrak.....	42
3.7 Derrigorrezko prebentziorako neurriak arkeologia babesari begira mugaturiko eremuetan.....	43
3.8 Jarduerarako neurriak aztarnak aurkitu diren kasuetan.....	43
3.9 Arau Bereziak Oiassoko arkeologia eremuko Mailari begira.....	44
3.10 Arau Bereziak Paduren eremuko Mailari begira.....	45
3.11 Arau Bereziak Ermiten eremuetako Mailari begira.....	45
3.12 Arau Bereziak Meatze Erromatarren Mailari begira.....	45
3.13 Arau Bereziak Gotorlekuen Mailari begira.....	45
3.14 Arau Bereziak Elur-zuloen Mailari begira.....	46
3.15 Arau Bereziak Beste Batzuk Mailari begira.....	46

IRUNGO HISTORIA ETA KULTURA ONDAREAREN BABESERAKO KATALOGOA

MEMORIA

IRUNGO HISTORIA ETA KULTURA ONDAREAREN MEMORIA

1.1- Historia eta Kultura Ondarearen egoeraren azterketarako abiapuntuak

Kalitatearen aldetik aipagarriak edo antzinatasunari dagokionez esanguratsuak diren eraikinek, hiriko historiako beste garai batzuetako elementu adierazgarriek, arkeologia aztarna eta hondakinek, eta bertako ekonomian garrantzia eduki zuten jardueretarako eraikin eta instalazioek osatzen dute oro har **historia eta kultura ondarea**. Halatan, **arreta berezia eskaini behar zaie** dokumentu honetan haiei guztiei, behar bezala identifikatuz, aztertuz eta babestuz, horrexegatik da-eta Irungo Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoa.

Argi adierazi zuen 1999ko Plan Nagusiak berak ere beharrezkoa zela **Elementu babestuen katalogo** bat prestatzea, berezko hirigintza dokumentu gisa. Sarrera emango zitzaion hartan dagoeneko kultura garrantziko ondasuntzat hartuak eta zerrendatuak ziren elementuei. Alabaina, horretaz gainera, egungo hirigintza legeriaren arabera **Plan Nagusiaren espedientearen** ezinbesteko osagaia behar du izan inolaz ere Ondarearen Katalogo horrek.

Bestalde, bizi garen une honetan, zuzeneko eragina dute hainbat **legak eta dekretuk** historia eta arkitektura ondarearen eta arkeologia ondarearen babesaren gaineko araudi eta irizpideetan. Hona hemen funtsean zein diren: Espainiako Historia Ondarearen Legea, Gipuzkoako Historia eta Arte Monumentuen Ordena, Donejakue Bideko Historia eta Arte Multzoren gaineko Dekretua, eta Eusko Jaurlaritzaren 7/1990 Legea, Euskal Kultura Ondarea arautzen duena.

Indarrean dagoen azken legeriak dioenaren arabera, bi motatakoak izan daitezke **Kultura Ondasun Higiezinak: Kalifikatuak (KOK) eta Zerrendatuak (KOI)**. Halatan, Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren Kultura Ondasun Kalifikatuen Erregistroan edo Kultura Ondasun Zerrendatuen Erregistroan jasotzen dira.

Horiez gainera, beste dekretu batzuen bidez zehaztu da Irunen arte elementu batzuen **Kultura Ondare** kalifikazioa. Hor ditugu, adibidez, Junkaleko Amaren elizako Erretaula Nagusia edota Junkaleko Amaren eliza bera; hor dugu, Donejakue Bideko monumentu multzoa, haren barrukotzat hartua baita Ama Xantalen ermita; eta kontuan hartzekoa dugu berebat Urdanibiako Jauregia, Urdanibiako Ola eta Errotarekin batera, Kultura Ondasunen Inbentario Nagusian jaso den aldetik. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren 2002ko dekretu baten bidez xedatu zen Irungo Hirigune Historikoa BIE edo Birgaitze Integralerako Eremutzat hartzea.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak **Kultura garrantziko ondasun higiezinak** izenaz prestatu duen zerrendan, legez dagoeneko babesturik dauden Irungo udalerriko 9 elementu hartu ditu aintzat, eta Irungo beste 40 elementuren babesa ere proposatu du. Guztiz kontuan hartu izan da, era berean, Irungo arkeologia eremu batzuk **Monumentu** edo **Monumentu Multzotzat** hartuak izan daitezzen eginiko **proposamena**. Honekin batera, beste alde batzuk ustezko eremu arkeologikotzat hartzeko aukera ere aztertu da.

Katalogo hau zehatz-mehatz prestatzen hasterakoan, guztiz gogoan eduki izan da halaber, arlo honetan administrazio eskudunak dagoeneko hartu dituen neurri ez beti garrantzi berekoak alde bat utzirik, hainbat azterketa eta **ikerketa interesgarri** egin direla azkenaldi honetan Irungo ondareari buruz.

Aurrenik aipatu beharko litzateke 1986ko irailean, Arau Subsidiarioen Aurrerakin dokumentuarekin batean, **“Historia eta Arte Ondarearen Katalogoa”** izenaz aurkeztu zen azterlan, Enrique Noain Cendoya arkitektoak prestatua. Berrikiago landu zen **“Irungo Udalerriko Arkeologia eta Arkitektura Ondarearen Katalogoa”** delakoa, 2001eko uztailean Luis Sesé Madrazo, ARKEOLAN Historia eta Arkeologia Azterlan eta Ikerketa Zentroko arduradunak aurkeztu zuena. Eskaini zuten informazio zehatzagatik ere, dokumentu hauetatik ez zen inolako babes neurri eraginkorrik ondorioztatu.

Egungo egoeran, orain arte katalogazioaren arloan eginiko aldarrak eta adierazpen guztiengatik ere (monumentu garrantzitsu eta esanguratsuenak dira, batez ere, kontuan hartu direnak), ez da babestea merezi duen ondarea modu eraginkorrean behar bezala identifikatu eta katalogatu. Halatan, legearen agindua betetzeaz gainera, Udalak, **Udalerriko Historia eta Kultura Ondarearen Katalogo** honen bitartez, guztiz zehazten ditu Katalogoan aintzat harturiko eraikin, elementu interesgarri eta arkeologia eremuetan bideratu nahi izango den zeinahi jardueratan gogoan eduki beharreko erabilera arauak eta prozedurak.

Katalogo hau Irungo Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren dokumentuarekin batean garatu da eta historia ondarearen babeserako araudi orokorraren erreferentzia egiten du zuzenean. Erreferentzia hori katalogaturiko elementu ororen kasuetan bete beharko da eta, logikoa den bezala, arlo horretan indarrean dauden arautegi, legeria eta araudi berezi guztien erreferentzia ere bada.

Katalogoa prestatzerakoan, aplikatu eta bideratu beharreko **babes irizpideak eta neurriak** hartu dira kontuan, bai eta ondasun mota eta hartan babestu beharreko zatia, aintzat harturik, era berean, babes horrek hirigintza eduki dezakeen ondorioa. Hona hemen ondasun bakoitza balioztatzerakoan aintzat hartu diren funtsezko irizpideak: **elementu bakoitza bere testuinguru historikoan eta bere ingurune fisikoan**

kokatzea, haren **eraikuntza balioak**, haren **arte balioak**, eta komenigarritzat jo diren **beste irizpide batzuk**.

Garrantzitsua da kontuan hartzea identifikaturiko eta Katalogoan aintzat harturiko eraikin edo elementu guztiz gehienak (alde bat gelditzen zaizkigu berrikitan eginak direnak) historian barrena ondoz ondo bideraturiko **jarduera eta esku hartze anitzen ondorio** direla eta, beraz, babeserako hirigintza araudi malgu baten bidetik jotzea erabaki dugu, etorkizuneko jarduerak ere prozesu horretan aintzat hartuak izan daitezen.

Puntu honetan gaudela, guztiz ulertu beharra dago ez dela babestu beharreko ondare eraikiaren aldatzeko eta eraberritzeko prozesua blokatu behar, baizik eta haren **iraupena** elementu bizia bailitzan **bideratu**, eta horixe da Katalogo honi loturiko araudiaren helburua. Zentzu honetan, planteatu beharreko murrizte erregimenaren helmena aintzat hartzerakoan, elementu bakoitzaren berezko balioa, jarduera bideragarri motak eta eraikinak edo elementuak beteko duen funtzioa edo helburua edukiko dira gogoan.

Eraikin edo elementu bakoitzaren ezaugarri nagusiak eta haren inguruko gorabehera garrantzitsuenak aipatzen dira Katalogoko Fitxa bakoitzean eta, unean uneko ñabardurak kontuan edukirik, Fitxa haietan zehazten dira, hain zuzen ere, katalogaturiko elementu bakoitzeko **esku hartze erregimen** zehatzean babesari begira kontuan hartu beharreko arauak, Hiriaren interesaren ikuspegitik baliotsuenak dituen aldeak **banan-banan eta xehe-xehe** aipatuz.

1.2 Katalogaziorako proposamenaren planteamendua eta irizpideak

Halatan, udalerrriaren **Ondarearen Katalogoa** prestatzea eta zehaztea da Irungo ondarea egoki babestu ahal izateko egin beharreko aurreneko lana, oinarrizko tresna horren bitartez erantzungo ahal izango baitzaizkie bertako gizartearen sentsibilitateari eta premiei, kontuan harturik udalerriko historia ondaretik, aurreko belaunaldien utzitako ondaretik, zer gorde eta babestu nahi duen, iraganeko ondare horri zein eratan nahi dion bizirik eutsi.

Memoriak, Araudiak, katalogaturiko elementuen banan-banako Fitxek eta Katalogoko Planoek osatzen dute Katalogo hau. Haren baitan bi motatako elementuak bereizten dira: **arkitektura** elementuak eta **arkeologia** elementuak, eta bereiz landu dira biak. Nolanahi ere, molde bertsukoa da betiere haien arau arloko dokumentazio argi-emailea (Memoria), arau-emailea (Araudia) eta osagarria, eta deskripzioaren arloko dokumentazioa (Fitxak eta Planoak).

Katalogoko Fitxetan **identifikatu eta deskribatu** dira Katalogoan harrera egin zaien **elementuak**, deskribapenari eta babes mailaren justifikazioari begira premiazkozat jo den informazio guztia azalduz, eta haietan bideratu eta zehaztu dira, halaber, elementu bakoitzean kontuan hartu beharreko zehaztapen bereziak, horrelakorik bada.

Plan Nagusiaren Aurrerakina aurkeztu aurretik, beharreko kontsultak bideratu ziren administrazio eskudunen aurrean (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentua) Irungo Ondarearen Katalogoa presatzerakoan **aintzat hartu beharreko irizpideei** dagokienez. Kontsulta horiek egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak proposaturiko Fitxa **mota** bertsua bideratzea erabaki dugu.

Gainera, logikoa denez, Irungo Katalogo berriak zuzenean, eta aurreneko lekuan, hartu ditu Irunen arloko administrazio eskudunen araberrako lege babesaz horniturik zeuden **Kultura Garrantziko Ondasun Higiezinak**, eta Katalogoan hartu ditu, era berean, izendatze horretarako **prozedura hasi** duten ondasunak, babeserako proposamena 7/1990 Legeak aurreikusiriko bitartekoen bidez gauzatu bada.

Arkeologia Ondareari dagokionez, harrera egin zaie halaber **Ustezko Arkeologia Eremuei**, halakotzat Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren ebazpenaren bitartez hartu izan direnean, eta berebat gertatu da **babeserako prozesua hasia** duten Arkeologia Eremuen kasuan, ekimen hori gaugeru proposamena denean.

Zuzenean jaso da bi kasuetan zeinahi obra proiekturen aurretik egin beharreko jardueren arautegia. Eremu horiek Arkitektura Katalogoko elementuren batekin azaldu denean, nahiago izan dugu Arkitektura Babeserako Katalogoan jaso, zehatzagoak baitira hartan deskripzioa eta bideratu beharreko araudia. Halatan, gorabehera horren berri eman da unean uneko fitxaren **Kontuan Hartu Beharreko Irizpideak** atalean, eta horrenbestez saihestu da Arkeologia Katalogoan aipatu izanak sor lezakeen bikoiztasuna.

Arkitektura Babeserako Katalogoari dagokionez, dagoeneko katalogatu diren edo katalogazioa hasia duten monumentu eta eraikinei dagokienez, beste elementu gehigarri batzuk erantsi dira zenbaitetan, ustez **eskualde edo/eta udalerrri mailan garrantzizko kultura, historia, arte edo arkitektura balioak** dituzten aldetik. Elementu horien munta monumentuen berezko balioen mailakoa ez den arren eta, beraz, oraingoz, administrazio autonomikoak bere katalogoetatik kanpo utzi dituen arren, ezinbestekotzat jo da haien babesa Irungo hiriaren ikuspegitik.

Elementu horiei Katalogoan harrera egiterakoan, oso kontuan eduki dira, abiapuntu gisa, dokumentu honen erredakzioaren **aurretik**, 1986an eta 2001ean, **egin ziren azterlanak**, arestian aipatu ditugunak. Hala eta guztiz ere, berraztertu egin dira dokumentu horiek, kontuan harturik haietan **bideraturiko irizpideen**

homogeneotasuna eta koherentzia, eta orduan identifikatu ziren elementu batzuen **desagertze fisikoa** (alde bat utzi behar izan dira erreferentzia horiek). Beraz, egokitasuna aztertu eta gero, harrera egin zaie, **elementu berri** gisa, azterlan horietan aipaturiko elementu batzuei.

1.3 ARKITEKTURA BABESERAKO KATALOGOAREN oinarrizko egitura

Aurkezturiko irizpideei jarraiki, **kategoria tipologikoz zehazturiko egitura** baten arabera antolatu da hasiera-hasieratik **Arkitektura Babeserako Katalogoa**. Egitura horrek **katalogazio mailetatik bereiz** dihardu eta Memoriarekin batean aurkeztu den taula batean erreferentziatu da.

Halatan, **sistematika tipologiko** bat hartzen da kontuan Arkitektura Katalogoan, eta egun **eraikinez** gorpuzturiko elementu guztiak hartu dira hartan aintzat. Zentzu horretan, Katalogoaren atal horren barruan hartu dira halaber aintzat egun eraikin edo eraikuntza aztarna gisa ezagunak diren arren –hor ditugu, adibidez, burdinolak, baserriak, ermitaka, eta abar...– **arkeologikotzat hartuak ziren elementuak**. Hala eta guztiz ere, kasu horietan beti jaso da zeinahi obra proiekturen arabeko exekuzioaren aurretik halako jarduerak ezinbestez bideratzeko premia (miaketak izaten dira eskuarki, eraikin horiek dauden zoru eta orubeetan bideratu beharreko miaketak).

Arkitektura Katalogoko babes edo katalogazio mailei dagokienez, bost maila bereizi dira oroz lehen arau nagusi gisa. Maila horiek elementu bakoitzaren kalitate edo garrantziaren arabera aplikatuko dira, **alde bat utzirik zehazturiko kategoria tipologikoak**, eta araudian ondoren zehazten diren zehaztapenak beteko dira.

Salbuespenak salbuespen, **administrazioak bururaturiko katalogazioei** dagokie **lehen maila**, eta **Udalaren ekimenaz aintzat harturiko elementuei** eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak babesteko proposatu dituen beste elementu askori dagozkie **gainerako lau mailak**:

M - Monumentuen Babes Maila

Maila honetakoak dira **Kultura Garrantzizkotzat** harturiko eraikinak (**KGO**) edo **halakotzat hartzeko tramitean daudenak**, bai eta Eusko Jaurlaritzak edo Gipuzkoako Aldundiak, arloan administrazio eskudunak diren aldetik, hala **katalogatutakoak**. Egungo arau eta legeriaren pean gelditzen dira.

I - Kontserbazio Maila Osoa

Maila honek osorik babesten ditu eraikinak, arkitektura ezaugarriak, jatorrizko elementuak, eta okupaturiko espazioaren itxura eta hedadura zainaraziz. Neurriei dagokienez, monumentuen babesaren parekoa da maila hau.

E - Egituraren Kontserbazio Maila

Maila honek **egitura** baizik ez die eraikinei **entsarazten**, erabilera berrietara egokitzeko hartan ere esku hartze jakin batzuk onartzen dituen arren. Nolanahi ere, guztiz errespetatu behar dira eraikinaren **kanpoko egituraren** osagaiak.

P - Kontserbazio Maila Partziala

Maila honek **eraikinaren kanpoaldea** babesten du batez ere, barrua husturik ere eutsi egin beharko bailitzaioke. Kasu horietaz gainera, eraikinaren **elementu jakin bat** izan daiteke, halaber, babes maila honen helburua.

A - Ingurumenaren Babes Maila

Maila honetara biltzen dira, alde batetik, babesteko **fatxada** baizik ez duten eraikinak. Kasu horretan, guztiz kontserbatu behar dira fatxadaren ezaugarriak, bai eta haren berreraikuntza onartuko litzatekeen kasuetan ere. Maila honetara biltzen dira, era berean, babeserako proiektu baten zuzeneko jomuga ez diren arren, aurreko mailetako eraikinen baten edo batzuen ondoan direlarik, babestu beharreko giro edo ingurune baten barruan gertatzen diren eraikinak. Kasu horretan, eraberritzerakoan, inguruko eraikinen zorua okupatzeko moduarekin, konposizio ezaugarriekin eta diseinu mailako soluzioekin bat datozen soluzio tipologikoak aurkeztu edo berenganatu behar dituzte eraikin hauek.

Babes maila hauetako bakoitzari begira **onartuko diren obrak** zehaztu dira araudian, aintzat harturiko zehaztapenen arabera., Hona hemen obra mota horiek zertan diren:

- A) Kontserbazioa eta Konponketa
- B) Zaharberritzea
- C) Birgaitzea eta Erreforma
- D) Berregituratzea, kontserbatuko ez diren aldeak zabaltzeko aukeraz
- E) Eraistea eta Oin Berria

Katalogaturiko eraikinen zerrendan, **tipologiaren arabera ordenatu dira** eraikinak, eta ez babes mailen arabera, antolaera mota horrek dokumentuaren egitura hobekiago ulertzeko aukera ematen duelakoan. Lehenengo zutabearen ageri dira **Tipologia Orokorren arabeko Kodeak**, honela egituratzen direnak: kode tipologikoa bera eta Plan Nagusiak egokitu dion ordena-zenbakia. Zenbaki hori Katalogoaren planoetan ageri denarekin lotzen da eta, beraz, **azkar** egiten da, horrenbestez, elementuaren eta dagokion babes mailaren **identifikazioa**.

Elementuaren **izena** ageri den zutabearen ondoren zehaztu da **elementu mota zehatzari** dagokion zutabea, beste kode batez zehazten dena. Memoria honekin

batera aurkeztu dugun koadroan ageri da haren identifikazioa. Azkenik, elementu bakoitzari egokituriko **babes maila** erantsi da zerrenda honetan.

Arkitektura Katalogoko Fitxak bolumen hau kategoriatipologikoen arabera ere egituratu da, eta dokumentazioaren osagaia da, bereiz karpetatuta den arren.

1.4 Historia eta Arkitektura Babeserako Katalogoko Zerrendak

Hona hemen Historia eta Arkitektura Babeserako Katalogoko Zerrenda osoak.

HISTORIA ETA ARKITEKTURA KATALOGOA			
KODEA tipologia eta zen. ord.	KATALOGATURIKO ELEMENTUAREN IZENA	ELEMENTU MOTAREN KODEA	BABES MAILA
EM1	JUNKALEKO AMAREN ELIZA	I	M
EM2	HERRIKO ETXEA	CC	M
EM3	ARBELAITZ	PA	M
EM4	AMA BIRJINA SORTZEZ GARBIAREN ELIZA	H	M
EM5	GUARDIAKO ETXEA	CG	M
EM6	AMA XANATALEN	E	M
EM7	AMA XANATALEN ITURRIA	EU	M
EM8	URDANIBIAKO JAUREGIA, OLA ETA ERROTA	CFP	M
EM9	BERAUN	CS	M
EM10	MARTINDOZENEA	CS	M
EM11	ARANTZATE	C T	M
EM12	DONEJAKUE BIDEAREN TRAZATUA	CAM	M
R1	ADUANA ERAIKINA	PU	E
R2	SAN AGABRIEL ETA SANTA GEMA	I	I
R3	ZABALTA PLAZAKO KIOSKOA	Q	I
R4	JUNKAL ESKOLAK	ES	P
R5	SAN MARTZIAL	E	I
R6	'LARRAMENDIARENA' ETXEA	VU	E
R7	COLON KASINOA	PU	P
R8	JAINKOAREN ZERBITZARIEN KOMENTUA	CO	E
R9	IKUSTALAIA ETXEA	VU	E
R10	PIKOKETA KARRIKAKO 11. ETXEA	CU	P
R11	PIKOKETA KARRIKAKO 13. ETXEA	CU	P
R12	OSPITALE ZAHARRA ETA MIRARIETAKO KAPERA	CP	P
R13	KUARTEL ZAHARRA	BV	E
R14	JUANKALEKO ELIZAREN ONDOKO ETXEBIZITZAK	BV	E
R15	SAN MARTZIAL KARRIKAKO 1. ERAIKINA	EV	E
R16	JENARO ETXEANDIA PLAZAKO ERAIKINAK	CV	P
R17	POLIZIA KOMISALDEGIA ZABALATZA PLAZAN	PU	E
R18	'NORMANIDE' ETXEA, GIPUZKOAKO HIRIBIDEA, 4	EV	E
R19	COLON IBILBIDEKO 3. ETXEA	EV	E
R20	COLON IBILBIDEKO 36. ETXEA	EV	E
R21	COLON IBILBIDEKO 8., 10. ETA 12. ERAIKINA	EV	E
R22	IPARRALDEKO HIRIBIDEKO 3. ERAIKINA	EV	E
R23	IMMIGRAZIO ETXE ZAHARRA	EA	E
R24	FRAN. GAINZA KALEKO 7., 9., 11. ETA 13. ETXEAK	VUN	E
R25	POLICARPO BALZOLA KARRIKAKO 3. ETXEA	VU	E
R26	'DUCOUREAU' ETXEA, HENDAIA KARRIKA, 8	VU	E
R27	'MARIA LUISA' ETXEA, POLICARPO BALZOLA, 3	VU	E
R28	GUDARIEN KARRIKAKO 14. ETXEA	VU	E
R29	'CARMEN' ETXEA, GUDARIEN KARRIKA, 2	VU	A
R30	'IRU-BIDE' ETXEA	VU	E
R31	'MONTANO' ETXEA	VU	E
R32	FORUEN KARRIKA, 5	EV	P
R33	LEGIA KARRIKA, 4	EV	P
R34	HONDARRIBIA KALEA, 39.-41.	EV	P
R35	'RAMUNTZO' TRINKETEA	VU	P
R36	IPARRALDEKO HIRIBIDEA, 14	EV	P
R37	'PIO BAROJA' IRAKASKUNTZA ERT. INSTITUTUA	IE	E
R38	'HERMANOS ITURRINO' ANBULATORIOA	CSA	E
R39	KARRIKA NAGUSIKO ITURRIA	FU	E
R40	KARRIKA NAGUSIKO 9. ETXEA	CCA	P
R41	KARRIKA NAGUSIKO 14. ETXEA	CCA	P
R42	KONTRAKALEKO 16. ETXEA	CCA	P
R43	KARRIKA NAGUSIKO 8. ETXEA	CCA	P
R44	KARRIKA NAGUSIKO 19. ETXEA	CCA	P
R45	LARRETXIPI KARRIKAKO 4. ETXEA	CCA	P
R46	'ESPILLA' ETXEA, LARRETXIPI KARRIKA, 24	CCA	P
R47	ESKOLETA KARRIKAKO 5. ETXEA	CCA	P
R48	SAN MARTZIAL KARRIKAKO 14. ETXEA	CCA	P
R49	POXPOLO FABRIKAKO TXIMINIA	ELI	I

HISTORIA ETA ARKITEKTURA KATALOGOA (jarraipena)			
KODEA tipologia eta zen. ord.	KATALOGATURIKO ELEMENTUAREN IZENA	ELEMENTU MOTAREN KODEA	BABES MAILA
R50	PALMERAKO ETXEAK	BV	E
R51	EGUZKITZALDEA KARRIKAKO 8. ETXEA	CCA	P
R52	'OTEIZAREN ETXEA' IPARRALDE. HIRIBIDEA 35-37	VU	E
R53	JESUS KARRIKAKO ITURRIA	FU	E
R54	SAN JUAN HARRIA	ET	I
R55	HIRIBIDEKO ZUBIA MUGAN	PUE	E
R56	NORTEKO BURDINBIDEKO ZUBIA MUGAN	PUE	E
R57	SANTIAGOKO OINEZKOEN ZUBIA	PUE	E
R58	URDANIBIAKO PLAZAKO PRETILA	M	E
R59	ARTIAKO ERMITA	E	P
R60	SAN ANTON ERMITA	E	P
R61	HERRERIA / BENTA BERRIA /PERRATZAILENEA	CAS	P
R62	SAN MIGEL	CAS	P
R63	HILTEGIA	EI	P
A1	ALDABE	C	P
A2	LARRAZURI	C	P
A3	LASKOAIN BERRI	C	P
A4	ALUNDARBELAITZ	C	A
A5	GOMIZENEA	CB	P
A6	ALATRISTA	CT	P
A7	ALTZULEGARRE	C	P
A8	EIZAGIRRE	CB	P
A9	IPARRAGIRRE	C	P
A10	LARREAUNDI	CB	E
A11	LIZARDI	C	P
A12	BELBIO	C	P
A13	BORDATXURI	C	P
A14	BURUTARAN	C	A
A15	LEGIA	CS	P
A16	OIARTZABAL	C	P
A17	IBARROLA	CT	P
A18	ARANBURU	CS	P
A19	GORROAGA	C	P
A20	IGIÑIZ	CB	P
A21	ZAMORA	CS	P
A22	ZABALETA	CB	P
A23	ARANIBAR ZAHAR	C	P
A24	MOKOZORROTZ	C	P
A25	OLAKINETA	C	P
A26	ENAPARAN	C	P
A27	TXUMARRAGA	C	P
A28	ALTZUBIDE	C	P
A29	ALTAMIRA	C	P
A30	TONPES	C	P
A31	BELTRANENEA	C	P
A32	MAKATZONDO	C	P
A33	TXIMISTA	C	P
A34	ARBELAITZ TXIKI	C	P
A35	ALTZOLARAN	C	P
A36	PEDRONEA	C	P
A37	LABEKOETXEA	C	P
C1	ALTZUBIDE	CF	P
C2	ARANTZATE	CF	I
C3	ENDARA	CF	P
C4	IBARROLA	CF	P
C5	OLABERRIA / SANTXOTENEA	CF	P
C6	ANTOJU	MF	P
C7	ARANBURU	MF	P
C8	URUNEA	CF	P
C9	ERROTABERRIA / SANTA ELENA	MF	P
C10	UGALDE	MF	P
C11	IRUGURUTZETA	HC	P
C12	SAN NARTZISO	PL	P

C13	OLAKINETA	PL	P
-----	-----------	----	---

HISTORIA ETA ARKITEKTURA KATALOGOA	
KODEAREN IDENTIFIKAZIOA ELEMENTU MOTAREN	
DESKRIBAPENAREN ARABERA	
KODEA	ELEMENTU MOTA
BV	Etxebizitza blokea
C	Baserria
CAM	Bidea
CAS	Etxea
CB	Etxe Armarriduna
CC	Herriko Etxea
CCA	Hirigune Historikoko etxea
CF	Ola-errota multzoa
CFP	Ola, errota eta jauregi multzoa
CG	Guardia Etxea
CO	Komentua
CS	Oinetxea
CSA	Osasun Zentroa
CT	Dorretxea
CU	Hiriko etxea
CV	Etxebizitza multzoa
E	Ermita
EA	Administrazio eraikina
EI	Industria eraikina
ELI	Industria elementua
ES	Eskola
ET	Estatua
EV	Etxebizitza eraikina
FU	Iturria
H	Ospitalea
HC	Kaltzinazio Labeak
I	Eliza
IE	Irakaskuntza Ertaineko Institutua
MF	Ibai errota
PA	Jauregia
PL	Putzua / Gobadalekua
PRE	Urtegia
PU	Hiriko jauregia
PUE	Zubia
Q	Kioskoa
VU	Hiriko etxe sarjinduna
VUN	Etxebizitza familiabakarrak

1.5 ARKEOLOGIA KATALOGOAREN oinarrizko egitura

Arkeologia Katalogoa osatzen duten elementuei dagokienean, gaur egun **aurri egoeran dauden edo hondakinak** soilik dituzten eremu arkeologikoak eta elementu fisikoak jaso dira, kontuan hartu behar diren aldez aurreko jardueren aipamen guztiekin, ezen, arestian adierazi egin den bezala, Arkitektura Katalogoan jaso baitira egungo eraikuntzetan modu zehatzagan zehaztu eta identifikatu ahal izan diren elementuak.

Azaldu ditugun irizpideetan oinarriturik, **kategoria tipologikoen** gainean zehazturiko **irizpideen** arabera, hau da, unean uneko babes mailak alde bat utzirik, arautu eta egituratu da halaber **Arkeologia Katalogoa**.

Administrazioak definituriko kategorien araberako gako alfabetikoak bideratu beharrean, elementuak beste modu honetan ordenatu badira ere, antolamendu berrian **guztiz errespetatu dira** aintzat harturiko eremu bakoitzaren **arautzeari begira zehazturiko irizpideak**.

Ondoko **tipologia kategorien** arabera egituratu da **Arkeologia Ondarearen Katalogoa**, kontuan harturik bat datozela horiek guztiak dagozkien **katalogazio mailekin**:

- Z.- Oiassoko arkeologia eremuak eta Irungo Erdi Aroko Hirigunea**
- E.- Ermitak**
- F.- Gotorlekuak**
- P.- Padurak**
- M - Meatze erromatarrak**
- N.- Elur-zuloak**
- O.- Beste batzuk**

Z.- Oiassoko arkeologia eremuak eta Irungo Erdi Aroko Hirigunea

Maila honetara mugatzen da erromanizazioaren garaiko aztarna zehatzak (portu erromatarra zatekeenaren hondakinak, terma erromatarrak eta erromatarren garaiko okupazio mailak, K.o. I. eta III. mendeen bitarteko aztarnategiei dagozkienak, agertu diren geruza arkeologikoak batez ere), azaldu diren eremua. Aurkikuntzak egin diren lekuak zehatz-mehatz identifikatzeaz gainera, Katalogoaren planoan adierazi dira, Oiassoko Arkeologia Eremua bezala, Oiassoko arkeologia eremuaren Babes Eremua Irungo Erdi Aroko Hirigunea ere.

E.- Ermitak

Bi ermita egon ziren eremuak hartu dira aintzat maila honetan. Hirian zegoen bata eta Ibaietako landa eremuan bestea. XVI. mendekoa zen lehena eta Erdi Arokoa bestea, eta egun ez da haien trazarik.

F.- Gotorlekuak

Maila honetara bildu dira defentsarako eraikinen aztarnak eta elementuak, eraberritze prozesuan batzuk eta hondakin eginak besteak. XVI. eta XIX. mendeen artean eraiki ziren oro har. Gerra karlisten garaikoak dira berrienak, hiriaren inguruko mendi tontorretan jasoriko dorre eta gotorleku txikiak horietako gehienak, eta hiri zaharraren inguruko murruren lerroan ageri dira beste batzuk, Junkaleko aldean.

P.- Padurak

Maila honetara bilduak dira padurek egungo betelaneen aurretik hartzen dituzten eremu zabalak. Izan ere, historiako eta are historiaurreko aztarnak ager litezke Bidasoa ibaiak pausaturiko alubioi-aldeen azpian. Bi gune zehaztu eta identifikatu dira maila honen barnean: oraindik guztiz baieztatu beharreko zantzuak diren arren, erromatarren garaian Bidasoa ibaia zeharkatzeko zurezko zubi baten aztarnak lirateke gunea batean, eta paleo-hondartzaren, hau da, antzinako ibai bazterretako muga berri emango liguke bigarren guneak. Neolitikoa edo Brontze Aroan egokituko gintuzke gune honek.

M - Meatze erromatarrek

Maila honetara bildu dira mendian zulaturiko tunel askoren aztarnak, erromatarrek inguru hauetako meatzeak ustiatu zituzten garaian eginak eta, ondoren, XIX. mendera bitarte erabili egin zirenak. Altamira muino eta baserriaren inguruan, Zubeltzu mendian, eta Belbio eta Olakineta baserrien inguruetan ageri dira.

N.- Elur-zuloak

Aiako Harriaren iparraldeko mazedetan, 450 eta 550 m bitarteko goratasunean, ageri diren elur-zuloak hartu dira aintzat maila honetan. XVII. mendean prestatu zituzten.

O.- Beste batzuk

Egun industria pabilioiek okupaturiko eremu bat hartzen du maila honek, errota moduko erreka aprobeixamendurako elementu bat zegoelakoan. XVI. mendea baino lehenagokoa izango zen seguruenik eta, hirigintzaren poderioz eraginiko aldaketak direla medio, guztiz galdu da haren traza.

Arkeologia Katalogoan, arkitektura izaerakoan proposatu den bezalaxe, **katalogaturiko elementuen zerrenda** egin da hasteko, elementu horiek zehaztutako tipologiaren arabera antolaturik, horrek aukera emango baitu dokumentua nola egituratu den hobeto ulertzeko.

Lehen zutabearen ageri dira **Tipologiaren arabeko Kodeak**, eta horien ondoren zehaztu da Plan Nagusiak elementu bakoitzari eman dion ordena-zenbakia. Katalogoko planoan ageri denarekin lotuko den **zenbaki** horrek aukera emango du elementua eta haren babes maila **azkar identifikatzeko**

Elementuaren izenaren ondoren, **elementuaren arkeologia mota zehatza** zutabea etorriko da, beste kode batez zehaztua (ondoko orrialdeko koadroan ageri da haien identifikazioa). Azkenik, **indarrean dagoen araudia zuzenean aplikaturik** dagokion **babes maila** azalduko da zerrenda horretan, Katalogo honek xedatzen duenarekin batean.

Zehaztutako tipologiaren kategoriak ere kontuan hartu dira **Arkeologia Katalogoaren Fitxen** atala egituratzeko. Dokumentu bereizi gisa aurkeztu dira Fitxak.

1.6 Arkeologia Babeserako Katalogoko zerrendak.

Hona hemen Historia eta Arkitektura Babeserako Katalogoko Zerrenda osoak.

ARKEOLOGIA KATALOGOA			
KODEA tipologia eta zen. ord.	KATALOGATURIKO ELEMENTUAREN IZENA	ELEMENTU MOTAREN KODEA	BABES MAILA
Z1	SANTIAGO	PR	Z
Z2	SANTIAGO 29	PR	Z
Z3	SANTIFER	PR	Z
Z4	TADEO MURGIA	PR	Z
Z5	JUNKALEKO ESKOLAK - ATZEALDEA	TR	Z
Z6	BERAJETA	NROU	Z
Z7	SARJIAKO PARKEA	YR	Z
Z8	FRANCISCO DE GAINZA, 1-3	YR	Z
Z9	SARASATE KARRIKA, 10	NROU	Z
Z10	JUANKALEKO PLAZATXOA ETA ELIZA	NROU	Z
Z10	BIDASOA	YR	Z
Z12	SAN JUAN	YR	Z
E1	ANDREMARIAREN BORDA	E	E
E2	ELIZATXOKO ERMITA	E	E
F1	GAZTELUZAR	CA	F
F2	ASTIGARRAREN BORDA / CONRAD	F	F
F3	SAN MARTZIAL	F	F
F4	GAIN GAINEAN	F	F
F5	PAGOGAÑA	F	F
F6	HARRESI MODERNOA	FO	F
F7	HARRESI KARLISTA	FO	F
F8	ENDARLATSA	T	F
F9	ZUBELTZU	T	F
F10	PIKA	T	F
F11	ELATZETA	T	F
F12	MENDIBIL	F	F
F13	AZKENPORTU / EVANS	F	P
P1	HIRU KANALEKO ZUBIA	P	P
P2	PALMERA MONTERO	PP	M
M1	ALTAMIRA I	MR	M
M2	ALTAMIRA II	MR	M
M3	ALTAMIRA III	MR	M
M4	ALTAMIRA IV	MR	M
M5	BELBIO I	MR	M
M6	BELBIO II	MR	M
M7	OLAKINETA I	MR	M
M8	OLAKINETA II	MR	M
M9	OLAKINETA III	MR	M
M10	OLAKINETA IV	MR	M
M11	ZUBELTZU I	MR	M
M12	ZUBELTZU II	MR	M
N1	ARBURUKO GAINA	N	N
N2	ELURRETXE	N	N
N3	PIKABEA	N	N
N4	SORGINOLA	N	N
O1	ERROTA AUNDI	MF	O

ARKEOLOGIA KATALOGOA	
KODEAREN IDENTIFIKAZIOA ELEMENTU MOTAREN DESKRIBAPENAREN ARABERA	
KODEA	ELEMENTU MOTA
NROU	Hiriko okupazio maila erromatarra
PR	Portu erromatarra
TR	Terma erromatarrak
YR	Aztarnategi erromatarra
E	Ermita
CA	Gaztelua
FO	Gotorlekua
F	Etxe gotortua
T	Dorretxea
PP	Neolitiko / Brontze Aroko paleo-hondartza
P	Zubi erromatarra
MR	Metaze erromatarra
N	Elur-zuloa
MF	Ibai errota

IRUNGO HISTORIA ETA KULTURA ONDAREAREN BABESERAKO KATALOGOA

ARAUDIA

ONDAREAREN BABESERAKO KATALOGOAREN ARAUDIA

Hona hemen Irungo Udalerriko Historia eta Kultura Ondarearen Katalogorako araudi berezia.

1.- ONDAREAREN BABESERAKO KATALOGOAREN ARAUDIA

1.1 Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoaren definizioa.

1. Euskadiko Lurzorua eta Hirigintza arautzen dituen 6/2006 Legearen 63.2 eta 76.1 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera definitzen da Irungo Udalerriko Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoa, honako hau adierazten baita hitzez hitz haietan: “hirigintzako antolamenduan babestu beharreko ondasun naturalak eta artifizialak zein diren zehaztu eta zerrenda batera biltzen ditu katalogoak. Haien ezaugarriak ere jasotzen ditu, eta, beharrezkoa bada, zein maila edo kalifikazio dagokien –aplikatzekoa den legearen arabera– eta babesa arautzeko zehaztapenak zein planetan dauzkaten ere zehazten du”.

2. Legearen aginduari segida emanez, Udalerriko Ondarearen Katalogoan hartzen dira aintzat, beren tipologia, historia eta arkitektura ezaugarriak direla eta, dagokien mailan babestu beharreko monumentuak, eraikinak, eraikuntza atalak eta elementuak, haien hondamena, aldaera, erabilera galgarria edo eraistea eragoztearren.

3. Babesturiko elementuen artean daude kultura garrantzikitzat harturiko ondasun higiezin guztiak eta haien inguruneak, Eusko Jaurlaritzaren Katalogoetan aintzat harturikoak, eta Gipuzkoako Aldundiaren alde aurreko lanetan behin behineko izaeraz gogoan harturiko elementuen parte esanguratsu bat. Aintzat hartu dira era berean, Aldundiak adierazitako gune arkeologikoak.

4. Katalogo honetara bildu dira, halaber, udalerrri mailan dituzten garrantzi eta berezitasunengatik, aurreikusi diren babes maila horietako batez zaindu beharrekotzat eta, beraz, Katalogo honetan aintzat hartzeko modukotzat, jo diren beste eraikin eta elementu batzuk.

1.2 Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoaren edukia.

1. Honako dokumentu hauek dira Irungo Udalerriko Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoaren osagaiak: Memoria, Araudi berezia, Katalogaturiko Elementuen Fitxak eta Katalogoaren Planoak.

2. Irungo historia eta kultura ondarearen babesari begira harturiko neurriak zehazten eta arrazoitzen ditu **Memoriak**, planteamendu nagusiak laburrean azalduz, eta Araudiaren egitekoa da ondarearen babeserako neurrien arabera helburuak egokiro lortzeko bideratu beharreko artikulazio berezia zehaztea.

3. Katalogaturiko Elementuen Fitxak banakoak dira, eraikin edo elementu bakoitzeko, eta haietara bilduak dira elementu bakoitzari buruzko datu nagusiak. Hona hemen: Identifikazioa eta kodeak, izen mota eta kokalekua zehaztuz; Deskripzioa, elementuen egungo egoera ere zertan den adieraziz, eta Erregulazioa, babes maila eta beste datu edo jakingarri gehigarri batzuk erantsiz. Bibliografiaren erreferentziak eskaintzen dira atal honetan.

4. Katalogoaren Planoetan egin da babestu beharreko eraikin, elementu eta eremu guztien kokalekuaren erreferentzia, haietako bakoitzaren identifikazio kode, zenbaki eta izenen zerrenda ere zehaztuz. Bi plano mota hartu dira aintzat, Arkitektura Ondarearen Babeserako Katalogoan bata eta Arkeologia Ondarearen Babeserako Katalogoan bestea.

5. Multzo bakar bat osatzen dute lau dokumentu hauek, eta haietan egiten dira aipaturiko Legeak 76. artikuluan adierazitako helburuei erantzuteko beharrezkoak diren erreferentzia guztiak. Lege horren beraren 60.2 artikuluan aurreikusi den bezala, hirigintza antolamendurako tresna osagarria izatea da Katalogoaren funtsa.

1.3 Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoaren tramitazioa eta Plan Nagusiarekiko lotura.

1. Euskadiko Lurzorua eta Hirigintza arautzen dituen 6/2006 Legearen 76.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren aldi berean tramitatuko da Katalogo hau, bereiz eta dokumentu autonomo gisa betiere, eta harekin batean onartu beharko da.

2. Halatan, Plan Nagusiarekin eta haren Araudi Bereziarekin koordinatua eta lotua da Katalogo hau, eta katalogaturiko eraikin eta elementuen gainean baizik ezin dira bideratu haren xedapen bereziak. Beraz, oinarria hartzen du Plan Nagusiaren Araudi eta Ordenantzetatik, eta haiekin lotzen da ezinbestean, Plan Nagusian zehaztu baitira hirigintza antolamendurako elementu guztiak. Plan Nagusiaren araudia da, hortaz, Katalogoak zehatz-mehatz adierazi ez duen horretan guztian kontuan hartu beharreko erreferentzia.

1.4 Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoaren aldaketa.

Irungo Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoko elementuetakoren bat aldatu ahal izateko, toki erregimeneko araudian udal ordenantzarako ezarritako prozedurari jarraituko zaio. Jendaurreko informazio epearen barnean, txostena egiteko eskatuko zaie dagokion foru aldundian eta Eusko Jaurlaritzan kultur ondarearen alorrean eskumena duten sailei.

1.5 Historia eta Kultura Ondarearen Katalogoaren artikulazioa.

1. Bi zatitan banatu da Kultura eta Historia Ondarearen Katalogoa: Arkitektura Ondarearen Babeserako Katalogoa eta Arkeologia Ondarearen Babeserako Katalogoa. Barne zatiketa honengatik ere, dokumentuei dagokionez, dokumentazio bakar batera bildu dira guztiak, Memoria, Araudia, Fitxak eta Planoak. Horrenbestez erraztu dira Hiri Antolamendurako Plan nagusiaren dokumentu osagarri honen irakurketa eta aplikazioa.

2. Araudiak xedapen orokorrak ageri ditu lehenengo Tituluan (komunak dira xedapen hauek bi Katalogoetarako), eta beste bi Titulu berezi, Arkitektura Ondarearen Babeserako Katalogoari dagokio bata, eta Arkeologia Ondarearen Babeserako Katalogoari bestea.

1.6 Historia eta Kultura Ondarearen definizioa.

1. Era da, Irungo Ondarearen Katalogoari eta Irungo Plan Nagusiari begira, Historia eta Kultura Ondarea, hiriko historiako ekarriaren nortasuna osatzen duten kultura, ekonomia, paisaia edo ingurumen ondasunen multzoa, izaeraz naturala edo giza adimenaren fruitua izan daitekeena, eta arrazoi horrengatik elementuz elementu Arkitektura Ondarearen eta Arkeologia Ondarearen Katalogo bikoitzean aintzat hartua izan dena.

2. Aplikatu beharreko uneko legeria berezian aurreikusitakoaren arabera zehaztu eta bideratuko da betiere Katalogo honetan Historia eta Kultura Ondarearen osagaitzat harturiko eraikin eta elementuen babesa.

1.7 Babes neurri orokorrak eta bereziak.

1. Plan Nagusiarekiko koherentzia hautsi gabe, jasoriko eraikin eta elementuen babesa bideratzen du Irungo Ondarearen Katalogoak, honako hauen bitartez:

a) Babesari begira, izaera orokorrez aintzat hartu beharreko irizpideak, unean uneko kategoria edo babes mailaren arabera.

b) Babes neurri bereziak, Katalogoko Fitxa zehatz bakoitzean deskribatu denaren arabera zehazten direnak.

2. Eraikin eta elementuen babesera eraikin edo elementu horiek dauden lursailera edo lursailaren zati batera hedatzen da eta, izaera orokorrean, inolaz ere ezin banatu edo zatituko da lursail hori.

3. Dago(z)kien proiektu(ar)en esparruaren barnean aztertu eta interpretatu behar dira elementu bakoitzaren babeserako izaera orokorrean aintzat hartuko diren irizpideak eta hartuko diren neurri bereziak. Zera da hala jokatzearren arrazoiak, neurri horiek bideratzeaz arduraturiko udal zerbitzu teknikoek aplikatu beharreko esparruan ahalik eta modu errazenean egokitzeko aukera edukitzea.

1.8 Arloko araudiaren edo araudi bereziaren nagusitasuna.

1. Ondarearen Udal Katalogoaren gainetik ezinbestez eta lehentasunez aplikatu behar dira historia eta arkitektura ondarearen eta arkeologia ondarearen babesaren gaineko araudi eta irizpideetan zuzeneko eragina duten hainbat lege eta dekretu, honako hauek bereziki: Espainiako Historia Ondarearen Legea, Gipuzkoako Historia eta Arte Monumentuen Ordena, Donejakue Bideko Historia eta Arte Multzoaren gaineko Dekretua, eta Eusko Jaurlaritzaren 7/1990 Legea, Euskal Kultura Ondarea arautzen duena, bai eta arlo honetan indarrean dauden gainerako lege eta xedapenak ere.

2. Eusko Jaurlaritzaren dekretuen arabera dagoeneko kultura ondasun gisa kalifikaturik, Kultura Ondasun Kalifikatuen Erregistroan jasorik eta Kultura Ondasunen Inbentario Nagusian zerrendaturik eta halakotzat harturik dauden elementuen kasuan, aipaturiko dekretuetan aurreikusirik babes neurriak aplikatu eta bideratuko dira.

3. Kultura garrantziko Ondasun higiezinenei, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak zabalduko Zerrenda berezian jaso diren Monumentu edo Monumentu Multzoei Gipuzkoako Aldundiaren Kultura Departamentuak zentzu horretan aintzat harturiko beste hainbat ondasuni dagokienez, udal araudiaren gainetik aplikatu eta bideratuko dira, lehentasunez, elementu horiekiko lege onartu eta indarrean dauden babes neurriak, bai eta aurrerantzean xede horretan onartuko direnak ere.

4. Oihassoko Arkeologia Eremuaren eta Oihassoko arkeologia eremuaren eta Irungo Erdi Aroko Hirigunearen Babes Eremuaren kasuan (Arkeologia Ondarearen Katalogoaren planoan zehaztu dira Babes Eremu horren mugak), zehatz-mehatz beteko dira ezinbestez aplikatu beharreko xedapenak eta zehaztapenak eta Katalogoan zehazturiko araudia.

5. Kasu hauetan guztietan, modu osagarrian aplikatuko da betiere Udal Ondarearen Katalogoaren araudia, kontradikziorik sorrarazten ez duten alderdi guztietan eta

indarrean dauden arau eta lege bereziak zuzenean arautzen ez dituzten elementuen kasuan.

6. Une oro aplikatu eta bideratuko da arloko araudi eta legeria bereziek udal araudiaren gaineko lehentasuna edo nagusitasuna xedatzen duen printzipioa, eta halaxe jokatuko da etorkizunean ere, beste araudi bat indarrean jar dadinean edota eraikin edo elementu baten katalogazioa eta babes zehatza xeda dadinean, kontuan hartu gabe elementu hori Udal Katalogoan aintzat hartua zen ala ez.

7. Nolanahi ere, aplikatu eta ezinbestez bete beharko dute Udal Katalogoaren araudia hartan aintzat harturiko elementu guztiek, baldin eta estatuko, autonomiako edo lurraldeko administrazioen irizpide, zerrenda, gomendio eta abarren arabera neurri bereziak indarrean dauden arautzat edo ezinbestez bete beharreko agindutzat ezin hartu direnean.

8. HZBPB edo Hirigune Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak arauturiko esparruan (BIE edo Birgaitze Integralerako Eremutzat hartu zuen Irungo Hirigune Historikoa Eusko Jaurlaritzaren 2002ko dekretu batek), berariazko izaera bereziko Plan Berezi horretan aurreikusiriko arauak aplikatuko dira Irungo parte zahar osoaren esparruan, Ondarearen Katalogo honetan zehazturikoaren kontra ez datorren guztian.

1.9 Kontserbatzeko agindua.

1. indarrean dagoen legeriak eta Araudi honek aurreikusirikoaren arabera, Katalogoan eraikin edo elementu bat aintzat hartuz gero, ezinbestez kontserbatu, babestu eta zaindu beharra dago aurrerantzean.

2. Katalogazio maila batean aintzat harturiko eraikin bat kontserbazio egoera txarrean badago, beharreko neurriak hartuko dira jatorrizko edo aurreko egoerara itzultzearen, eta hartan bideratuko diren zaharberritze lanek inolaz ere ez dituzte kontserbazio egoera normalean dauden eraikin atalak arriskuan jarriko edo desitxuratuko, inolaz ere ez dituzte banan-banako Katalogo Fitxan adierazitako elementu interesgarriak galarazi edo desagerraraziko.

3. Katalogaturiko eraikinaren edo elementuaren jabeek dagokie lehen-lehenik aurrekoa betetzeak dakartzan betekizunez arduratzea, bai eta Herri Administrazioari ere, legez edo jurisdikzioz dagokion zatian.

1.10 Katalogaturiko eraikinak kontserbatzeko aginduaren haustea.

1. Aurreko artikulua 3. atala betetzen ez bada, jabearen ordezkari gisa jokatzeko ahalmena edukiko du Udalak, eta lanen kostua bere gain hartzeko eskatu ahal izango dio agindu-hausleari premiamendu bidez.
2. Ondasun higiezinaren jabeek kontserbatzeko agindua hautsirik, ahalmena izango du Administrazioak haren desjabetze prozesuari indarrean dagoen legeriaren arabera ekiteko.

1.11 Katalogaturiko eraikinetako elementuen suntsitze partzial arrazoitua.

1. Katalogaturiko eraikinetan bideratu beharreko lanen bitartean, aurrealdea, fatxadak edo kontserbazioa merezi luketen beste elementu interesgarri batzuei berez ezin eutsi zaiela, haiei eusteak ikuspegi teknikotik neurririk gabeko kostuak sorraraziko lituzkeela edo, segurtasun mailako arrazoiak direla eta, bideratu beharreko lanak oso arriskutsuak izango liritekeela ikusten bada, Udalaren aurreko baimena beharko da (dagokion txosten teknikoan oinarrituriko erabakiko da ezinbestez baimen hori) gisa horretan esku hartu eta suntsitze lanei ekin ahal izateko.
2. Beste erakunde batzuek katalogaturiko eraikin edo elementuen suntsitze partzial arrazoitua planteatzen bada, ezinbestez jaso beharko da aurrez erakunde horren baimena, katalogazio hori indarrean badago.

1.12 Katalogaturiko edo babesturiko eraikinen eraistea.

1. Ondasun katalogatuak ezin izango dira eraitsi aldeztu aurretik ez bada aurri adierazpena egin eta Udalak ez badu berariazko baimena eman. Nolanahi ere, kalifikaturiko ondasuna desafektatzea nahitaezko baldintza izango da, jendaurreko informazio tramitea bete ondoren.

Aurri egoeraren adierazpena egingo da honako kasu hauetan:

- a) Aurri egoera fisiko berreskurazinean egonez gero, gutxieneko segurtasun baldintzak arriskuan jartzen dituzten kalteak suertatzen direnean eta elementu estrukturalak, elementu horien guztizkoaren ehuneko berrogeita hamar baino proportzio handiagoan, aldatu behar direnean.
- b) Kalte horiek konpontzeko kostua higiezina berritzeko egungo balioaren ehuneko berrogeita hamar baino handiagoa denean. Aipaturiko berritze balorazio horretan ez dute eraginik izango adinaren ondoriozko depreziatio koefizienteek, baina bai eragina izan dezakete maiorazioko koefizienteek, haiek aplikatzea

bidezkoa bada kalifikatzeko edo inbentarioan jasotzeko arrazoi izan ziren balio horiek izateagatik.

2. Nolanahi ere, katalogaturiko eraikin bat edo haren atal bat eraisteko aukera aintzat hartu behar den kasu guztietan ekingo zaio, aurrez, elementuaren historia, arkeologia edo arkitektura azterketari, eta dokumentazio hartara bildu beharko da eraikinaren elementu interesgarri guztien deskripzio xehea, funtsezko datuak zehatz-mehatz azalduz, eraikin berriaren kontuan hartuak izateko moduan egon daitezzen edo udal artxiboek, haietan gordetzea erabakiz gero, behar bezala zain ditzaten.

3.- Katalogaturiko eraikinen alde edo elementuen eraiste lanei ekin behar bazaie, ahal neurrian berreskuratu beharko dira, aurrez, kontserbatu eta banaka gorde ahal izango diren elementu interesgarriak, hala nola dekorazio elementu esanguratsuak, zokaloak, hutsarteen inguruak, erlaitzak, eskailera-mailak, balaustradak, zureria, sarraileria, eta abar, eraikin berriaren integratu ahal izateko, eta horretarako, aurrez zerrendatu eta xehe-xehe fotografiatuko dira ordezkatzeko proiektuan bideratuko diren elementu horiek guztiak.

4. Katalogoaren barnekotzat edo babestutzat harturiko eraikin edo elementuren bat baimenik eta exekuziorako agindurik gabe, edo haietan zehazturiko baldintzak bete gabe, eraisten edo desmuntatzen dutenak eta era berean, jabe diren aldetik, eraisteko edo desmuntatzeko baimena ematen dutenak, eraikin edo elementu hura solidarioki berreraikitzea behartu ahal izango dira, bidezko litezkeen zigorrak ordainarazteaz gainera.

1.13 Salbuespenak Plan Nagusiaren araudia katalogaturiko eraikinetan bideratzerakoan.

1. Eraikin bat Katalogoan babes osoko mailan aintzat hartzen edo Kultura Garrantziko Ondasuntzat hartzen bada, aurri egoeran dauden eraikinen eraiste erregimen komunetik, Plan Nagusiak zentzu horretan eginiko zehaztapenetatik eta derrigorrezko eraikitze erregimenetik kanpokotzat hartzen da aldi berean.

2. Nolanahi ere, eraikinen edo haien atal batzuen aurri egoeraren balizko aldarrikapen bati begira, historia ondarea arautzen duen legeriak eta Plan Nagusiaren araudiak xedaturikoa beteko da.

3. Katalogaturiko eraikinek ez dituzte, beren espazio eta elementu babestuetan, hirialdeko Ordenantzetan zehazturiko neurri-parametroak bete behar izango. Hala eta guztiz ere, espazio eta neurri aski bildu beharko dituzte betiere, birgaitze lanen helburuko erabilera duintasunez eta segurtasunez garatu ahal izateko.

4. Eraikin bat katalogaturiko elementutzat hartu denez geroztik, eraikin edo elementu horretan debekaturik dago zeinahi eranskin edo elementu arrotz gaineratzea, hala nola iragarkiak, kartelak, banderinak, kableak, zutoinak edo markesinak, edo beste zernahi, eta elementuari dagokion babes maila guztira hedatzen da era berean neurri hau.

5. Aurreko zenbakian adierazi diren elementu horiek babesturiko ondasun higiezinetan aurrez ere bazeuden, 4 urteko epe gorenean beharko dira kendu, eraitsi edo erretiratu, Ondarearen Katalogo hau indarrean hasten den egunetik aurrera, kontuan harturik betiere babes maila bakoitzaren arabera eginiko xedapenak.

1.14 Katalogaturiko eraikinen kontserbatzeko aginduari loturiko onurak.

1. Gorago aipatu diren kontserbazio-aginduei dagokienez, eraikin bat Katalogoan aintzat hartu izan den unetik, obligatuak daude jabeak Arau hauetan galde egiten diren lanak egitera, kontserbatzeko aginduaren betebeharrak jarraiki, eraikina estetika eta ingurumen mailetan kontuan hartu beharreko baldintzetara moldatzeko. Aldi berean, ez da horregatik indarrean dagoen legeriak eta etorkizunean onartuko direnek xedatuko dituzten laguntza, dirulaguntza, salbuespen eta hobarietarako eskubidea ezertan murriztuko.

2. Bestalde, obligazio horren arabera, kasu bakoitzean katalogazioan egokituriko maila dela eta zehazturiko baldintza bereziei ere eutsi beharko diete jabeek, eta beharreko ekintzak eta jarduerak bideratu beharko dituzte halaber, baldintza horien alde.

1.15 Katalogoaren derrigorrezko eguneratzea.

1. Katalogoaren derrigorrezko eguneratzea dela eta, Plan Nagusia betikoz onartu edo, hala bada, Katalogoa azken aldiz onartu ondoren 4 urte igaro baino lehen eguneratu beharko da ezinbestez Katalogoa, arloan eskuduntza duten erakundeek katalogaturiko eraikinen gaineko babes maila eta neurriei harrera egin eta bermatu ahal izateko, bai eta babes mailak onarturiko zehaztapenen araberrako beharretara egokitzeko ere. Eguneratze prozesu hauetan, ondarearen katalogoen arloan legeak agindutakoari jarraiki, guztiz beteko dira legeriaren arabera ezinbestez egin beharreko urratsak, jendaurreko informazio tramiteak, alegazioen ebazpena, eta abar.

1.16 Indarrean dauden Arau eta Xedapenen lehentasuna aplikazioan.

1. Udal Katalogotik kanpo egonik ere aintzat hartu diren eraikin eta elementuen babes eta kautelazko neurriei begira, Udal Katalogoaren araudia baino lehenago aplikatuko dira une bakoitzean indarrean dauden arauak eta legezko xedapenak.

2. ARKITEKTURA ONDAREAREN BABESERAKO ARAUDI BEREZIA

2.1 Arkitektura Ondarearen babes mailak.

Bost babes maila, ondoren aurkezten direnak, zehaztu ditu Irungo Arkitektura Ondarearen Babeserako Katalogoak, eta bere Gakoa dagokio haietako bakoitzari. Hona hemen:

M - Monumentuen Babes Maila

Maila honetakoak dira Kultura Garrantzizkotzat harturiko eraikinak (KGO) edo halakotzat hartzeko tramitean daudenak, bai eta Eusko Jaurlaritzak edo Gipuzkoako Aldundiak, arloan administrazio eskudunak diren aldetik, hala katalogatutakoak. Egungo arau eta legeriaren pean gelditzen dira.

I - Kontserbazio Maila Osoa

Maila honek osorik babesten ditu eraikinak, arkitektura ezaugarriak, jatorrizko elementuak, eta okupaturiko espazioaren itxura eta hedadura zainaraziz. Neurriei dagokienez, monumentuen babesaren parekoa da maila hau. Oraindik Kultura Garrantziko Ondasuntzat hartuak ez diren arren, dituzten ezaugarriengatik, hau da, duten monumentu izaeragatik edo nortasun bereziagatik, edo arte eta historia mailako arraziengatik, Udalaren iritziz eta tokiko testuingurua kontuan hartuz, osorik kontserbatuak izatea merezi duten eraikin eta elementuen kasuetan bideratzen da, haien arkitektura ezaugarri guztiak zaintzearen.

E - Egituraren Kontserbazio Maila

Maila honek egitura baizik ez die eraikinei eutsarazten, erabilera berrietara egokitzeko hartan ere esku hartze jakin batzuk onartzen dituen arren. Nolanahi ere, guztiz errespetatu behar dira eraikinaren kanpoko egituraren osagaiak. Beren funtsezko egitura-ataletan eta/edo espazioaren banaketa eta konfigurazioan interes berezia ageri duten hiri eraikin edo elementuen kasuetan bideratzen da.

P - Kontserbazio Maila Partziala

Maila honek eraikinaren kanpoaldea babesten du batez ere, barrua husturik ere eutsi egin beharko bailitzaioke. Kasu horietaz gainera, eraikinaren elementu jakin bat izan daiteke, halaber, babes maila honen helburua. Dagokien Fitxaren arabera, arkitektura elementu interesgarriak, hala nola fatxadak, erremateak, estalkiak, ezkaratzak, atariak, eskailerak, patioak, balkoiak, galeria beiradunak, ageriko egitura-atalak edo barnealdeko dekorazio atalak, dituzten hiri eraikin edo elementuen kasuetan bideratzen da.

A - Ingurunearen Babes Maila

Maila honetara biltzen dira, alde batetik, babesteko fatxada baizik ez duten eraikinak. Kasu horretan, guztiz kontserbatu behar dira fatxadaren ezaugarriak, bai eta haren berreraikuntza onartuko litzatekeen kasuetan ere. Maila honetara biltzen dira, era berean, babeserako proiektu baten zuzeneko jomuga ez diren arren, aurreko mailetako eraikinen baten edo batzuen ondoan direlarik, babestu beharreko giro edo ingurune baten barruan gertatzen diren eraikinak. Kasu horretan, eraberritzerakoan, inguruko eraikinen zorua okupatzeko moduarekin, konposizio ezaugarriekin eta diseinu mailako soluzioekin bat datozen soluzio tipologikoak aurkeztu edo berenganatu behar dituzte eraikin hauek.

2.2 Kultura Garrantziko Ondasunen ingurunea.

Historia ondarearen babeserako legeriaren arabera Kultura Garrantziko Ondasuntzat aldarrikaturiko elementuen ingurunean dauden ondasun higiezinetakoa eskua hartzeak legeria horren betekizunen arabera bideratuko dira eta Eusko Jaurlaritzaren Sail arlo horretan eskudunaren baimen zehatza jaso behar du aurrez.

2.3 Katalogaturiko eraikinetan egin daitezkeen lan moten deskribapena

1. Zazpi lan mota dira guztira katalogaturiko eraikinetan egin ahal izango direnak: Kontserbazioa, Konponketa, Zaharberritzea, Birgaitze eta Erreforma, Berregituratzea, kontserbatu behar ez diren atalak zabaldua, Eraistea eta Oin Berriko Obra.

2. Kontserbazio lanak dira jabeen ohiko obligazioak betetzea helburu duten lanak, jabetzan duten eraikinaren apainketa, segurtasun eta higiene baldintzei dagokien orotan.

3. Konponketa lanak dira egoera txarrean dauden elementu eta instalazioak konpontzea helburu duten lanak, eta bereziki hartzen dira lan horien artean estalkia, zorrotanak, higienerako instalazioak eta antzekoak, bai eta elementuen mantentze material hutserako lanak, hala nola zoladuren konponketa, emokadura, pintura, harrien tratamendua, eta abar.

4. Zaharberritze lanak dira, material berriak bideratuta, eraikinaren alde edo atalen jatorrizko baldintzak berreskuratzea helburu duten lanak. Lan horietan obraren jatorrizko diseinu eta planteamenduak guztiz errespetatu eta segitu beharrak dira, ez baita prozesu honetan diseinu berrien ekarpenik onartzen.

Jatorrizko baldintzen berreskuratze edo birsortze prozesuan, egitura elementuak eta instalazioak konpondu edo ordezkatu beharko dira eraikinaren egonkortasuna eta

jardun egokia ziurtatuko badira, kontuan harturik betiere lanetan aintzat harturiko helburuen arabera premiak eta erabilerak.

Lan mota hauen artean hartu dira kontuan egitura elementuen sendotzea, irmotzea eta indartzea eta, behar izanez gero, zati batean ordezkatu ahal izango dira elementu horiek, baldin eta barne espazioa antolatzen duten arkitektura elementu nagusiei eusten bazaie.

5. Birgaitze eta erreforma lanak dira barne espazioaren bizigarritasun baldintzak hobetzeko edo banaketa berria antolatzeko bideratzen diren lanak, eta eraikinaren egitura ezaugarri nagusiei eutsi behar zaie horrelako kasu guztietan.

6. Birgaitze lan mota honen arabera, teilatupeko erabilerak egokitu edo ezarri ahal izango dira, Horiez gainera, aldatu ahal izango dira, halaber, fatxada ez diren eta babes partziala xedatu ez zaien barne patioak eta hutsarteak, ireki ahal izango dira sostengu-egituraren atalak ez diren barne patioak eta eskailera-zuloak, ez ordea forjatuak, eta okupatu ahal izango dira barne patioak, Plan Nagusiaren Ordenantzek gutxienezko tamainan onartzen dituztenak baino neurritz dezente txikiagoak edo murriztagoak direnean.

7. Berregituratze lanak dira eraikinaren barne espazioa egokitzeko eta aldatzeko lanak. Lan hauetan bada egitura elementuak zati batean eraisteko edo ordezkatzeko aukera, kanpoko fatxada edo fatxadak, haien erremateak eta babes partzialaren helburu izan litezkeen gainerako elementuak ukitu behar ez badira. Berregituratze lanen ondorioz aldatu ahal izango da eraikinaren bolumena, aldaketa hori Katalogazio Fitxan ageri diren irizpideen arabera bada.

8. Eraiste eta oin berriko lanak dira katalogazioaren arabera orubean eraikin berri bat jasotzeko behar diren lan guztiak, eta horretarako behar bezala desmuntatu egin behar da aurreko eraikina. Eraikin berriak onartuko dira eraikin bat baino gehiagoren ordezkatzearen emaitza gisa sor litezkeen orubeetan, prozesua Plan honen arauak jarraiki gauzatu bada.

2.4 Babes Mailaren arabera onartzen diren lanak.

Hona hemen babes maila hauetako bakoitzari begira onartuko diren lanak, araudian aintzat harturiko zehaztapenen arabera:

Monumentuen Babesa eta Kontserbazio Osoa (M / I)

- A) Kontserbazioa eta Konponketa
- B) Zaharberritzea

Kontserbazio Estrukturala (E)

- A) Kontserbazioa eta Konponketa
- B) Zaharberritzea
- C) Birgaitzea eta Erreforma

Kontserbazio Partziala (P)

- A) Kontserbazioa eta Konponketa
- B) Zaharberritzea
- C) Birgaitzea eta Erreforma
- D) Berregituratzea, kontserbatuko ez diren aldeak zabaltzeko aukeraz

Ingurumenaren Kontserbazioa (A)

- A) Kontserbazioa eta Konponketa
- B) Zaharberritzea
- C) Birgaitzea eta Erreforma
- D) Berregituratzea, kontserbatuko ez diren aldeak zabaltzeko aukeraz
- E) Eraistea eta Oin Berria

2.5 Babesturiko eraikinetako lanen baimen eta exekuziorako irizpide orokorrak

1. Historia ondarearen babeserako legeriaren arabera Kultura Garrantziko Ondasuntzat harturiko edo hartzeko tramitazioan dauden elementuetan eta haien inguruneetan esku hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Administrazio eskudunaren aldeko txostena.

2. Eraikin guztietan hartuko dira kontuan Katalogo Fitxetan aintzat harturiko zehaztapenak, hala Deskribapenaren atalean nola Araudiari dagokionean, eta gogoan edukiko dira halaber bigarren atal honetako Kontuan Hartzeko Irizpideak. Halatan, gidari izango dira zehaztapen eta irizpide horiek guztiak esku hartzerako proiektuak prestatzerakoan, udala txostenaren ezinbesteko erreferentzia izango diren aldetik.

3. Zentzu honetan, guztiz ulertuko da deskribaturiko elementuak babesaren xede diren aldetik hartuak direla kontuan, eta babestu izaera hori kontuan hartu beharra dagoela betiere gainerako erreferentzia guztietan: fatxadak, goratasunak, bolumetria, lursail edo eremu barruko egokitzea, sarbideak, estalki bereziak, elementu egonkorak, hutsarteak zehazteko formak, eraikin osagarriak, lursailen tratamendua, eta abar.

4. Kontserbazio Estrukturalaren (E) eta Kontserbazio Partzialaren (P) arabera babes maileri begira araudi honetan eskaini diren aukeren artetik, guztiz ulertu beharra dago ondare eraikia hobekiago bermatzen dela birgaitze eta erreforma prozesuaren bitartez

eta, beraz, ohiz kanpokotzat hartu beharra dago berregituratze prozesua, beharreko dokumentazioa aurkezturik arrazoitu beharko dena.

5. Kasu horietan, eraikinaren egiazko hondamen egoera, egitura elementuen balio eskasa, aintzat harturiko helburura moldatu edo egokitu ezina, eta osasun eta higiene mailako arazoak kontuan hartuko dituzten irizpideetan oinarrituko da berregituratzearen premiaren ebaluazioa.

6. Kontserbazio Partziala (P) xedatu den eraikinen kasuan, hur-hurreko aurri egoera aldarrikatu ezik ez da fatxaden guztizko edo zati bateko eraistea onartuko.

7. Irizpide hauen aplikazio zuzenari begira, ezinbestekoa izango da lizentzia eskatu aurretik kontsulta eskatzea, eta kontsulta horri erantzunez zehaztuko dituzte udal zerbitzu teknikoek eraikinean bideratu ahal izango diren lanen ezaugarriak, bai eta batzuek edo besteek izan ditzaketen eraginak ere.

8. Erreforma edo egokitzapen lanen bitartean, fidantza bidezko berme batez babestuko da eraikinaren atalen bat bere horretan mantentzeko edo aurreko egoerara bihurtzeko obligazioa. Esku hartzearen ezaugarrien eta tamainaren arabera zehaztuko da berme horren kopurua, egin beharrekoa betetzen ez bada Administrazioak arabera jokatzeko aukera izan dezan.

2.6 Eraikuntzan aplikatuko diren Ordenantzak

1. Plan Nagusiaren Ordenantzak hirialde bakoitzean xedaturikoaren arabera arautuko dira, printzipioz, Katalogo honetan eraikin babestutzat harturiko eraikinen eraikuntza eta erabilera erregimena, eta kontuan hartuko dira, beraz, araudi horretan aurreikusitako salbuespenak.

2. Hala eta guztiz ere, berregituratze, zaharberitze eta birgaitze lanetan, babestu beharreko elementuaren edo elementuen kasuan, ez da eraikuntzarako araudi orokorra bete behar izango aireztapen eta argizatze hutsarte, patio, igogailu, atari, eskailera, fatxadako irtengune, erlaitz eta teilatu-hegalen tamainari eta piezen gutxienerako neurriei dagokien guztian.

3. Halarik ere, berregituratu, zaharberitu edo birgaitu beharreko eraikinak etxebizitza bihurtu behar badira, etxebizitza horietan edo bizileku erabilera emango zaien aldeetan ezin bideratuko da aireztapen eta argizatze hutsarte, patio, igogailu, atari eta eskaileren gutxienerako parametroen eta piezen gutxienerako neurrien gaineko salbuespen hau.

4. Berregituratze kasuetan, barne fatxada aldatzen bada, guztiz errespetatuko da betiere kalifikazio planoetan eta ordenantzetan barneko lerroakadura gisa zehazturiko hondo gorena.

2.7 Baldintza estetiko bereziak Katalogoko eraikinei begira

Birgaitze, erreforma, kontserbatuko ez diren aldeak zabaltzeko aukera duten berregituratze, edo eraiste eta oin berrirako lanen helburu direlarik, ondoren adieraziko diren baldintza estetikoaren arabera landuko dira Katalogoan aintzat harturiko eraikinak, eta guztiz beteko dira baldintza hauek, eraikinak dauden hirialdeko Ordenantzen arabera legozkiekeenak alde bat utzirik.

1. Irtenguneak eta hegalkinak:

- Oro har, irtengune edo hegalkinen bitartez aplikatu beharreko Ordenantzaren arabera balioak ezin gaindituko badira ere, salbuespenak hartu ahal izango dira aintzat kontserbatu eta babestu beharreko erakinek, jatorrizko edo berezko ezaugarriak direla eta, haien beharra badu.

2. Markesinak:

- Oro har debekatzen da markesinen instalazioa, elementuari dagokion proiektu bereziak hala eskatzen duenean, eta zerbitzu arduradunek onartzen dutenean, izan ezik.

3. Fatxaden konposizioa:

- Eraikinaren berezko galeriez gainera, hutsarteen konposizio bertikalari eutsiko diote fatxadek, garai edo inguruneko eraikinen moldeko leihoak, balkoiak eta galeria beiradunak bideratuz.
- Birgaitze edo berregituratze kasuetan, behe oineko hutsarteen eta atal trinkoen modulazioa ere zehaztuko du eraikinerako eraikuntza edo lan proiektuak.
- Behe oineko lokaletan bideratu beharreko esku hartzeetan osorik hartuko da kontuan eraikinaren fatxada, eta haren jatorrizko diseinua berreskuratuko da lokalean, aldatu egin bada, edo kontserbatu egingo da, horrelakorik ez bada gertatu.
- Eraikinaren burualdeko errematea zehaztuko da beti, teilatu-hegal edo erlaitzen bitartez.

4. Estalkiak:

- Birgaitze edo berregituratze kasuetan, estalkiaren malda ez da jatorrizkoa baino pikoagoa izango. Arrazoi teknikoak direla bide, estalki berri bat bideratu behar delarik, Plan Nagusiaren araudiaren arabera zehaztuko da estalki berria, eraikina dagoen hirialdeko berezko tipologia, material eta diseinuaren arabera.

5. Fatxadako materialak:

- Harri naturalaz edo eraikuntzan erabiltzen diren emokadurez errematatuko dira fatxadak. Emokaduren bidetik jotzea erabakitzen delarik, lizentzia eskatzerakoan

gutziz zehaztu beharko dira, laginen bitartez, pintura lanetan bideratuko diren koloreak eta tonuak.

6. Zureria:

Debekatua da aluminio anodizatuaren eta beste material distiratsu batzuen erabilera, haien berezko koloreagatik. Debekatua da PVCz landuriko pertsianen erabilera.

7. Errotulu itsatsiak eta banderinak:

- Errotulu itsatsiak: Behe oinetan, molde klasikoko letra soltez itxuraturiko errotulu itsatsiak edo erakundeen anagrama baizik ez dira onartuko, metalez eta fatxadaren gainean zuzenean ezarriak. Plan Nagusiak haiei begira izaera orokorrez zehazturiko baldintzen arabekoak izango dira plakak.
- Debekatu egiten dira eraikinaren paramentuaren gainean zuzenean pintaturiko errotuluak. Goi solairuetan, debekatua da publizitate mota oro.
- Banderinak: Behe oinako fatxadaren planoan baizik ez dira mota honetako elementuak onartzen. Metalez egingo dira, espresuki debekatzen da haietan plastikoen erabilera eta ez dira argitsuak izango.

2.8 Erabilera baldintza orokorrak

Honako erabilera baldintza orokor hauek aplikatuko dira, izaera orokorrez, katalogaturiko eraikinetan, eta kultura garrantziko ondasun izaerakoak direla eta Monumentuen Babes Maila egokitu zaien eraikinak izango dira honetan salbuespen bakarrak.

1. Erabilera nagusiak

- Erabilera nagusiak dira eraikinari Hiri Antolamendurako Plan nagusiaren Kalifikazio xeherako planoetan, eta dagokion Ordenantzaren gakoaz, zehaztu zaizkion erabilerak. Plan Nagusi horren Hirigintza Arauen dokumentuko 4. Tituluan zehazten da erabilera nagusien garapena.

2. Erabilera bateragarriak

- Oro har, eraikinari dagokion Ordenantzaren arabeko Erabilera bateragarriak aplikatuko dira, nahiz beste erabilera batzuk ere aintzat har litezkeen, hala nola bizileku komunitarioa, bulegoak, hotela, biltokiak edo merkataritza.

3. Erabilera bat bateragarritzat jotzeak ez du haren ezarpenerako behar diren lanak modu automatikoan baimenduko direnik esan nahi.

2.9 Monumentuen Babeserako eta Babes Osorako Mailen gaineko Arau Bereziak.

1. Monumentuen Babeserako eta Babes Osorako Mailen barnean Kultura Garrantziko Ondasuntzat edo balio bereko elementutzat hartu edo gisa horretan katalogatu diren eraikinen, eta haien ingurune gisa aldarrikatu eta mugatu diren espazioen, kasuetan, indarrean dagoen legerian aintzat harturiko araudia eta dagokion aldarrikapenean zehazturiko baldintzak bideratu eta aplikatuko dira, eta ez da aldarrikaturiko ondasun higiezina edo haren zeinahi zati edo atal zuzeneko eragina dukeen barne nahiz kanpo lanik onartuko, eta ez da fatxada edo estalkietan inolako errotulu, seinale edo ikurrik ezarriko, administrazio eskudunak ez badu horretarako baimenik espresuki eman.

2. Monumentuen Babeserako eta Babes Osorako Maila egokituriko eraikinen Eraikuntza baldintzei dagokienez, hona hemen haietan berariaz bideratu eta aplikatu behar diren arauen osagai edo ordezeko bideratu ahal izango den araudia:

3. Lursailaren Baldintzei dagokienez, zatiezinak dira egungo lursailak.

4. Eraikuntzaren Kokalekuari, Eraikuntzaren lursailaren barneko Okupazioari eta Eraikuntzaren Goratasunari dagokienez, egungo eraikuntza arautu duten parametroak bideratu eta aplikatu beharko dira.

5. Baldintza Estetikoei dagokienez, eraikin hauetan bideratuko den esku hartze oro egongo da historia ondareko elementu honen gaineko tutela duten erakunde eta agintariak xede horri begira aintzat hartuko dituzten irizpideen menean eta, arau nagusi gisa, aurkakorik berariaz xedatzen ez den bitartean, jatorrizko eraikuntzaren baldintza estetikoak kontserbatu eta erreproduzitu beharko dira.

6. Baldintza Osagarri gisa xedatzen da eraikin hauei loturiko edo eraikin hauen lursailen barruko espazio libreak eta/edo eraiki gabeak ezin okupatuko direla eta ezin garatuko direla jatorrizko diseinuaren berreskuratze lanen arabera helburuetatik kanpora.

2.10 Babes Partzialerako Mailen gaineko Arau Bereziak.

1. Babes Partzialerako Maila egokituriko eraikinen Eraikuntza Baldintzei dagokienez, hona hemen haietan berariaz bideratu eta aplikatu behar den araudi berezia:

2. Lursailaren Baldintzei dagokienez, zatiezinak dira egungo lursailak.

3. Eraikuntzaren Kokalekuari, Eraikuntzaren lursailaren barneko Okupazioari eta Eraikuntzaren Goratasunari dagokienez, egungo eraikuntza arautu duten parametroak bideratu eta aplikatu beharko dira.

4. Baldintza Estetikoei dagokienez, eraikin hauetan aintzat hartuko den esku hartze oro bideratuko da jatorrizko eraikuntzan babestu beharreko alde edo atalen baldintza estetiko bereziei eusteari begira.

5. Baldintza Osagarri gisa xedatzen da eraikin hauei loturiko edo eraikin hauen lursailen barruko espazio libreak eta/edo eraiki gabeak ezin okupatuko direla eta ezin garatuko direla jatorrizko diseinuaren berreskuratze lanen arabera helburuetatik kanpora.

6. Alboko eraikinetan onarturik dauden lanek horretarako aukera emanaz gero, eraikin bi edo gehiago erantsi ahal izango dira, haietako bakoitzean baimenduriko lan mota errespetatuz, onartu zaien babes mailaren arabera eta fatxadetan banako izaera kontserbaturik.

2.11 Fatxadaren Kontserbazio Mailaren gaineko Arau Bereziak

1. Fatxadaren Kontserbazio Maila egokituriko eraikinen Eraikuntza Baldintzei dagokienez, hona hemen haietan berariaz bideratu eta aplikatu behar den araudi berezia:

2. Lursailen Baldintzei dagokienez, debekatua da lursailak zatitzea. Eraikinak ordezkatzeko eta oin berriko lanei ekitea onartuko diren kasuetan, debekatua da era berean lursailak zatitzea. Eraikinen barneko lanetan, finkak erantsi ahal izango dira alboko eraikinetan onartu diren lanek horretarako aukera eskaintzen badute, haietako bakoitzean baimenduriko lan mota errespetatuz, onartu zaien babes mailaren arabera eta fatxadetan banako izaera kontserbaturik.

3. Eraikuntzaren Kokalekuari dagokionez, bat etorriko da fatxadaren lerroa Plan Nagusiaren Kalifikazio Xeherako planoetan adierazitako kanpo lerroakadurarekin.

4. Lursailaren Okupazioari dagokionez, eraikina dagoen hirialdeari edo etxe-sailari dagokion Ordenantza bera aplikatuko da, ez ordea haren atzealdeko fatxadari eutsi behar bazaio. Eraikuntzaren gehieneko hondoa egungoa izango da, baldin eta atzealdeko fatxada kontserbatu behar bada. Atzealdeko fatxada ordezkatu behar bada, etxe-sailari dagokion hondoa bideratuko da, kalifikazio xeherako planoetan barne lerroakadura baten bitartez zehaztu ez bada.

5. Eraikuntzaren Goratasunari dagokionez, zabaltze lanak onartzen diren kasuetan betiere, etxe-sail eta kaleen bidezko eraikuntzaren erlaitz-lerroa bateratzea izango da bideratu eta aplikatu beharreko irizpidea, honako arau hauei jarraiki:

Alboko eraikinen bat katalogaturik badago eta Kontserbazio Osorako edo Partzialerako Mailaren batean aintzat hartua bada, eraikin horietan aurrez

dagoenera moldatu eta egokitu beharko du eraikuntza berroak bere erlaitz-lerroa, honako irizpide hauen arabera:

- Alboko eraikinak goratasun berekoak badira, bien erlaitzen goratasunari eutsiko dio eraikin berriak.
- Alboko eraikinak goratasun berekoak ez badira, edo malda kalean badaude, honako hau izango da eraikin berriaren erlaitzaren goratasuna: kale tarte horretan Kontserbazio Osorako edo Partzialerako Mailaren batean aintzat hartuak diren eraikinen edo, kalerik ez badago, halakotzat hartuak diren eraikinen, arteko gorena hartu eta, mehelinetako batekin berdindu ondoren, hirialde horretako Ordenantzaren arabera balioetatik hurbilen dagoena.
- Alboko eraikin katalogatuaren goratasuna hirialdeko Ordenantzaren arabera baina handiagoa bada, azkeneko hau bideratu eta aplikatuko da beti.
- Elkarren kontrako fatxaden aurrean dauden orubeen kasuan, aurreko puntuan adierazitako irizpidearen arabera zehaztuko da goratasuna, eta lursailaren erdi-ardatzetara goratzeko aukera izango du eraikin berriak.
- Kantoi orubeetan, erlaitzen goratasun handienari eutsi ahal izango zaio, goratasun txikiagoko kaleari gehienez 12 metroko luzera emanaz.
- Etxe-sail berean ordenantza maila desberdinak bideratu diren kasuetan, aurrealdetik kale berera ematen duen eraikin katalogatuari aplikaturiko arauak bideratuko dira eraikin berrian.

b) Alboko eraikinen artetik, Kontserbazio Osorako edo Partzialerako Mailaren batean aintzat hartua dena bakarria denean, alboko eraikinaren era egokituko du eraikin berriak bere erlaitza.

c) Erlaitzaren goratasuna zehazteko arauen bitartez ezin gehituko da solairuen kopurua, hazkunde hori Kontserbazio Osorako edo Partzialerako Mailaren batean aintzat hartua den eraikuntzaren goratasun handiagoaren ondorio ez bada.

d) Alboko eraikinen artean Kontserbazio Osorako edo Partzialerako Mailaren batean aintzat hartua den eraikinik ez badago, eraikina dagoen etxe-sailari dagokion Ordenantzaren arabera goratasuna hartuko da kontuan.

e) Egungoa izango da kasu guztietan eraikuntzaren gutxienezko goratasuna.

5. Baldintza Estetikoei dagokienez, eraikin hauetan aintzat hartuko den esku hartze oro bideratuko da jatorrizko eraikuntzan babestu beharreko fatxada edo fatxaden baldintza estetiko bereziei eusteari begira.

2.12 Ingurumenaren Babeserako Mailen gaineko Arau Bereziak.

1. Ingurumenaren Babeserako Maila egokituriko eraikinen Eraikuntza Baldintzei dagokionez, hona hemen haietan berariaz bideratu eta aplikatu behar den araudi berezia:
2. Lursailen Baldintzei dagokionez, debekatua da lursailak zatitzea, eta eraikinak ordezkatzeta eta oin berriko lanei ekitea onartuko diren kasuetan, debekatua da era berean lursailak zatitzea. Eraikinen barneko lanetan, finkak erantsi ahal izango dira alboko eraikinetan onartu diren lanek horretarako aukera eskaintzen badute, haietako bakoitzean baimenduriko lan mota errespetatuz, onartu zaien babes mailaren arabera eta fatxadetan banako izaera kontserbaturik.
3. Eraikuntzaren Kokalekuari dagokionez, bat etorriko da fatxadaren lerroa Plan Nagusiaren Kalifikazio Xeherako planoetan adierazitako kanpoko lerrokadurarekin.
4. Lursailaren Okupazioari dagokionez, eraikina edo orubea dagoen hirialdeari edo etxe-sailari dagokion Ordenantza bera aplikatuko da.
5. Eraikuntzaren Goratasunari dagokionez, zabaltze lanak onartzen diren kasuetan betiere, etxe-sail eta kaleen bidezko eraikuntzaren erlaitz-lerroa bateratzea izango da bideratu eta aplikatu beharreko irizpidea, honako arau hauei jarraiki:

Alboko eraikinen bat katalogaturik badago eta Kontserbazio Osorako edo Partzialerako edo Fatxadaren Kontserbaziorako Mailaren batean aintzat hartua bada, eraikin horietan aurrez dagoenera moldatu eta egokitu beharko du eraikuntza berroak bere erlaitz-lerroa, honako irizpide hauen arabera:

- Alboko eraikinak goratasun berekoak badira, bien erlaitzen goratasunari eutsiko dio eraikin berriak.
 - Alboko eraikinak goratasun berekoak ez badira, edo malda kalean badaude, honako hau izango da eraikin berriaren erlaitzaren goratasuna: kale tarte horretan Kontserbazio Osorako edo Partzialerako Mailaren batean aintzat hartuak diren eraikinen edo, kalerik ez badago, halakotzat hartuak diren eraikinen, arteko gorena hartu eta, mehelinetako batekin berdindu ondoren, hirialde horretako Ordenantzaren arabera balioetatik hurbilen dagoena.
 - Etxe-sail berean ordenantza maila desberdinak bideratu diren kasuetan, aurrealdetik kale berera ematen duen eraikin katalogatuari aplikaturiko arauak bideratuko dira eraikin berrian.
- b) Alboko eraikinen artetik, Kontserbazio Osorako edo Partzialerako Mailaren batean aintzat hartua dena bakarria denean, alboko eraikinarenera egokituko du eraikin berriak bere erlaitza.
- c) Erlaitzaren goratasuna zehazteko arauen bitartez ezin gehituko da solairuen kopurua, hazkunde hori Kontserbazio Osorako edo Partzialerako edo Fatxadaren Kontserbaziorako Mailaren batean aintzat hartua den eraikuntzaren goratasun handiagoaren ondorio ez bada.

d) Alboko eraikinen artean Kontserbazio Osorako edo Partzialerako edo Fatxadaren Kontserbaziorako Mailaren batean aintzat hartua den eraikinik ez badago, eraikina dagoen etxe-sailari dagokion Ordenantzaren arabera goratasuna hartuko da kontuan.

e) Egungoa izango da kasu guztietan eraikuntzaren gutxieneko goratasuna.

5. Baldintza Estetikoei dagokienez, eraikin hauetan aintzat hartuko den esku hartze oro bideratuko da jatorrizko eraikuntzan babestu beharreko fatxada edo fatxaden baldintza estetiko bereziei eusteari begira.

6. Solairuen goratasunari dagokionez, alboko eraikinen bat edo gehiago Kontserbazio Osorako edo Partzialerako edo Fatxadaren Kontserbaziorako Mailaren batean aintzat hartua bada, albokoenetara moldatuko ditu eraikin berriak bere zokaloak, forjatuak eta inpostak, aurreko epigrafean aurkeztu diren irizpideen arabera.

2.13 Garaje horniduren instalaziorako Arau Bereziak

1. Monumentuen Babeserako eta Babes Osorako Mailek arauturiko eraikinen kasuetan, debekatua da sestranean garajeak egokitzea, hala eraikinetan nola eraikuntzari loturiko lursailetan.

2. Babes Partzialerako eta Fatxadaren Babeserako Mailek arauturiko eraikinen kasuetan, ez dago ondasun higiezin horien zerbitzuko aparkaleku hornidurarik zertan bideratu, ez da hori derrigorrezkoa. Hala eta guztiz ere, hala nahi izanez gero garaje-aparkaleku baten instalaziorako baimena eskatu ahal izango litzateke, eraikinaren lursailen antolatzeke, eta eskaera horrek udal zerbitzuen berariazko txostena eta ondoko udal baimena beharko ditu ezinbestez. Nolanahi ere, proiektu horren arabera inolaz ere ezin aldatuko da eraikinaren kanpoaldeko konposizioa, haren sestra eta kokalekua kontuan harturik, batez ere behe oinaren iraunkortasun formalari dagozkion xehetasunetan, eta bereziki zainduko da, halaber, sarbideek kalearen jardunean eta irudian izango luketen eragina.

3. Ingurumenaren Babeserako Mailek araupeturiko eraikinen kasuetan, guztiz beteko da Plan Nagusiaren Araudiak ondasun higiezin horien zerbitzuko aparkaleku horniduren derrigortasunari buruz xedaturiko guztia. Hala eta guztiz ere, hornidura mota hori bideratu nahi izanez gero, txosten berezia eskatuko zaie udal zerbitzuei eta ahal neurrian murriztuko da eraikinaren kanpoaldeko konposizioaren gainean eta kalearen jardunean eta irudian izango luketen eragina, horixe baita ingurumenaren babesaren xede nagusia.

3. ARKITEKTURA ONDAREAREN BABESERAKO ARAUDI BEREZIA

3.1 Arkeologia ondarearen babeserako udal araudiaren izaera loteslea.

1. Ondoren zehaztuko diren arauak izaera loteslea dute udalerriko lurraldean, aplikatzerakoan araudi orokorrak eta une bakoitzean indarrean dagoen legeriak lehentasuna duten arren. Halatan, arau eta lege nagusi horren osagarritzat hartuko da udal araudia une bakoitzean aplikatu behar diren araudi, dekretu eta legeriaren kontra ez datorren guztian.

2. Arkeologia Ondarearen Katalogoko Fitxa bakoitzean, gaurgero hautemanak eta zehaztuak diren elementuen kasuetan gertatu den bezala, zantzuz eta oraindik guztiz zehaztu gabeko aztarna bidez azaldu diren elementuei buruz banan-banan eginiko zehaztapenek ere arau izaera izango dute, ahalik eta kontserbazio egoera hobereanean eutsarazteko momentuan.

3.2 Arkeologia Ondarearen Babes Mailak.

Irungo Arkeologia Ondarearen Babeserako Katalogoan zazpi kategoria tipologiko zehaztu dira, eta haiei beste hainbeste babes maila dagozkie zuzenean, beren Gakoekin. Horiez gainera, babeserako neurri berezi batzuk hartu ere egin dira aintzat, araudi berezi honen bukaeran ikusiko den bezala.

Z.- Z.- Oiasoko arkeologia eremuak eta Irungo Erdi Aroko Hirigunea

Horrenbestez mugatu da erromanizazioaren garaiko aztarna eta aztarnategi zehatzak azaldu diren eremua eta haren ingurune guztia, kontuan harturik hartan dagoela, era berean, hiriko Erdi Aroko hirigunea. Arkeologia Ondarearen Katalogoaren planoan adierazi dira, Oiasoko Arkeologia Eremuaz gainera (finkamendu erromatarra), Oiasoko arkeologia eremuaren Babes Eremua eta Irungo Erdi Aroko Hirigunea ere.

E.- Ermitak

Gaurgero desagertuak diren antzinako erlijio eraikin batzuk ustez egongo ziren eremu batekin lotu beharra dago maila hau.

F.- Gotorlekuak

Defentsarako eraikin zaharren aztarnak eta hondakinak ageri dituzten eremu batzuekin lotu beharra dago maila hau.

P.- Padurak

Maila hau Bidasoa ibaiaren itsasadarrean urek beren mendean hartzen dituzten padura zaharren eremu zabalera mugatzen da, sedimentu geruza horien artean

historia eta historiaurreko okupazioen aztarna eta aztarnategien ustezko presentzia guztiz berretsi ahal izango delakoan.

M.- Meatze erromatarrak

Maila honi dagozkio garai batean ustiatu ziren meatzeetan zulatu eta luzatu ziren tunelen hondakinak eta hartzen dituzten eremuak.

N.- Elur-zuloak

Maila honi dagozkio elurra goratasun erdiko mendietan biltzeko eta kontserbatzeko bideratu ziren eraikinak eta hartzen dituzten eremuak.

O.- Beste batzuk

Egun desagertu diren historia aztarnak ustez agertuko diren eremu bati dagokio maila hau.

3.3 Arkeologia elementu mota desberdinen kategorizazioa.

1. Halako babes maila egokitu izana alde bat utzirik, elementuak eta eremuak babestu beharreko elementu motaren arabera identifikatzeko aukera ere hartu dugu aintzat.

2. Hona hemen elementu horiek zehazki zein diren, Mota desberdinak kontuan hartu ondoren:

a) Oiassoko arkeologia eremuan, Hiriko Okupazio Maila Erromatarra "HOME", Portu Erromatarra "PE", Terman Erromatarrak "TE), eta Aztarnategi Erromatarrak "AE".

b) Ermiten epigrafean, "E" Ermitak.

c) Gotorlekuen eremuan, Gazteluak "GA", Gotorlekuak "GO", Etxe Gotortuak "EG", eta Dorreak "D".

d) Paduren eremuan, Neolitiko / Brontze Aroko Paleo-hondartza "PH" eta Zubi Erromatarra "Z"

e) Meatze Erromatarren eremuan, Meatze Erromatarrak "ME", eta Elur-zuloen eremuan, Elur-zuloak "EL"

f) Beste Batzuk eremuan, Ibai Errota "IE".

3. Babesari begira dagokien araudia zehazteaz gainera, identifikazio gakoekin batean aipatu eta adierazi dira elementu hauek guztiak zerrendan eta Katalogazio Fitxetan.

3.4 Arkeologia eremuetan bidera daitezkeen lan motak.

1. Kontserbazioa, Zaharberritzea eta Indusketa dira katalogaturiko arkeologia eremuetan bidera daitezkeen lan motak.
2. Kontserbazio lanak dira katalogaturiko eraikinak eta elementuak jatorrizko egoeratik ahalik eta hurbilen uzteko bideratzen diren lanak, hala haien aldaketa, eraistea edota desmuntatze partziala eragozteko nola segurtasun eta higiene baldintzei behar bezala eusteko.
3. Zaharberritze lanak dira, material zaharrak edo berriak bideratuta, katalogaturiko eraikinaren edo elementuaren alde edo atalen jatorrizko baldintzak berreskuratzeko lanak. Printzipioz, administrazio eskudunek baizik ezin dituzte zaharberritze lanak bideratu.
4. Jatorrizko baldintzen berreskuratze edo birsortze prozesuan, prozesu hori partziala izanagatik ere, egitura elementuak eta instalazioak konpondu edo ordezkatu beharko dira eraikinaren egonkortasuna, segurtasuna eta aintzat harturiko helburuarekiko egokitasuna.
5. Indusketa arkeologikoaren araberako lanak eta egitekoak dira arkeologiako profesionalen esku hartzeari dagozkionak, eta aztarna edo hondakinatarako bidea edo hondakin horiek sortu ziren jatorrizko lur mailan edo geruzan edukitzea eragozten duten elementu eta eremu mailen desmuntatzea dago horien artean. Indusketa arkeologikoaren araberako lana da, halaber, gune batean antzinako garaietako aztarna esanguratsuak ba ote dauden ikertzea.
6. Aldez aurreko arkeologia ikerketaz edo txostenaz hornitu beharreko Obrak dira hiriko hainbat esparrutan (planoetan aurrez adierazitako esparruak dira horiek) bideratu beharreko lanak, kontuan harturik haietan, egungo eraikinak eraitsi eta gero, hala behar badu, edo hirigintza lanei ekin aurretik, lur mugimenduak egin behar badira aldatu eta desitxuratu egin daitezkeela beheko mailetan eta/edo lurpean ageri litezkeen depositu mailak.
7. Aldez aurreko arkeologia ikerketaz hornitu beharreko Obren kasuan, haiei ekin aurretik ezinbestekoa izango da lurren mugimenduari loturiko arkeologia proiektua zehaztea. Proiektu hori Gipuzkoako Aldundiaren Kultura Departamentuaren aurrean aurkeztu beharra dago, eskaturiko lan lizentziarekin lotuak diren oinarrizko proiektuak igorritz.

8. Aldez aurreko arkeologia ikerketaz hornitu beharreko Obren kasuan, haiei ekin aurretik ezinbestez eman behar zaio Gipuzkoako Aldundiaren Kultura Departamentuari lurren mugimendua eskatzen duten obretarako eskaturiko lizentzien berri. Halatan, modu horretan jokatzeari bidezkoztat joz gero, Departamentu horrek berak zehaztu beharko du, lanen promotorearekin batean, obren jarraipen arkeologikorako plana.

3.5 Babes Mailaren arabera onartzen diren lanak.

Printzipioz, honako lan mota hauek onartuko dira, elementu bakoitzari dagokion babes mailaren edo lanak bideratu nahi diren eremuaren kokalekuaren arabera.

Oiassoko arkeologia eremuak eta Irungo Erdi Aroko Hirigunea

- A) Kontserbazioa
- B) Zaharberritzea
- c) Indusketa
- D) Aldez aurreko arkeologia ikerketaz hornitu beharreko Obrak

Ermitak

- c) Indusketa

Gotorlekuak

- A) Kontserbazioa
- B) Zaharberritzea
- c) Indusketa

Padura zaharren eremua

- c) Indusketa
- D) Aldez aurreko arkeologia ikerketaz hornitu beharreko Obrak

Meatze erromatarrak

- A) Kontserbazioa
- B) Zaharberritzea

Elur-zuloak

- A) Kontserbazioa
- B) Zaharberritzea

Beste batzuk

- c) Indusketa
- D) Aldez aurreko arkeologia ikerketaz hornitu beharreko Obrak

3.6 Arkeologia eremuetako lanen baimen eta exekuziorako irizpide orokorrak

1. Irungo udalerrian arkeologia ondarearekin loturiko aurkikundeak egin diren eremuak, edo miaketak eta/edo indusketak dagoeneko bideratu diren guneak, edo eginiko edo egiten ari diren ikerketen arabera arkeologia aztarnen presentzia ustezkoa baino areagokoa den aldeak, modu eraginkorrean babestearren, ezinbestekoa da, izaera orokorrez, honako arau hauek betetzea.

2. Nolanahi ere, dagoeneko aldarrikaturik edota aldarrikatze bidean dauden arkeologia eremuetan eta haien inguruneetan historia eta arkeologia ondarearen babeserako legeriaren arabera esku hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Administrazio eskudunaren aldeko txostena.

3. Eremu horietan ondarearen kontserbazio eta babeserako arauak aplikatu behar dira, eta haietan arkeologia ikerketarako prozedura zorrotzak bideratu behar dira, zeinahi esku hartzeren aurretik.

4. Araudi honetan babes maila desberdinei begira eskaintzen dituen aukeren artetik, guztiz ulertu beharko da ondarearen aztarna, aurri eta hondakinen babesa kontserbazioaren bitartez bermatzen dela batez ere eta, beraz, zaharberritze lanak zaharberritze plan behar bezala onartu baten arabera hartu behar dira kontuan. Halatan, ekimen pribatuek ezin ekingo diete lan mota hauei beren kontura.

Hala behar balu, aztarnen eta aurrien munta, haien egiazko hondatze maila, egungo egoeran kontserbatu ezina edo kultura arloko edo ondarearen kontserbazioarekin loturiko helburuetara egokitu beharra eta, jakina, osasun eta higiene mailako arrazoiak gogoan eduki dituzten irizpideetan oinarriturik neurtuko da betiere zaharberritze lanen premia.

6. Aztarnak, aurriak edo hondakinak agerian dauden eremu guztietan hartuko dira oztoporik gabeko sarbidea eragotziko duten neurriak, eta eraiste edo erortze arriskuan dauden alde eta atalen inguruan beharrezkotzat joko diren hesi egiturak hedatuko dira. Obligazio horretara behartuak dira, printzipioz, eremu edo elementu zehatzaren jabeak baina, obligazio horri arretarik ez bazaio jartzen edo ez bada betetzen, ordezkoko izaeraz jardun ahal izango du herri administrazioak, eta jabetzak ezin uko egingo dio aukera horri, ez eta babeserako paraturiko instalazioa ondoren aldaratu ere.

7. Gainera, udal mailan xedaturikoa alde batera utzirik, babes bereziaren xedetzat hartuko dira modu automatikoan katalogoetan edo izaera bertsuko dokumentuetan ageri diren eremuak eta elementuak, baldin eta erakunde eskudunak edo eskudunek

zentzu horretan, historia ondarearen babesari begira indarrean dagoen legeriari jarraiki, halako erabakiren bat hartu badu/dute.

3.7 Derrigorrezko prebentziorako neurriak arkeologia babesari begira mugaturiko eremuetan.

1. Prebentzio mailan derrigorrez hartu beharreko neurriaren arabera, aztarna paleontologikoak, arkeologikoak edo historia eta kultura ondareko elementuak dauden edo ustez gorde daitezkeen, edo Katalogo Fitxetan zehazki deskribaturiko elementuak ageri diren eremuen kasu guztietan, arkeologia babeserako eremuen lurpean eragina izan dezaketen lanetarako zeinahi eskaeraren aurrean, ezinbestekoa izango da lehen-lehenik, deusetan hasi aurretik, Administrazio eskudunari proiektuaren berri ematea eta Administrazio eskudunak ondoren historia ondarearen babeserako legeriaren araberrako txostena prestatzea.

2. Txosten horren arabera prestatuko dira esku hartze arkeologikorako proiektua eta haren araberrako indusketa arkeologikoa, eraginiko eremua osorik ikertuko duena.

3. Obligazio hauek guztiak obrarako udal lizentzia eman baino lehenagokoak dira inolaz ere. Historia ondarearen arloko erakunde eskudunak adostasuna adierazi eta gero eman ahal izango da hirigintza lanetarako lizentzia, aintzat hartu diren zaharberritze lanei eta, hala behar badu, indusketa arkeologikoari ganoraz ekin ahal izateko.

3.8 Jarduerarako neurriak aztarnak aurkitu diren kasuetan.

1. Baldin eta, Katalogo honetan adierazitakoetan bezala oraindik hartara bildu ez diren eremuetan, arkeologia ikuspegitik garrantzia izan lezaketen aztarnen zantzu aski agertzen bada, arloan indarrean dagoen legeriak adierazi bezala jokatu da, eta berehala jakinaraziko zaio administrazio eskudunari aurkikundearen berri, aztarnen izaera ebaluatu eta, historia ondarearen babeserako legeriaren arabera, beharreko neurriak har ditzan.

2. Historia ondarearen arloko administrazio eskudunak bideratuko du beti eginiko aurkikundearen balioaren ebaluazioa, eta honek berak hartuko ditu, ebaluazio horretarako prestatuko diren txostenen arabera, beharreko neurriak, indusketa lanen tamainaren eta aztarnen garrantziaren arabera. Kasu horietan, premiazko tramiteen bitartez bideratuko da indusketa arkeologikorako baimena eta indarrean dagoen legeriak aurreikusitako epeetan hasiko dira indusketa lanak.

3. Indarrean dagoen legeriak aurreikusitakoak besterik ez badio, premiazko indusketa lanen ondoren prestatuko den Txostenean xedatu beharko da indusketa lanen

jarraipena, eta zehaztu ere egingo da hartarako epe gorena. Guztiz arrazoitu beharko da erabaki hori, aurkituriko hondakinen garrantzia azpimarraturik eta lizentziaren arabera lanen ondoko gauzatzea guztiz ziurtaturik eta, hala behar badu, "in situ" edo bertan kontserbatu beharreko aztarnak badirela adierazirik.

4. Epe horren ondoren, obretarako lizentzia eskatu ahal izango da eta, aurrez eskatua bazen, ekin ahal zango zaie arauko tramitaziorako epeei, aztarna arkeologiko edo paleontologikoen zantzurik ez dagoelako edo hauteman diren aztarnen garrantzia hutsa delako, obretarako lizentzia ematea edo ez ematea bidezkoa den ala ez.

5. Historia ondarearen arloko administrazio eskudunari dagokio eginiko aurkikundeen balioa ebaluatzea eta, aurreko ahapaldietan aipaturiko txostenaren edukiaren kontuan harturik, txosten horretan zehazturiko epeak luzatu ahal izango ditu, baldin eta indusketa lanen tamaina edo aztarnen garrantzia direla eta hala jokatzeko komenigarria dela erabakitzen bada.

6. Arkeologia hondakinak in situ kontserbatzeko premia eta, beraz, kontserbatu beharra xedatzen bada, beharrezkoa da aurrez hondakin horiek dauden tokian kontserba daitezkeen aztertzea eta erabakitzea. Beharrezkoa izango da, horretarako, lizentzia eskatu zen proiektua aldatzea, hondakin horien egitura eraiki berrietan txertatzeko aukera aztertzeko, aintzat hartuko den arkitektura soluzioak hondakinen izaera honda ez dezan.

7. Aurkituriko aztarnen garrantzi handia dela eta, hondakinak in situ eta kanpoko afekziorik gabe kontserbatu, hau da, aurreikusiriko obra gauzatzeko aukerarik gabe, behar badira, zehatz-mehatz adierazi beharko da hondakinak, monumentuaren balioa eta horrenbestez sortuko den espazioaren kalitatea eta funtzionaltasuna agerian utziko dituen hirigintza soluzioaren bitartez, estali behar diren edo espazio zabal irekietan egokitu behar diren.

3.9 Arau Bereziak Oiassoko arkeologia eremuko Mailari begira.

1. Oiassoko Arkeologia Eremuan eta Oiassoko arkeologia eremuaren Babes Eremuan eta Irungo Erdi Aroko Hirigunean (haien mugak zehaztu dira Katalogo honen planoetan), Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedaturikoa beteko da. Honako hau dio hitzez hitz lege horrek: "Arkeologi aztarnak daudela uste deneko alde, orube edo etxeetan, jabeak edo egin nahi diren lanen sustatzaileak orube edo etxearen arkeologi aldetikako balioari eta lanen egitasmoan izan dezakeen eraginari buruzko azterlan egin beharko du". Azterketa hori bururatu eta gero, Foru Aldundiak zehaztuko du arkeologia proiektua behar den ala ez, eta hori guztia kontuan hartuta emango du obretarako alde aurreko lizentzia.

2. Oinarrizko neurria da eremu bietan aintzat harturiko zeinahi lur mugimenduren kasuan arkeologi proiektu bat bideratzea. Proiektu hori Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren aurrean tramitatu behar da, erreferentziazko eremu bakoitzeko obretarako eskatu beharreko lizentziekin batera oinarrizko proiektu horiek ere helaraziz.

3.10 Arau Bereziak Paduren eremuko Mailari begira.

1. Zera da Paduren Arkeologia Eremuan (haren mugak zehaztu dira Katalogo honen planoetan) bideratu beharreko oinarrizko babes neurria, Aldundiko Kultura Departamentuari lur mugimenduak aintzat hartu beharreko lanetarako lizentzia eskaeren berri ematea. Halatan, hala jokatzeari bidezkoztat joz gero, Departamentu horrek zehaztu beharko du, lanen promotorearen adostasunaz, obren arkeologia jarraipenerako plana.

3.11 Arau Bereziak Ermiten eremuetako Mailari begira.

1. Antzinako garaietan ermitak egon ziren Arkeologia Eremuetan, lur mugimenduen jarraipen arkeologikoa bideratuko da egun desagerturik dauden erlijio eraikin zahar horien eremuetan. Helburu horri begira, gune horietan lur mugimenduak aintzat hartu diren lanei begira eginiko lizentzia eskaera guztien berri emango zaio Aldundiko Kultura Departamentuari.

3.12 Arau Bereziak Meatze Erromatarren Mailari begira.

1. Meatze Erromatarren Arkeologia Eremuetan, meazuloen aho edo sarreretan edo lurpeko galerietan eta egun gorderik eta itsuturik egon litezkeen meza tarteetan bidera litezkeen jardueren jarraipen arkeologikoa egingo da. Horretarako, beharreko baimenak beharko dira eskatu meatzeen sarreretan edo galerietan aintzat hartu diren lur mugimenduekin loturiko lanei begira.

2. Oro har, guztiz eutsiko zaio eremu horietan egungo egoerari, eta gomendatu ere egiten dira eremu horien hondamena eragotziko duten birsortze edo kontserbazio ekintzak, ondasunen balioa agerian utziko duten eta haien gozamen publikoa bideratu duten sustapen neurriekin batean.

3.13 Arau Bereziak Gotorlekuen Mailari begira.

1. Gotorlekuen Arkeologia Eremuetan, egun oraindik ikus daitezkeen hondakinetan eta haietatik 100 m-ko erradioan hedatzen den inguruneetan bidera litezkeen jardueren jarraipen arkeologikoa bururatuko da. Horretarako, beharreko baimenak eskatu beharko dira eraikinak, lur mugimenduak eta aztarnak berak ere uki litzaketan lanei begira.

2. Oro har, guztiz eutsiko zaio eremu horietan egungo egoerari, eta gomendatu ere egiten dira eremu horien hondamena eragotziko duten birsortze edo kontserbazio ekintzak, ondasunen balioa agerian utziko duten eta haien gozamen publikoa bideratu duten sustapen neurriekin batean.

3.14 Arau Bereziak Elur-zuloen Mailari begira.

1. Elur-zuloen Arkeologia Eremuetan ezin bideratuko da inolako esku hartzerik, ez bada Udalaren edo arloko Administrazio eskudunen baten aldetik. Ezin aldatuko da eremu horietako paisaia, gutxienez 50 m-ko erradio batean. Hala eta guztiz ere, guztiz gomendatzen da administrazio publikoen aldetik, ondasunen balioa agerian utziko duten eta haien gozamen publikoa bideratu duten sustapen neurriekin batean, eremu horien hondamena eragotziko duten birsortze edo kontserbazio ekintzak bideratzea.

3.15 Arau Bereziak Beste Batzuk Mailari begira.

1. Beste Batzuk izenaz kalifikaturiko eremua ustezko arkeologia eremutzat hartu beharra dago inolaz ere, eta Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedaturikoa beteko da horrenbestez hartan. Halatan, orube edo etxearen arkeologi aldetikako balioari eta lanen egitasmoan izan dezakeen eraginari buruzko azterlana egin beharko du jabeak edo egin nahi diren lanen sustatzaileak. Azterketa hori bururatu eta gero, Foru Aldundiak zehaztuko du arkeologia proiektua behar den ala ez, eta hori guztia kontuan hartuta emango du obretarako aldez aurreko lizentzia.

ONDARE ARKITEKTONIKOAREN KATALOGOAREN FITXAK

KATALOGO ARKITEKTONIKOAREN FITXEN AURKIBIDEA**EM.- Monumento eraikin eta elementuak**

- EM1 Junkaleko Ama Birjina
- EM2 Udaletxea
- EM3 Arbelaitz
- EM4 Sortzez Garbearen Ama Birjina
- EM5 Guardia Gorputza
- EM6 Ama Xantalen/Santa Elena
- EM7 Ama Xantalen/Santa Elena Iturria
- EM8 Urdanibia Jauregia, Errota eta Burdinola
- EM9 Beraun
- EM10 Martindozenea
- EM11 Arantzate
- EM12 Santiago Bidearen Trazatua

R.- Hiriko eraikin eta elementu garrantzitsuak

- R1 Aduanako Eraikina
- R2 San Gabriel eta Santa Gema
- R3 Kioskoa Zabaltza Plaza/Plaza del Ensanche
- R4 Junkal Eskolak
- R5 San Martzial
- R6 Larramendiarena Finka
- R7 Colón Kasinoa
- R8 Jainkoaren Zerbitzarien Komentua
- R9 Ikust Alaia Etxea
- R10 Pikoketa Karrika 11 Etxea
- R11 Pikoketa Karrika 13 Etxea
- R12 Udal Ospitale Zaharra eta Mirarietako Kapera
- R13 Kuartel Zaharra
- R14 Junkaleko Ama Birjina Etxebizitza Multzoa
- R15 San Martzial 1 Eraikina
- R16 Etxebizitza Eraikinak Jenaro Etxeandia Plazan
- R17 Plizia Comisaría Zabaltza Plaza/Plaza Ensanche
- R18 Eraikina Gipuzkoa Hiribidea, 4, "Normandie Eraikina"
- R19 Eraikina Colón Ibilbideko 36an
- R20 Lehengo Banco Popularren Eraikina Colon Ibilbideko, 58an
- R21 Eraikina Colon Ibilbideko 8, 10, 12an
- R22 Eraikina Iparralde Hiribideko 3an
- R23 Inmigrazio Zentro Zaharra
- R24 Etxebizitzak Francisco de Gainza Karrika 7, 9, 11, 13
- R25 Etxea Policarpo Baltzola Kaleko 3an
- R26 Etxea Hendaia Kalea, 8, "Ducoureaux Etxea"
- R27 Etxea Policarpo Baltzola Karrika, 15, "Maria Luisa Etxea"
- R28 Etxea Gudari Kalea, 14an
- R29 Etxea Gudari Kalea, 2an, "Carmen Etxea"

- R30 Iru-Bide Etxea
- R31 Montano Etxea
- R32 Foru Karrika 5
- R33 Legia Karrika 4
- R34 Hondarribia Kalea 39-41
- R35 Ramuntxo Trinketa
- R36 Iparralde Hiribidea 14
- R37 "Pío Baroja" Irakaskuntza Ertaineko Institutua
- R38 "Hermanos Iturrino" Anbulatorioa
- R39 Iturria Karrika Nagusian
- R40 Etxea Karrika Nagusia 9
- R41 Etxea Karrika Nagusia 14
- R42 Etxea Kontrakalea 16
- R43 Etxea Karrika Nagusia 8
- R44 Etxea Karrika Nagusia 19
- R45 Etxea Larretxipi Karrika 4
- R46 "Espilla" Etxea Larretxipi Karrika 24
- R47 Etxea Eskoleta Karrika 5
- R48 Etxea San Martzial Karrika 14
- R49 Tximinia "Compañía Arrendataria de Fósforos"
- R50 Palmerako Etxeak
- R51 Etxea Eguzkitzaldea 8
- R52 Eraikina Iparralde Hiribideko 35-37an. Jorge Oteiza
- R53 Iturria Jesús Kanean
- R54 San Juan Harri
- R55 Mugako Topoaren Zubia
- R56 Burdinbidearen Zubia Mugan
- R57 Santiagoko Oinezkoentzako Zubia
- R58 Petril de Urdanibia Plaza
- R59 Artiako Ermita
- R60 San Antón Ermita
- R61 Herreria / Benta Berria / Perratzailenea
- R62 San Migel
- R63 Matadero

A.- Nekazaritza Eraikuntzak

- A1 Aldabe
- A2 Larrazuri
- A3 Laskoain Berri
- A4 Alundarbelaitz
- A5 Gomizenea
- A6 Alatrista
- A7 Alzulegarre
- A8 Eizagirre
- A9 Iparragirre
- A10 Larreaundi
- A11 Lizardi
- A12 Belbio

A13	Bordatxuri
A14	Burutaran
A15	Legia
A16	Oiartzabal
A17	Ibarrola
A18	Aranburu
A19	Gorroaga
A20	Igiñiz
A21	Zamora
A22	Zabaleta
A23	Aranibar Zahar
A24	Mokozorrotz
A25	Olakineta
A26	Enparan
A27	Txumarraga
A28	Alzubide
A29	Altamira
A30	Tonpes
A31	Beltranenea
A32	Makatzondo
A33	Tximista
A34	Arbelaiztxipi
A35	Altzolaran
A36	Pedronea
A37	Labekoetxea

C.- Burniola-Erota Multzoak

C1	Alzubide
C2	Arantzate
C3	Endara
C4	Ibarrola
C5	Olaberría
C6	Antoju
C7	Aranburu
C8	Urunea
C9	Errotaberria/Santa Elena
C10	Ugalde
C11	Irugurutzeta
C12	San Nartziso
C13	Olakineta

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

EM1

Elementua

JUNKALEKO AMA BIRJINA

Elementu-mota

Eliza

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1.508-1.606

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Plazoleta del Junkal, n°1

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Santiago bidean kokatuta dago, saloi-planta dauka, hiru nabe eta presbiterio poligonalarekin. Abside eta koroko bobedak harlanduzkoak dira, baina nabekoak XX. mende hasieran hormigoi armatuagatik ordezkatu ziren. Dorrea, trinkoa, goiburuan kokatzen da. Goiko partean kanpaiak eta erlojua daude. Kanpo aldeko fatxadak hareharri landukoak dira. 1508an hasi zen eraikitzen eta 1606 arte ez zen amaitu. Lurraren sendotasun eskasagatik piloteen gainean eraiki zen. Obrek hainbeste irautean elizak estilo desberdinak hartu zituen: gotiko garaiaren azken aldiko berezko ezaugarriekin batera euskal gotikoaren beste ezaugarri batzuk ere ageri ditu. Portada errenazimendu estilokoa da eta aldare nagusiko erretaula, barrokoa.

Ezaugarri historikoak

1508 - 1606

Maisu harginak: Domingo de Estala, Martin de Gorostiaga, Domingo de Legarra

Eliza eraiki zen

XVII. mendea

Portada eraiki zen

1620

Sakristia eraiki zen

1661

Teilatu zaharra kendu egin zen, korokoa eta absidekoa bakarrik utziz.

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera ona. Nabeetako bobedak hormigoizko egiturez ordezkatu zituzte XX. mende hasieran.

ERREGULAZIOA

Babesa

Monumentu Mailako Babesa

Iruzkina

- Babes maila, Euskadiko Kultur Ondarearen 7/1990 Legea aplikatu ondoren sortzen dena da, eraikina "Ondasun Kultural Kalifikatu" gisa katalogatu delako. Ondasunaren babes esparruan eraikina eta bere ingurua sartzen da (240/2004 dekretua). (2004-12-15 EHAO).
- Nazional Mailako Monumentu Historiko Artistiko kalifikatua (1904. dekretua (1973ko ekainaren 5eko EAO) eta uztailaren 17ko 265/1984 dekretua).
- Madrilgo Kultura Ministerioaren Interes Historiko Artistikoko Ondare Arkitektonikoaren Inbentarioan katalogatua 1979an.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamenduaren "Gipuzkoako Ondare Historiko Artistiko Higiezinaren Inbentarioaren katalogatua, 1988an.
- Erretaula Nagusia Ondasun Kultural Kalifikatu gisa katalogatua, abenduaren 19ko 273/2000 Dekretuko ebazpenaren arabera.
- Elizaren inguruan aurkitutako erromatar garaiko aztarnategia "Monumentu/Multzo Monumental deklaratzeko proposatu den zonalde arkeologiko" deklaratu izan dadin proposatu du Euskadiko Elkarte Autonomoak.
- Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezian sartutako elementua.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.
- Informazioa: www.irun.org

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

EM2

Elementua

UDALETXEA

Elementu-mota

Udaletxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1756-1763

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea

5.3.11

Kokapena

San Juan Harria Plaza, 1



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Irungo Udaletxea, Gipuzkoako hainbat udaletxe bezala, XVIII. mendekoa da eta estilo barrokoan eraikita dago, garai hartan Europan zabaldua zegoen joera artistikoari jarraituz. 1756an hasi ziren eraikitzen, Fernando VIa errege zela, eta 1763an inauguratu zen, Karlos IIIa errege zela. Felipe Crame izan zen arkitektoa, Donostiako plazako ingeniari komandantea.

Planta laukizuzenekoa da eta hareharri landuan egina dago; puntu erdiko 5 arkudun arkupe bat du fatxada nagusian. Lehen solairuan balkoi luze bat dauka, alderik alde doana, hareharrizko mentsulen gainean burdinazko karelaekin. Kuxindura-aparailua behe solairuan ageri da, baita fatxadako altuera osoan izkinetako zintak ere. Lehen solairua edo solairu nobleak laukizuzeneko 5 bao ditu, azpadurarekin, frontoi trianguluarra eta jarroiak tinpanoetan, denak hareharrizkoak. Solairu hau balaustrada batez burututa dago, armarrria eta bi kanpaiak dituelarik, biak ezpatainan kokatuta. Eraikinaren estalkian laukizuzeneko gorputza dago, bigarren solairua osatzen duena, baita barnealdea argiztatzeko putzua ere.

Ezaugarri historikoak

1756 - 1763 Felipe Crame (ingeniarria)

Ribera eta Irigoien Etxea eraitsi zen, eraikitzeko. Lehenengo harria 1757ko abuztuaren 27an jarri zen.

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera ona.

ERREGULAZIOA

Babesa

Monumentu Mailako Babesa

Iruzkina

- Proposamena badu babestua izateko Euskadiko Kultur Ondarearen 7/1990 Legearen bitartez (Monumentu Kalifikatuak eta Inbentariatuak).
- Madrileko Kultura Ministerioaren Interes Historiko-Artistikoko Ondare Arkitektonikoaren Inbentarioan katalogatua 1979an.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamenduaren Gipuzkoako Ondare Historiko Artistiko Higiezinaren Inbentarioan katalogatua, 1988an.
- Udaletxea Monumentu/Multzo Monumental deklaratzeko proposatu den zonalde arkeologiko" deklaratu izan dadin proposatu du Euskadiko Elkarte Autonomoak

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

EM3

Elementua

ARBELAITZ

Elementu-mota

Jauregia

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

XV. mendea

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea**Kokapena**

Eliza Karrika / Calle Iglesia, 8

DESKRIBAPENA**Deskribapena**

Arbelaitz leinuarena izan zen oinetxe hau. XV. mende hasieran eraiki zen eta bere historian zehar aldaketa handiak egin zaizkio. 1585ean, errege galtzadara begira zegoen aldea fatxada nagusi bilakatu zen. Geroago ere garrantzi handiko aldaketak eduki zituen. Horietako azkena, 1936ko sutearen ondoren egin zen, kanpoaldeko hormak bakarrik geratu baitziren zutik, eta hortik datorkio egungo itxura. Kanpoaldeko hormak harlanduzkoak dira. Portada barrokoa da eta ezkaratza interesgarria da.

Ezaugarri historikoak**XV. mendea**

Eraikuntzaren hasiera

1585

Dorrea birreraiki eta fatxada noblea eraldatu zen

1750

M^a Teresa de Murgia y Arbelaiz andreak erabaki zuen Errege Galtzadara ematen zuen fatxada fatxada nagusi bilakatzea, armarría eta kateak bertan jarriz.

1766

Atzealdeari egindako eranskina, denbora luzez amaitu gabe egon zen.

XIX. hasiera

Jose Joaquin de Olazabal y Olasok atzealdeko fatxada eraldatu egin zuen, partak eta emokadurak aplikatuz, eta gailurreria batez amaitu zuen, XIII. mendeko jauregi veneziar baten itxura emanez.

1933

Ramon de Olazabalek amaitu zuen Eliza karrikara ematen zuen fatxada eta laugarren fatxada birreraiki zuen, exenttu geratu zelarik Nafarroa hiribidea irekin ondoren.

Gauregungo egoera

Etxebizitzen eraikina. Jatorrizko gatxadaren zatia kontserbazio egoera onean. Eraikinaren gainerakoa baldintza normaletan aurkitzen da.

ERREGULAZIOA**Babesa**

Monumentu Mailako Babesa

Iruzkina

- Babes maila, Euskadiko Kultur Ondarearen 7/1990 Legea aplikatu ondoren sortzen dena da, eraikina "Ondasun Kultural Kalifikatu" gisa katalogatu delako.
- Nazional Mailako Monumentu Historiko Artistiko kalifikatua (1964ko otsailaren 29ko EAO).
- Madrilgo Kultura Ministerioaren Interes Historiko Artistikoko Ondare Arkitektonikoaren Inbentarioan katalogatua, 1979an.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamenduaren Gipuzkoako Ondare Historiko Artistiko Higiezinaren Inbentarioan katalogatua, 1988an. - Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezian sartuta.

Bibliografia

- Txingudiko Inguru Fisikoaren Ikerketa. Arantzadi. 1983
- Informazioa: www.irun.org
- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

EM4

Elementua

ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA

Elementu-mota

Ospitalea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1644-1649

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Urdanibia Plaza, 5

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Antso Urdanibia Topaldak agindu zuen berreraikitzea, testamentuko klausulak zioenez, Junkaleko eliza ondoan egon zen erromesen ospitalea. 1644 eta 1649 bitartean eraiki zen. Planta laukizuzeneko eraikina da, hiru altuerakoa eta lau isurkiko estalkiarekin. Egun, izkinetako harlanduzko zintak agerian dauzka, baita solairuetako baoak eratzen dituzten harlanduzko zintak ere. Fatxadaren gainerakoak zuriz margotutako emokadura dauka. Atzealdeko fatxadak gainerakoaren itxura desberdina du, izan ere atxikitako puntu Erdiko bi arku dauzka, eskuin aldean kokatuta, behe solairuan bakarrik. Goiko solairuetan, arku hirukoitza zabaltzen da, bi kasuetan harlanduzko amaierarekin eta moldurazko leiho-barrenekin. Ospitalearen fatxada nagusiak Urdanibia plaza aldera ematen du.

Ezaugarri historikoak

1644-1649 Pedro de Aranburu kapitaina

Eraikina eraiki zen.

1652

Birrerai egin zen Antso Urdanibiakoa eta Topaldak egindako testamentu-klausula baten arabera. Orduan, Andre Maria Sortzez Garbiaren Ospitalea deitu zitzaion.

1796

Konponketa, Konbentzio Gerran eraikinik kaltetuenetako bat izan ondoren.

1842

Birreraitze partziala, hondamendi egoeran zegoelako.

1849-1850

Birgaitzeko obrak

1853

Mendebaldeko fatxadan kanpoko iturria eraiki zen.

Gauregungo egoera

Eraikinaren kanpoaldea kontserbazio egoera onean aurkitzen da eta egun Udal Euskaltegia kokatzen da bertan.

ERREGULAZIOA**Babesa**

Monumentu Mailako Babesa

Iruzkinak

- Proposamena badu babestua izateko Euskadiko Kultur Ondarearen 7/1990 Legearen bitartez (Monumentu Kalifikatuak eta Inbentariatuak).
- Barne aldean hainbat berrikuntza egin denez eta jatorrizkoa eraldatu denez, babestu beharreko elementu bakarra bere bolumetria izango litzateke, definitzen duten elementuekin. Karga-hormak, apaindurazko elementuak eta estalkia.
- Madrileko Kultura Ministerioaren Interes Historiko-Artistikoko Ondare Arkitektonikoaren Inbentarioan katalogatua, 1979an.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Departamenduaren Gipuzkoako Ondare Historiko Artistiko Higiezinaren Inbentarioan katalogatua, 1988an. - PERCH planean sartuta dago.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

EM5

Elementua

GUARDIA ARETOA

Elementu-mota

Guardia Aretoa

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1849

Lurralde Unitatea

8.3

Egikaritze Unitatea

8.3.01

KokapenaM^a Juncal Labandibar Kalea, 44**DESKRIBAPENA****Deskribapena**

Eraikin neoklasikoa, 1850. urtean eraikia, helburu berarekin 1819. urtean egindako eraikin bat zegoen orube berean. Lau zutabe dorikoz osatutako arkupea du, eta bi pilastra alboetan, fatxada tetrastiloa eratuz aurrean taulamendu bati eusten; hareharriz eginak dira zutabeak, kareharri zuriko oinarri baten gainean, eta landu gabeko harriz egindako karga-hormak dituzte. Arkitektura klasiko europarraren ezaugarria da Erdiko Batea zabalagoa izate hori, Atenasko Akropolira sartzeko propileoetan jada erabili zuten baliabidea. Zutabeak Eskelako harrobitik, Jaizkibelen, ekarritako harriz eginak dira, Irungo Udaletxeko fatxada eta horma nagusiak eraikitzeo erabilitakoaren berdina. Egileak lan bat argitaratu zuen 1850. urtean “*Breve descripción del Cuerpo de Guardia, construido a la entrada del Puente de Behovia, sobre el Vidasoa, precedida de una explicación de los procedimientos seguidos en la construcción de sus cimientos*” izenarekin, eta zimenduen eraikuntzaren interesa nabarmentzen du bertan. Jatorrian Erdiko Gorputza bakarrik zuen. Gerra Zibilaren ondoren berregin egin zuten E. Colás-en eskutik 1952an, eta orduan erantsi zitzaizkion aldameneko bi gorputzak.

Ezaugarri historikoak**1850**

Julián de Angulo y Velasco jn., Infanteriako Teniente Koronela,

Eraikuntza

Ingeniarien Gorputzeko Komandantea

1952

Berritze lana E. Colás

Gaur egungo egoera

Erabili gabe. Kontserbazio egoera txarrean dago eraikina, eta Erdiko Gorputzeko estalkiaren zati bat eroria dago.

ERREGULAZIOA

Babesa

Monumentuen Babes Maila

Iruzkinak

- Proposamena badu babestua izateko Euskal Kultur Ondarearen 7/1990 Legearen bitartez (Monumentu Kalifikatuak eta Inbentariatuak).

- Arkitektura neoklasikoak baditu adierazpen duinak Euskadin. Haren eredu bikaintzat har daiteke Behobiako guardia aretoa.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.

Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Arkitektura eta Arkeologia

Ondarearen Katalogoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pia Alkain Sorondo.

- XIX. mendeko arkitektura (I) 2/4. Inmaculada Rodríguez Cunill.

- Behobiako Guardia Aretoa. Eraikuntzaren eta Julian de Angulo egilearen inguruko datu Historikoak. Iñaki Garrido Yerobi. Luis de Urantz Kultur Taldea. 2.010eko ekaina.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

EM6

Elementua

AMA XANTALEN / SANTA ELENA

Elementu-mota

Ermita

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

I eta II. mendeak

Lurralde Unitatea

6.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Ermita Karrika / Calle Ermita, 2

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Dunboa kanalaren ondoan kokatuta dago, Ermita karrikan. Gipuzkoako zaharrena da eta XVI. mendeko agirietan ageri da. Egungo tenplua, itxura denez, XIV. mendekoa da, Gipuzkoako X. mendeko eliza bakarraren gainean eraikia. Portada, estilo isabeldarra du, XIX. mendekoa da. Multzo osoa erromatarren garaiko eraikin baten gainean kokatzen da. 1972ko maiatzean, Arantzadi Zientzia Elkarteak, lur azpia ikertzen hasi eta K.o. I eta II. mendeetako erromatarren nekropolia deskubritu zuen, eta tenplu indigena bat izan zitekeenaren arrastoak ere bai.

Ezaugarri historikoak

1972-1980 Arkitektoa: Manuel Urcola

Eraikina birreraiki zen

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera ona.

ERREGULAZIOA

Babesa

Monumentu Mailako Babesa

Iruzkinak

- Nazional mailako Monumentu Historiko Artistiko deklaratu. Uztailaren 17ko 265/1984 dekretua.
- Santiago Bidean sartutako elementu gisa, tokatzen zaion babes maila "Garrantzi Berezia. Babes Berezia" kategoriari dagokiona da (2000-02-11 EHAO).
- Ama Xantalen nekropolia, ermita barnean aurkitua, Monumentu/Multzo Monumental deklaratzeko proposatu den zonalde arkeologiko (B kategoria) deklaratu izan dadin proposatu du Euskadiko Elkarte Autonomoak.

Bibliografia

- Txingudiko Inguru Fisikoaren Ikerketa. Arantzadi. 1983
- Udal Liburutegiko Tokiko Fitxak.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

EM7

Elementua

AMA XANTALEN / SANTA ELENA
ITURRIA

Elementu-mota

Iturria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1667

Lurralde Unitatea

6.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Junto a la Calle Ermita / Ermita Karrika, 16

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Barroko estiloan eraikitako iturria, kainoi bobeda itxurarekin. Horma-hobi bat dauka, erdian irudi batekin, eta alboetan bi pinakulu. 1678an eraiki zen.

Ezaugarri historikoak

1678

Iturria eraiki zen. Iturri hau izango da hurrengo 170 urteetan herriko jendearentzat ur hornitzaile nagusia.

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera ona. 1999an berritu zen.

ERREGULAZIOA

Babesa

Monumentu Mailako Babesa

Iruzkina

- Santiago Bidean kokatzen da eta Ama Xantalengo ermitaren esparruarekin lotuta dago. Estilo barrokoan eraikita dagoenez, unitate osoaren babesa iradokitzen da. Gainera, interes historiko handia du, izan ere, eraikuntza garaiko eta ondorengoetako kontakizunetan aipatzen da eta hiriaren hornidurarako erreferentzia puntu gisa azaltzen da. Elementuaren neurri txikiagatik gomendagarria da inguru hurbilenean esku hartzea, izan ere errepidearen zoladura eraikinaren ertzeraino iristen baita.
- Proposamena badu babestua izateko Euskadiko Kultur Ondarearen 7/1990 Legearen bitartez (Monumentu Kalifikatuak eta Inbentariatuak).
- Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezian sartuta.

Bibliografia

- Txingudiko Inguru Fisikoaren Ikerketa. Arantzadi. 1983
- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

EM8

Elementua

URDANIBIA JAUREGIA, ERROTA
ETA BURDINOLA

Elementu-mota

Burdinola-errota eta jauregi multzoa

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Ola: XIV. m. eta Jauregia: 1612

Lurralde Unitatea

2.1

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Avenida de Jaizubia, nº 1y Barrio Anaka, nº 10 y 11

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Urdanibiako burdinola Urdanibia erreka ondoan aurkitzen da. Egun, antepara, karga depositu, errota eta oinetxearen hondarrak kontserbatzen dira. Ola, XIV eta XVI. mende bitartean Gipuzkoan izan zirenen artean aipatzen da. Antepara, harlandu handiekin eginiko depositu batez eta horien gainean zuzenean ipinitako lauzekin eginiko kanal batez osatuta dago. Hormek, 2,5 eta 2 metro arteko lodiera dute, non hainbat bao eta arku ikus daitezkeen. Kanala igarotzen zeneko aztarna 200 bat metrotan antzematen da eta Jaizubia errekaaren emariaren parte bat desbideratuz elikatzen zen. Olak, egun, ez du burdin-lanaren makinaria kontserbatzen, eta antepararen estoldak bakarrik ikusten dira, ura bertikalean igarotzeko, eta tximinia edo antzeko zerbait izan daitekeenaren hondarrak. Gurpilen kokapen posible baten markak edo aztarnak ere ageri dira.

Errota, 1528an jada aipatua dena, planta laukizuzeneko da, bi isurkirekin, solairu bakarreko altuera eta sotoa, zeinaren makinaria 1983an berritu zen. Eraikina ez da ura iristen anteparatik, ondoko olarekin partekatua dena, bi deposituetan ez dagoelako. Ur hartunea zeharka egiten da, ubidearen bitartez, eta saltoa modu mailakatuan lortzen da, sotoko gurpila mugitzeko, barrunbe, tunel edo estolda batean kokatuak, dobela handiak dituen kainoi erako bobedan, ongi parekatuak, hareharrizkoak eta jarraipen bera daraman fatxadaraino iristen da, hemendik husten baita errekarantz.

1612an eraiki zuen arkitekto italiar batek Sebastian Urdanibiak eskatuta, antzina dorretxe bat egon zen toki berean. Errenazimendu estilokoa da. Bereizita dagoen eraikina da, ola eta errotarekin multzo bat osatzen zuena, planta laukizuzeneko da eta lau isurkiko estalkia du. Fatxadan, harlanduzkoa izaki, bi armari ditu eta horietako bat Arantzate Etxearena da.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean. Kanal, presa eta errotatik kontserbatzen diren hondarrak baldintza onargarrietan aurkitzen dira. Olaren kontserbazioa aurrekoena baino txarragoa da

eta egurrezko elementuek (aleroa, balkoia)

ERREGULAZIOA

Babesa

Monumentu Mailako Babesa

Iruzkina

- Aipatutako eraikin guztien multzoa inbentariatuta dago. Multzoa unitate bezala hartzen da eta interes historiko nahiz arkitektoniko nahiz kulturala du. XVII. mendeko produkzioaren industria eta antolaketaren adibide adierazgarria da. Funtsezkoa da lursailaren izaera unitarioa bere topografia eta eraikin desberdinekin, baita horien kokapena ere. Eraikinak mantentzea funtsezkoa da multzoari itxura on bat eman nahi bazaio.

- Urdanibia jauregia Ondasun Kalifikatuen erregistrotik kendu zen urriaren 5eko 344/1999 dekretuaren bitartez. 2000-03-22ko Aginduaren bitartez, Urdanibiako Ondasun Inbentariatuen multzoan sartu da, ola eta errotarekin batera.

- Balizko Arkeologiko deklaraturako zonaldea, E motakoa, Euskadiko Elkarte Autonomoak, 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren bitartez.

- Madrileko Kultura Ministerioaren Interes Historiko-Artistikoko Ondare Arkitektonikoaren Inbentarioan katalogatua, 1979an.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

EM9

Elementua

BERAUN

Elementu-mota

Oinetxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

XVI. mendea

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Sarasate Karrika / Calle Sarasate, 3

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Planta ia laukizuzena duen oinetxea. Egun, bere fatxada nagusian, behe solairuan, harlandua agerian mantentzen du, Sarasate kalerantz. Izkinak antzeko tratamendua daukate, bigarren solairuko forjatuen mailara arte. Estalkia lau isurkikoa da, jatorrian bi isurkikoa bazen ere, eta teilatu-hegala hormigoiz berrituta dago. Teilatu-hegaleko jatorrizko harburuak balkoien mentsula gisa berrerabili dira. Harlanduzko pieza zizelkatuak dauzka eskulturazko hainbat irudirekin, fatxada nagusian. Baoak egurrezko egiturez estalita daude, leiho-panelatu eta kontraleihoekin.

Ezaugarri historikoak

1916 Juan Jose Aginaga

Zabaltzea, Jose Salis pintorearentzat (jabea) estudioa egiteko.

1840 Ezezaguna

Berrikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Monumentu Mailako Babesa

Iruzkinak

- Eusko Jaurlaritzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.
- Etxe urbanoa, lorategia duen lursail batean kokatua, garai batean egungoa baino neurri handiagokoa. Beraun zonaldea berdegunea da. Eraikinaren interesa bere balio historikoan datza. Jose Salis margolariaren bizitokia eta lantokia izan da. Gainera, eraikin honetan

aurkitzen da Luis de Uranzu zenaren liburutegia. Bere inguruetan erromatar garaiko aztarnak aurkitu dira. Eraikin honi dagokion Gipuzkoako Ondare Historiko-Artistiko Higiezinaren Inbentarioko fitxan ageri denez, "etxeak antzina marea-erota, ontziralekua, mahastia eta sagastia eduki zituen eta bertan egiten ziren ardoak eta sagardoak. - Beraun maldako erromatar garaiko aztarnategia (E motakoa) proposatuta dago "Monumentu/Multzo Monumental deklaratzeko proposatu den Zona Arkeologiko deklaratu izan dadin.

- Madrileko Kultura Ministerioaren Interes Historiko-Artistikoko Ondare Arkitektonikoaren Inbentarioan katalogatua, 1979an.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

EM10

Elementua

MARTINDOZENA

Elementu-mota

Oinetxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1739

Lurralde Unitatea

6.1

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Elizatxo Hiribidea / Avenida de Elizatxo, 18

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Planta laukizuzena eta aldamenean lorategia duen oinetxea, egun publikoa dena.

Eraikinean gazteentzako aterpetxea dago, eta gazteei zuzendutako zerbitzuak ere bai, eta lorategia parke publikoa da. Eraikinak behe solairua, lehena eta teilatupea du eta tamaina handikoa izatean erakusten duen itxura nabarmena da, baita izkinetan eta fatxada nagusiko bao eta arkuetako azpaduretan dauzkan harlanduzko erremateengatik ere.

Ezaugarri historikoak

1739

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera ona. Udal Gaztelekuaren egoitza da.

ERREGULAZIOA

Babesa

Monumentu Mailako Babesa

Iruzkinak

- Interes historikoa duen eraikina da bere jatorriagatik, izan ere Juan Jose Montalibet Iturribalzagak, Oñako 1. Baroiak, agindu zuen eraikitzeko, zeinaren aita Peruko Potosí-ren korrejidorea izan baitzen. Baserrietan inspiratutako eraikina da. Lursaileko ezarpena garrantzitsua da eta bere ezaugarriak ere bai. Armarrria Oñako familiarena da.
- Madrilgo Kultura Ministerioaren Interes Historiko-Artistikoko Ondare Arkitektonikoaren Inbentarioan katalogatua, 1979an.
- Proposamena badu babestua izateko Euskadiko Kultur Ondarearen 7/1990 Legearen bitartez (Monumentu Kalifikatuak eta Inbentariatuak).

Bibliografia

- Txingudiko Inguru Fisikoaren Ikerketa. Arantzadi. 1983
 - Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
- Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

EM11

Elementua

ARANTZATE

Elementu-mota

Dorretxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

XV. mendea

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Meaka I, 89



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Eraikin bakarra, planta txikikoa, dorre izatearen ezaugarrietako bat, Meaka auzoan kokatua, izen bereko olaren ondoan. Ukulu gisa erabiltzen den behe solairua du, bizitzeko bi solairu eta ganbara, lau isurkiko egurrezko teilatu batez estalita. Bere fatxadei begiratuta, eraiki zenean bi fasetan egin zela nabari da. Behe solairua eta lehena jatorrizko eraikinekoak lirateke, alegia, XVI. mendearen lehen erdialdean eginiko obra-proiektu batekoak. Goiko beste bi solairuak, baoen irekitzea eta azpiegitura sanitarioak jartzea ordea, XVII. mendean eginiko berrikuntza lanen ondorioak izango lirateke. Azkenik, hirugarrenaldi bat egongo litzateke, hainbat obra txikiz osatua. Hasierako kuboaren harlangaitz eta harlanduz egina dago. Bere hormek 120 cm-ko lodiera daukate. Ipar-mendebaldeko fatxadaren sarrerako egitura bikoitza kontserbatzen da behe solairuan eta lehenean, arku zorrotzekin. Behe solairuan fatxada bakoitzeko bi gezi-leiho daude eta lehenengo solairuan gezi-leiho bat dago izkina batean, inguruko elementu bakarra delarik.

Ezaugarri historikoak

XVI. lehen erdia

Jatorrizko kuboaren eraiki zen.

XVII. mendea

Goiko solairuak eraiki ziren (bigarren solairua eta ganbara), jatorrizko kuboan baoak ireki ziren eta azpiegitura sanitarioak egin.

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera erdipurdikoa. Barnealdea etxebizitza da.

ERREGULAZIOA

Babesa

Monumentu Mailako Babesa

Iruzkinak

- Zuzenean Irungo historiari lotuta dagoen eraikina da, izan ere honen jabea Pedro Urdanibia jauna izan zen. Armarria, Urdanibia ospitalean eta Urdanibia Jauregian ageri direnen berdina da. Bere balio arkitektonikoa zehaztugabe geratzen da behe solairuan gorputz batzuk erantsi zaizkiolako. Gainera, bao bat ireki da ukuiluko ate gisa erabiltzeko, hego-ekialdean, eta gezi-leiho batzuk itxi egin dira.
- Elementu honek badu proposamena Euskadiko Ondare Kulturalaren 7/1990 Legearen bitartez babestua izateko (Monumentu Kalifikatu eta Inbentariatuak).
- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturuta dago (A mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.

Bibliografia

- Meaka, Aiako Harriko parke naturalaren ataria. Meakako ibarra parkearen atari-aurrea. Nekazal munduko ondarera hurbilketa. Arantzadi. 1999
- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

EM12

Elementua

SANTIAGO BIDEAREN
TRAZATUA

Elementu-mota

Bidea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Santiago bidearen trazatuak, Irundik igarotzen denean, Kostako bidearekin egiten du bat. Bi bide daude; izan ere, badirudi erromesek aukeratu egiten zutela Behobiako pasabidea edo Zubernoako Prioretzetik zetorren bidea hartu, egun Santiago zubia dagoen tokitik gertu abiatzen zena Junkaleko Andre Mariaren elizaren atzealderaino ontziz, edo garai batean bi ibai bazterrak lotzeko egongo zen zubiaren bitartez pasa.

Behobiatik igarotzen den bidea hartuz gero, auzo horretako zubitik abiatzen da eta ondoren Gazteluzarrera igotzen. Artiako zubiraino jaitsi ondoren San Juan Harria plazara jarraitzen du, non Santiago kaletik datorren trazatuarekin bat egiten duen. Handik, adar bat Hondarribirantz abiatzen da Colon ibilbidean barrena, eta bestea Oiartzun aldera Kale Nagusian zehar. Trazatu horrek Gaztelekurantz jarraitzen du, Oñako Oinetxera, Alzulegarre baseritik, autopistaren gainetik igaro eta Alzubideko errotara iristeko. Azkenik, Urune ingurutik igarotzen da Gurutze auzora iristeko, jada Oiartzungo udalerrian.

Ezaugarri historikoak

Gaur egungo egoera

ERREGULAZIOA

Babesa

Monumentuen Babes Maila

Iruzkinak

- Multzo Historiko Artistiko deklaratu eta Patronatuaren sorrera, irailaren 5eko 2224/1962 Dekretuaren arabera.

- Santiago Bidea, Kultur Ondasun gisa kalifikatuta, Monumentu Murtzo kategoriarekin. Urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretua.
- Kultura, Gazteria eta Kirola arloko Sailburuordearen 2010eko uztailaren 29ko ebazpena; haren bidez, Santiago bidea, Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzean, Monumentu Murtzo kategoriarekin Kultur Ondare Kalifikatu deklaratzeko espedientea hasi eta jende aurreko informazio-tramitean jarri zen eta interesatuei audientzia eman zitzaien.

Bibliografia

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

R1

Elementua

ADUANAKO ERAIKINA

Elementu-mota

Hiri Jauregitxo

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1882

Lurralde Unitatea

0.1

Egikaritze Unitatea

R0.1.01

Kokapena

Aduana Kalea, 16

**DESKRIBAPENA****Deskribapena**

Eraikin honek behe solairua, lehenengoa eta tailatupe mantsardatua du. Behe solairuko baoak puntu erdiko arkuez errematatuta daude. Solairu nagusikoak laukizuzenekoak dira. Eraikinaren erlaitza hegada eskasekoa da. Teilatupeko solairuak laukizuzen formako baoak dauzka, frontoi erdi-zirkular eta trianguluarrez burututa, txandaka. Fatxadan, baoen bitarteko tarteetan adreiluak agerian ikusten zaizkio, eta izkinak, baoen azpadurak, forjatuen zintak, erlaitzak eta balkoiak kareharri zuriz egindakoak dira. Teilatua teila grisezkoa da.

Ezaugarri historikoak

1882 Ezezaguna

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean. Egun, ez da erabiltzen.

ERREGULAZIOA**Babesa**

Egiturezko Kontserbazioa

Iruzkina

- Ongi burututako eraikina, bai eraikuntzaren ikuspegitik eta bai antolaketarenetik; bere estiloak XIX. mendeko hotel frantsesa gogora ekartzen du bolumenari eta estalkiaren itxurari dagokionez. Pieza urbano bezala kontuan hartzean garrantzi berezia duelako da, alde batetik plantan toki handia okupatzen duelako, pabilioi erantsiak barne, eta bestetik balio historikoa duelako trenbidearekin eta mugako pasabidearekin lotuta, hiriaren testuinguruan funtsezko elementu bezala. Interesgarria dirudi pieza bere osotasunean mantentzea, lehen aipatutako balioengatik eta erdiko nabe erantsiak erakusten duen

eraikuntzako diseinuak daukan balioagatik, bereziki galeria formako hormigoizko egiturak.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R2

Elementua

SAN GABRIEL ETA SANTA GEMA

Elementu-mota

Eliza

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1923-1926

Lurralde Unitatea

3.2

Egikaritze Unitatea

3.2.06

Kokapena

Geltokiko Kalea / Calle Estación, 24



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Planta zentrala duen eliza neo-barrokoa. Eraikinak izaera bertikal markatua du, linterna batez errematatutako kupula batekin. Duela gutxi goitik behera berritzeko lanak egin dira eta parrokiko dependentziak zituen atze aldeko zatia kendu egin da eta bere ordez beste bat desberdina eraiki da.

Ezaugarri historikoak

1923 - 1926 Jose Gurruchaga

Eraikuntza

1943 Jose Gurruchaga

Parrokiari erantsitako dependentziak eraiki ziren.

2004 Luis Miguel Alonso Nájera

Birgaiketa

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera ona. Duela gutxi goitik behera berritu da.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Osoa

Iruzkinak

- Nahiz ezin den arkitektura neo-barrokoaren paradigmatzat hartu, bere eraikuntza-kalitateagatik nabarmentzen da, batez ere dekorazio elementuetan. Azpimarragarriak dira "Maumessean" etxeak fabrikatutako beirate beruneztatuak. Barneko proportzioak nabarmenak dira eta dekorazioa ere ba, Montes Iturrioz-en fresko bat barne. Bere kontserbazioa interesgarritzat jotzen da, bai ikuspegi bolumentrikotik eta bai estilistikotik.

- Badu proposamena Euskadiko Ondare Kulturalaren 7/1990 Legearen bitartez babestua izateko (Monumentu Kalifikatu eta Inbentariatuak).

Bibliografia

- Txingudiko Inguru Fisikoaren Ikerketa. Arantzadi. 1983
- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R3

Elementua

KIOSKOA ZABALTZA PLAZAN

Elementu-mota

Kioskoa

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1903

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Zabaltza Plaza / Plaza del Ensanche

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Altzairu galdatuan eginiko eraikuntza, planta oktagonalekoa. Eraikin osoa hareharri eta kareharri grisezko zokalo baten gainean kokatuta dago. Colon ibilbidearen parean barrura sartzeko eskalinata bat dauka. Sareta-habeak dauzkan zortzi habeak errematxe-pletinaz eta altzairuzko tiranteez eginak daude. Estalkia, zortzi isurkikoa, altuera txikiko linterna batez errematatuta dago. Lorategi txiki batek eta zokalo azpiko erabilerak osatzen dute elementu urbano hau. Euri uren ebakuazioa lau gargola metalikoen bitartez egiten da.

Ezaugarri historikoak

1903 Javier Agirre

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Osoa

Iruzkina

- Musika kioskoa, burdinaz eraikia, garai hartan, garaiko bereizgarria. Diseinu soilarekin eraikia, merezitako eraikuntza eta konposizio-balioa du elementu txikiagoetan. Galdatuzko habeak, gargolak... Gainera, erreferentzia historiko gisa aurkezten da gaur egun erabat indarrean dagoen espazio urbano batean, Zabaltza plazan, hain zuzen. Interesgarritzat jotzen da kontserbatzea eta mantentzea burdinazko arkitekturaren eredu gisa eta bere presentzia urbanoagatik.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.

Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R4

Elementua

JUNKAL ESKOLAK

Elementu-mota

Eskola

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1878

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea

5.3.09

Kokapena

Eskoleta, nº 3



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Eraikuntza enblematikoa da, bai bere bolumenagatik eta bai bere balio historikoagatik. Eraikuntza eta konposizio ikuspegitik eraikin xumea da, bai exekuzio alorretik eta bai pretentsio estilistikoen alorretik. Konposaketa klasikoa da bai estiloan eta bai bolumetrian, eta gorputz nagusi bat du bolumen handiagokoa dena eta planta bat antolatzen duena simetriazko ardatz batekin. Azpimarratzekoa da sarrerako plazatxoa, baita atze aldeko espazioa ere, erromatarren garaiko termak izan zitezkeenaren hondakinak gordetzen dituen. Eraikina duela gutxi berritu da eta lehen aipatutako bi espazioei garrantzi berezia eman zaie.

Ezaugarri historikoak

2004 Arkilan

Oiasso Museoa birgaitzea

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean. Oiasso Museoaren egoitza da.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R5

Elementua

SAN MARTZIAL

Elementu-mota

Ermita

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1522

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Behobia, 26



DESKRIBAPENA

Deskribapena

1522ko San Martzialeko guda gogoratzeko eraikitako ermita da. 1796an suntsitu zen eta 1804an berreraiki. Izen bereko mendiaren gainean kokatzen da eta herriko jaietan funtsezko erreferentzia da. Gorputz nagusiak harlangaitzezko hormak ditu eta bi isurkiko estalkia du. Ermitari mendebaldetik atxikita geratzen da dorrea, eta albo bateko gorputza ere bai, hegoaldera jatetxe gisa erabiltzen den zatia, alegia.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Osoa

Iruzkinak

- Eusko Jaurlaritzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.
- Eraikin erlijiosoak ez du balio arkitektoniko garrantzizkorik, baina bere garrantzia gizartean eta bere inguruan oinarritzen da. Babesterakoan ezinbestez bere inguruari lotuta doa, eraikitakoaren parte zatiezina delako, eraikitako espazioak eta espazio libreak batasun bat osatzen baitute.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R6

Elementua

LARRAMENDIARENA FINKA

Elementu-mota

Hiri etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa


Kronologia

1946

Lurralde Unitatea

6.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Karrika Nagusia/ Calle Mayor, 43

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Hiru altura eta teilatupea dituen eraikina da, 1946koa. Bere fatxada zabor-plakatur egina dago, estalkia aldapa handikoa da eta beirak beruneztatuak. Karrika Nagusitik sartzen da lursailera, etxeak duen jatorrizko arku baten azpitik irteten den eskalinata batetik. Eraikina desnibel handi batean kokatzen da eta lorategia atzealdean dago, hegoaldera, sarrerako kalearen gaineko solairuaren altueran. Behe solairuan garajeak daude. Eraikinaren egitura, hormigoi armatukoa, estalkiaren hegaletan nabari da.

Ezaugarri historikoak

1946

Jose Antonio Ponte

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkinak

- Eraikin interesgarria ikuspegi urbanotik begiratur gero, horman babestutako etxea izateagatik, kalearen sestrarekin elkartzen den tokia eta atze aldean daukan espazio libre handira sartzeko tokiari dagokionez, kota handiagoan kokatzen baita. Bere estiloak badirudi nekazal kutsu ingeles arkitektura hartzen duela. Eraikin honen elementurik nabarmenenak izango lirateke: horma eraikinari muga jartzen dion elementu gisa, eskalinata eta bertan irekitako zulutik daukan sarbidea, bi elementu hauek jada existitzen baitziren 1946an berreraiki zenerako.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R7

Elementua

COLON KASINOA

Elementu-mota

Hiri Jauregitxo

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1930

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea

5.2.08

Kokapena

Colón Ibilbidea / Paseo de Colón, 25



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Bi altuerako eraikina, zokaloarekin, Colon ibilbidea eta Luis Mariano plazaren arteko izkinan kokatua. Colon ibilbideko 23. zenbakiarekin mehelina konpartitzen du. Izkinan, sarrera bertan dago, alaka osatzen da. Colon ibilbidea ematen duen fatxadak gainerakoaren aldean dekorazio aberatsagoa ageri du, kuxindura-aparailu eta mentsula gainean harrizko balkoi jarraituarekin. Baoak, bigarren solairuan, laukizuzen formakoak dira. Alakako balkoia frontoi batez burutzen da. Behe solairuan, gehienak, puntu erdiko arkuez errematatuta daude.

Ezaugarri historikoak

1930 Luis Vallet eta Jose Antonio Ponte

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Jauregi urbanoa, jatorrizko bolumetria gordetzen duena, Colon ibilbidearen hasierako antolaketan toki nagusia hartzen zuena. Egun, denak desagertu dira edo kontserbatu direnak goitik behera eraldatu egin dira. Bere konposizioak eragin neoklasikoak ditu balastradetan, kateatuetan, azpaduretan eta frontoietan, eta harri edo adreiluaren oinarri neutroaren gaineko pieza zizelkatu edo errebokatu gisa baloratuz. Bere jatorrizko itxura aldatuta dago atze aldean, behe solairuan, duen gorputz irtenean, 1973an eginiko berrikuntza baten ondorioa baita. Bere presentzia urbanoagatik nabarmentzen da

bolumenaren ikuspegitik eta eraikuntza eta konposizioan duen balioagatik. Garai eta tipologia baten eredu gisa mantentzeak forma aldetik zailtasunak ditu Colon ibilbidea azken garaietan garatzearen ondorioz mehelina duelako.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R8

Elementua

JESUSEN ZERBITZARIEN
KOMENTUA

Elementu-mota

Komentua

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1930

Lurralde Unitatea

6.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Karrika Nagusia / Calle Mayor, 41

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Hiru altuerako eraikina eta estalkia lau isurkikoa, Gain Gainean kokatua. Planta, funtsean, laukizuzena da eta ertz batean kapera dago. Dagoen desnibel handia, Karrika Nagusiaren gainean egindako horma batez konpontzen da. Behe solairuan eta lehenengoan baoak laukizuzenekoak dira eta bigarrenean puntu erdiko arkuez errematatzen dira. Kapera dagoen gorputzean zirkulu erdiko leiho handi bat dago eta goiko solairuan 5 zuloko arkuteria. Materialei dagokienez, hormetako harlangaitza agerian dago bao arteko tarte gehientsuenetan. Eskantzuak, baoen azpadurak eta bigarren solairuko fatxadaren zati bat hareharri landukoa da. Erlaitza, dekorazioan aberatsa, kasetoi eta mentsulekin, neurri handikoa da eta hormigoiz egina.

Ezaugarri historikoak

1930 Jose Gurruchaga

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkinak

- Bere presentzia urbanoagatik eraikin garrantzitsua, bai bolumetriaren ikuspegitik eta bai bere kokapenagatik, kalearen gaineko plataforma batean baitago, Aldapeta eta Arizmendi Almirantea karriken ardatza errematatzen duen kalearen gainean. Eraikuntza-kalitateagatik bereizten da, arkuteria eta teilatu-hegala bezalako elementuetan. Eragin klasikoko

konposizio orokorraren barnean elementu erregionalistak hartzen ditu elementu garrantzitsuetan, teilatu-hegalean, esaterako. Konposizio aldetik arkitekturaren eredu nabarmena ez izan arren, azkeneko emaitzan zuzentasun bat mantentzen du, beraz, kontserbatzea interesgarria dirudi bere fatxada nagusien bolumena eta konposizioari dagokionez eta eraikinak plataformen bitartez kaletik duen trantsizioari dagokionez.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R9

Elementua

IKUST ALAIA ETXEA

Elementu-mota

Hiri etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1914

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Karrika Nagusia / Calle Mayor, 24

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Etxearen inguru perimetralean lorategia du eta Karrika Nagusiaren goi aldean kokatzen da, Jesusen Zerbitzarien komentuaren parean. Eraikin multzoaren emaitza, hiru altuerako gorputz nagusiari aldeetan hainbat gorputz eranstean lortu da. Jatorrian, jauregi frantses motako eraikin bat izan zen, estalki mantsardatuarekin, kubikoa, eta egun erakusten dituen apaindurazko ezaugarririk gabea. Elementu horien artean ezkur itxurako fustea duten kolomak nabarmentzen dira. Estalkiak lau isurkikoak dira, hegalarekin, egurrezko oholtza eta mentsulak agerian uzten dituelarik. Fatxada zarpiatuta eta margotuta dago.

Ezaugarri historikoak

1914 M. Sáenz de Vicuña

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean. Udal liburutegia eta artxiboa daude bertan.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Lorategi formako lursail handi batean kokatzen den eraikina, aldapan, konposizio eta eraikuntza aldetik kalitate handiarekin. Etxe horretan, 1985ean, birgaitzeko eta barnetik berritzeko jarduerak egin ziren liburutegi eta artxibo historiko gisa erabiltzeko. Bere estiloak arkitektura erregionalistaren elementuak hartzen ditu, baita dekorazio platereskoak ere. Azpimarratzekoa litzateke lurrari egokitzeko modu interesgarria, baita lursailean bertan duen kokapena ere, non tamaina handiko zuhaitzak nabarmentzen diren eta perimetro osoan forjaz eginiko itxitura ere bai. Bere kontserbazioa, nolabait, jada ongi sendotuta dago

egin zaizkion berrikuntzekin, edo ondoren egin liezazkioneekin, jarduera-ildo berean egiten badira behintzat.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R10

Elementua

ETXEA PIKOKETA KARRIKA, 11n

Elementu-mota

Hiri Etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1913

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Pikoketa Karrika / Calle Pikoketa, 11

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Juaristi medikuaren klinika izateko sortu zen eraikina. Eraikina, orduan zegoen negutegiaren ondoan egin zen, jatorrizko planoetan ageri denez. Fatxada, ardatz zentral bat eta aldamenetako bi ardatzen arabera antolatuta dago, kokapen simetrikoan. Azalera osoa zarpiatuta eta margotuta dago. Behe solairuan kuxindurazko aparailu bat du, horizontalean lotuta, eta erdiko arkuaren eta aldamenetako leihoen klabeak nabarmenduta ageri dira plano orokorrekarekin alderatuz. Lehen eta bigarren solairuetan, leihoen baoak, laukizuzenak, hauts-babesa eta leiho-barrena dute, lehen solairukoak forma aldetik konplexuagoak direlarik. Fatxadan miradore bat dago lehen eta bigarren solairuan, ardatz zentrolean kokatua. Egurrezko hegala kalerantz ageri da eta estalkia lau isurkikoa da. Alde batean sarrera du, sarrera publikoa eta pribatua bereizten zituena, jatorrian zeukan erabilerarako egokitua.

Ezaugarri historikoak

1913

Pedro de Aristegi

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Birreraikitzen, etxeak egiteko.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Eraikin partikularra, soila, bai eraikuntzaren ikuspegitik eta bai konposizioaren ikuspegitik, etxe urbanoaren tipologia adierazten duena bolumetria garbiarekin eta proportzio justuekin. Bere oinarrizko balioak kontserbatzen dira jatorrizko proiektuan bezala. Fatxada nagusiak

irizpide neoklasikoak jarraitzen ditu, eragin eklektikoaren arrasto eskasekin. Azpimarragarria da, bai proportzio bolumentriko egokituak dituelako eta bai konposizio orokorra kontuan hartzen delako. Une honetan goitik behera berreraikitzen ari dira, kanpo aldetik lehen deskribatu den itxura bera mantenduz.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R11

Elementua

ETXEA PIKOKETA KARRIKA, 13an

Elementu-mota

Hiri Etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1907

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Pikoketa Karrika / Calle Pikoketa, 13

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Saguzarren Etxea bezala ezagutzen den eraikina, balkoietakako burdinak apaintzen dituzten irudiengatik. Fatxada nagusia bost ardatz bertikalen arabera antolatuta dago, eta erdikoan kokatzen da eraikineraren sartzeko atea. Solairu bakoitzean bi etxebizitza daude. Lehenengo solairuan balkoi jarraitu bat dago. Bigarren solairuan balkoiak banakakoak dira eta baoan hauts-babesa dute, pilastra salomonikoen gainean bermatuta. Miradoreak ertzetako ardatzetan kokatzen dira eta egurrez eginak daude, eta lehen eta bigarren solairuetan kokatzen dira. Txapituladun leihoak teilatupeko solairuarenak dira eta bi isurkiko estalkira ateratzen dira, fatxadaren paralelo doan gailurrarekin.

Ezaugarri historikoak

1913 Pedro de Aristegi

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Azpaduretan, miradoreetan eta balaustradetan dekorazio elementu eta irudiengatik nabarmentzen den eraikina da, eta bere originaltasun eta artisau-kalitateagatik. Etxeak bolumentria garbia erakusten du eta etxe bakar gisa hautematen da. Bere estiloak elementu neo-platereskoak hartzen ditu dekorazio elementuetan. Eraikina berriro egin da jatorrizko bolumentria eta apaingarrizko irudi nagusienak mantenduz.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R12

Elementua

UDAL OSPITALE ZAHARRA ETA
MIRARIETAKO KAPERAK

Elementu-mota

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1914

Lurralde Unitatea

6.3

Egikaritze Unitatea

R6.3.08

Kokapena

Urdanibia Plaza, 6-7



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Behe solairua eta lehen solairua duten pabilioi multzoa, Andre Maria Sortzez Garbiaren ospitale ondoan. Eraikuntza xumea duten eraikinak dira, lorategiekin batera multzo atsegina osatzen dutelarik. Pabilioiak planta laukizuzenekoak dira, estalkia lau isurkikoa eta fatxada zarpiatuta eta margotuta. Andre Maria Miraritatoaren kaperak, lorategian kokatua, multzoa osatzen du.

Ezaugarri historikoak

1914 Ezezaguna

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Udal bulegoak

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Multzo urbanoa, bere balio arkitektonikoagatik ez bada ere gainazalean duen ezarpenagatik eta Urdanibia plazan dagoen ospitale zaharrekin ezartzen duen harremanagatik nabarmentzen da. Lursailean duen kokapenak patioen arteko lotura bat ematen diote eta, berez, espazio urbano interesgarria sortzen du. Multzoaren plantaren fisonomia tipologikoa kontserbatzea interesgarria litzateke eta espazio librearen eta eraikitako espazioaren arteko harreman bolumetrikoa ere bai.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.

Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R13

Elementua

KOARTEL ZAHARRA

Elementu-mota

Etxebizitza blokea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1926

Lurralde Unitatea

7.1

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Enkantia Kalea, 1-9, Casto Cantero Kalea 2-10 y Erlaitz Kalea, 1

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Hiru altuerako eraikina eta estalkia hiru isurkikoa, jatorrian kuarter gisa erabiltzen zen. Egun, etxebizitzaren eraikina bihurtu da eta horrek ez du laguntzen eraikina baloratzeko garaian. Planta "U" formakoa du eta lehen eta bigarren solairuko etxebizitzetara sartzeko patioak joaten da. Kanpoko akabatua, duela gutxi berrituta, zarpiatuta eta margotuta dago.

Ezaugarri historikoak

1926

Francisco Urcola

Gauregungo egoera

Etxebizitzak. Duela gutxi kanpoaldea berritu da.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezian sartutako elementua.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R14

Elementua

JUNKAL AMA BIRJINA ETXE
MULTZOA

Elementu-mota

Etxebizitza blokea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1945-1959

Lurralde Unitatea

5.1

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Serapio Mujika Kalea, 25-33, José Egin Kalea, 1-5 y Gipuzkoa Hiribidea, 2-6

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Bizitoki multzoa, zeinaren proiektuak "Gipuzkoako Etxe eta Arkitektura Obra Sindikala" izenarekin deitutako lehiaketa irabazi baitzuen. 24 ezkaratza ditu eta 121 etxebizitza. Etxe multzo osoaren planta "U" formakoa da eta hegoaldera irekita dago. Eraikinaren hiru gorpuzte 5 solairu dauzkate, eta orubearen kotarik baxuenean sei ere badituzte. Behe solairua eraikinaren zokalo gisa tratatuta dago eta aparailu irregularreko kareharri grisezko akabatua dauka. Fatxadaren gainerakoa zarpiatuta eta margotuta dago. Etxadiaren alderdi irekia, duela bi urtera arte, behe solairuan zegoen arkuteria batez errematatuta egon zen, baina etxadiaren barne aldea egokitzeko obrak egin zirenean bota egin zen.

Ezaugarri historikoak

1945-1959 Pedro Muguruza Otaño

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Etxebizitza sozialaren arkitekturaren adibide interesgarria, non, baliabide eskasekin, elementu tipologikoak eta lotura urbanoak ongi konpontzen diren. Antolaketaren oinarria zera da, hutsune bat ezartzea erritmo erregular eta uniforme baten gainean. Behe solairuak eraginkortasunez konpontzen du kaleko sestrekiko lotura eta barne-kanpoko espazioen iragazkortasuna. Etxadi erdi-irekiaren izaera nabarmena da, espazio publikoaren harreman

egokia ezarriz eta multzoaren eskala doituarekin.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R15

Elementua

ERAIKINA SAN MARTZIAL, 1ean

Elementu-mota

Etxebizitza eraikina

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1937-1941

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

San Martzial Karrika / Calle San Martzial, 1

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Etxebizitzen eraikina da, mehelinen artean kokatua, San Martzial karrika eta Eliza karrika arteko izkinan eta Udaletxe aurrean. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak bultzatu zuen etxe honen eraikuntza. Bere itxuran horizontalitatea nagusi da erlaitz eta moldura jarraituen eraginez eta luzetako hutsune horizontalak dituelako izkinan. Materialelek paper garrantzitsua jokatzen dute eraikinaren konposizioan: behe solairuan harrizko plakatu bat dago, adreilu agerikoa lehenengoan eta zarpiatuta eta margotuta gainerakoan.

Ezaugarri historikoak

1937-1941 Ramon Cortazar

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Etxebizitzak. Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Konposizioaren aldetik garaiko estilo arrazionalistaren barnean kokatzen den eraikina. Pieza urbano nabarmendua, bere presentzia bolumetrikoki dagokionez, San Martzial karrika errematatuz eta San Juan Harria plazarekin izkina eginez. Jatorrizko proiektuak ez zuen jasotzen teilazko estalki inklinatua, ezta teilatupeak ere, aitzitik, ongi errematatutako eta arkitektura arrazionalistaren ezaugarriekin hobeto zetorren itxura zeukan.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.

Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R16

Elementua

JENARO ETXEANDIA PLAZAN
ETXEBIZITZEN ERAIKINAK

Elementu-mota

Etxebizitza multzoa

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1876-1906

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Genaro Etxeandia Plaza, 1 y Fermín Calbetón Karrika, 1-5

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Etxebizitzen eraikinen multzoa Jenaro Etxeandia plazako 3 eta 4. etxeek eta Fermín Calbetón kaleko 1, 3 eta 5. etxeek osatua. Multzo horren hasierako etxea Colón ibilbidea eta Francisco de Gainza kalearen artean izkina egiten duen eraikina da, Pedro Aristegik eraikitakoa. Jatorrian bi solairukoa izan zen, fatxada harlanduz egina. 1981ean beste solairu bat gehitu zitzaion eta adierazitako gainerako eraikinen parean jarri zen altueran, zeinak 5 altuerakoak baitira, horietako azkena mantsardatuta dagoelarik. Horiek guztiak Jose Aginagak eginikoak dira 1891 eta 1906 bitartean.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza. Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Multzoak konposizio eta eraikuntza aldetik erakusten duen batasuna nabarmena da. Fatxada klasikoez osatutako eraikinen multzoa, behar bezalako proportzioan eginiko bakoen serie erregular batez. Dekoraziorik ez dute, bakoen azpadurak eta miradoreetako zurgintza ez bada, elementu dekoratibo modernistak hartzen baitituzte. Eraikin hauei eman dakiekeen babesa fatxadak kontserbatzera joango litzateke, horrela, aipatutako multzoari batasun irudia emango zaio eta.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R17

Elementua

POLIZIA KOMISARIA ZABALTZA
PLAZAN

Elementu-mota

Hiri Jauregitxoa

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1945-1948

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Zabaltza Plaza / Plaza del Ensanche, 1

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Eraikin bakarra, 3 altuera eta teilatupea dituen, Zabaltza plazan kokatua. Planta laukizuzena du, iparraldetik behe solairuan eranskin bat eta lorategi bat duena, ia eraikin osoa inguratuz. Fatxada nagusia simetrikoa da ardatz zentral baten arabera eta erdiko gorputza zertxobait aurreratua du gainerako fatxadarekin alderatuta. Estalkia lau isurkikoa da, teilekin. Fatxada hareharri landuz egina dago. Baoak banda zuri batez inguratuta daude.

Ezaugarri historikoak

1945-1948 J. A. Ponte

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Bere presentzia urbanoagatik nabarmentzen den eraikina, Zabaltza plazaren alde txikietako bat okupatuz. Bere estiloan eraikin berantiarra da, arkitektura herrerianoaren elementuak hartzen dituen tradizio klasiko baten barnean. Eraikin honi eman dakioken babesa bere osotasunean kontserbatzea litzateke, hau da, fatxadak, estalkia, elementu apaingarriak, baoen kokapena.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.

Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R18

Elementua

ERAIKINA GIPUZKOA HIRIBIDEA,
4an, "NORMANDIE ETXEA"

Elementu-mota

Etxebizitza eraikina

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1935

Lurralde Unitatea

5.1

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Gipuzkoa Hiribidea / Avenida de Gipuzkoa, 4

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Etxebizitzen eraikina, 6 altuera eta atikoa duena, forma triangeluarreko orube batean atzeraeramana eta kolkoratuta. Erabat itxi gabeko etxadi bat osatzen du eta irekidura horren ertzean kokatuta dago. Puntu horretan fatxadak forma kurboa du eta atiko solairuan, fatxadaren jarraipen gisa, puntu hori indartzen duen markesina bat dago. Fatxadako gainerako osagaiek izaera horizontal markatua du. Irunen eraiki zen hormigoi armatuko lehen eraikina izan zen.

Ezaugarri historikoak

1935 Juan Jose Olazabal

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Etxebizitzak. Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Linea arrazionalisten arkitekturaren adibide interesgarria da, 30. hamarkadako joerekin bat zetorrena. Bere bolumetria oso zail dirudi aldatzea, izkinaren presentzia eta balioagatik, eraikinaren silueta eta bereizgarria delako.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:

Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R19

Elementua

ERAIKINA COLON IBILBIDEA, 36an

Elementu-mota

Etxebizitza eraikina

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1935-36

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Colon Ibilbidea / Paseo de Colón, 36

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Eraikina mehelinen artean dago eta 6 solairu eta teilatupea du, Colon ibilbideko 36. zenbakian kokatua, Gipuzkoa hiribideari amaiera emanez. Colon ibilbidean zehar errepikatzen den eraikin mota baten eredu da. Fatxada nagusia miradorearen bitartez formalizatzen da, balkoi kurboek babestuta, kokapen simetrikoan.

Ezaugarri historikoak

1935-36 J. A. Fernandez de Casadevante

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Etxebizitzak. Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Eraikina proportziotan egokia eta, garaiko arkitekturaren adibide oso nabarmena ez izan arren, Colon ibilbidean zehar hainbat eraikinetan errepikatzen den fatxadaren eredua da. Bere mota berezietako bat da.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R20

Elementua

BANCO POPULARRAREN
ERAIKIN ZAHARRA COLON
IBILBIDEA, 58an

Elementu-mota

Etxebizitza eraikina

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1937

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Colon Ibilbidea / Paseo de Colón, 58

DESKRIBAPENA

Deskribapena

5 altuera eta atiko atzeraeraman duen eraikina, mehelinen artean kokatuta. Bere konposizioan erabilitako ordena erraldoia azpimarra daiteke, monumentu itxura ematen baitio. Osagaiei dagokienez ordena klasikoa ageri du, alegia, basamentua, gorputz nagusia eta burutzeko solairua. Apaindurazko xehetasunak beren eraikuntza-kalitateagatik azpimarragarriak dira, alegia, pilastrak, azpadurak, frontoiak, leiho-barrenak eta erlaitzak.

Ezaugarri historikoak

1937 Domingo Agirrebengoa

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Etxebizitzak eta bulegoak. Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkinak

- Duela urte batzuk eginiko berrikuntzek eraikina proportzio berrietan finkatu zuen. Eraikuntza-kalitatea nabarmena da pilastra, azpadura, leiho-barren eta erlaitzeko xehetasun apaingarrietan.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:

Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R21

Elementua

ERAIKINA COLON IBILBIDEA, 8,
10, 12an

Elementu-mota

Etxebizitza eraikina

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1946

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Colon Ibilbidea / Paseo de Colón, 8, 10 y 12

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Etxebizitzen eraikina, errentako etxeak izateko proiektatuta. Behe solairu komertziala eta sei solairu altu ditu. Colon ibilbideak Iparralde hiribidearekin izkina egiten duen tokian dago, itxura klasikoa du eta eraikuntza-kalitate ona. Erlaitzek bat egiten dute fatxadaren lerrokaduratik irteten diren bi gorputz irtenekin. Planta kurboa duen izkina bi elementu irtenek babesten dute, puntu horretan gainaldean daukan petoaren bitartez errematatzean kale batetik besterako jarraipen bisuala eragiten duelarik.

Ezaugarri historikoak

1946 Jose Luis Recarte

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Etxebizitzak. Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Bere kokapen nabarmena eta bolumetria sendoa dira azpimarragarriak, eraikuntza-kalitate ertain-altuarekin batera.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R22

Elementua

ERAIKINA IPARRALDE HIRIBIDEA,
3an

Elementu-mota

Etxebizitza eraikina

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1955

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Iparralde Hiribidea / Avenida de Iparralde, 3

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Colon ibilbidea eta Iparralde hiribidearen arteko izkinan dagoen eraikina. Behe solairua, solairuarte eta sei solairu altu ditu. Bi komunikazio-guneen arabera antolatzen da eta solairu bakoitzeko lau etxebizitza ditu, orientazio bikoitzarekin. Izkinako forma kurboak eta atzeraeramandako atikoak dominatzen duten bolumentria ageri du, angelua hustea eraginez. Bere estiloa kontuan hartuz, arkitektura berantiarra da. Hala ere, bere tamaina handia eta eraikuntza kalitateak bere presentzia urbanoa areagotu egiten dute Colon ibilbideko izkina garrantzitsu batean.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitzak. Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkinak

- Bere kokapen nabarmena eta bolumentria sendoa dira azpimarragarriak, eraikuntza-kalitate ertain-altuarekin batera.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R23

Elementua

IMMIGRAZIO ZENTRO
ZAHARRA

Elementu mota

Eraikin administratiboa

Ondare mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1963

Lurralde Unitatea

3.2

Egikaritze Unitatea

R3.2.09

Kokapena

Bartolome de Urdinso Kalea, 2



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Eraikin honen oinak "C" forma hartzen du eta hego-ekialdera irekitako patio baten inguruan eratua dago. Bi gorputz nagusiak, hasiera batean bizitoki eremuak zirenak, behe solairuan beiraz hornitutako korridore baten bitartez lotuta daude eta horrek gardentasuna ematen dio sartzeko kaletik hondo berde eguzkitsuraino. Arkitektura xumea du, eta dituen materialen kalitatearekin eta forma sinpleekin, egileen arabera, "eraikinari egonkortasuna eta lasaitasuna" eman nahi zioten, lehen unetik eta erabiltzen den neurrian ere nabaritzeko modukoa.

Ezaugarri historikoak

1963

Jose M^a de Iturriaga eta Alejandro de la Sota

Eraikuntza

Gaur egungo egoera

Ekonomia eta Ogasun Ministerioarena da eta hainbat bulego dauzka. Kontserbazio egoera txarra.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egituraren Kontserbazio Maila

Iruzkinak

- Arkitektura bikaineko eraikina da, eta bolumetriari dagokionez jatorrizkoa bezala kontserbatzen den arren, mantenu falta handia ageri du eta horrek hondatu itxura ematen dio eraikinari.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa.

2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Arkitektura eta Arkeologia Ondarearen Katalogoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pia Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R24

Elementua

ETXEBIZITZAK FRANCISCO DE
GAINZA, 7, 9, 11, 13an

Elementu-mota

Etxebizitza Familiabakarrak

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1931

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Francisco de Gainza Karrika, 7, 9, 11 y 13

DESKRIBAPENA

Deskribapena

4 etxebizitza dituen eraikina, hiru altuerakoa, hizkuntza modernoaren joera jarraitzen duena: bolumen kubikoen garbitasuna areago geratzen da eraikuntzako elementuen horizontalitateagatik, hainbat baok konpartitzen dituzten leiho-barren lerroen bitartez, terrazen karelen gaineko baranda metalikoaren errematetik. Horizontalitate hori fatxadako koloreengatik areagotuta geratzen da, fatxadaren tonu gorriaren gainean elementu horizontalak kolore zuriz baitaude. Fatxadako tarteetan apaindurarik ez edukitzea ere azpimarragarria da.

Ezaugarri historikoak

1931 Luis Vallet

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkinak

- Bizitokien arkitektura arrazionalistaren adibide interesgarria. Kontserbazio egoera ona da. Elementu erantsi batzuk ditu eta horiek eraikinaren benetako ezaugarriekin alderatuz kalitate eskasagatik nabari dira. Eraikina babestekotan bere jatorrizko arkitektura berreskuratzeko eta bere elementu guztiak mantentzeko izango litzateke.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.

Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R25

Elementua

ETXEA POLICARPO BALTZOLA,
3an

Elementu-mota

Hiri etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1930

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Policarpo Baltzola Kalea, 3

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Familia bakarreko etxebizitza, aldapa handiko lursail batean kokatuta. 4 altuera ditu, horietako bat garajea, eta daukan bolumena lortu da hainbat bolumen kubiko elkarri erantsi ondoren. Mugimendu modernoaren arauen arabera proiektatuta, estalkia laua du, barandak horizontalki kokatuta eta fatxadako baoetan apaingarririk ez.

Ezaugarri historikoak

1930 Luis Vallet

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Mugimendu Modernoa izenekoaren barnean kokatzen den arkitekturaren adibide garbiaren aurrean aurkitzen gara, zalantzarik gabe, estilo hau zabaldu zeneko urteekin bat datorrelako baita interesgarria. Elementu bereizgarriak dira bolumen garbiak, plano errebokatuak eta azotea espazio erabilgarri gisa baloratzea. Interesgarria iruditzen zaigu bere kontserbazioa, bai bolumetrian, lurraren aldapa handiari ondo moldatuta, eta bai eraikina osatzen duten bolumen desberdinen eta elementu txikiagoen (barandak, hegala, estalki laua) antolaketa formalean ere, hala nola lursailaren barnean duen kokapenagatik eta bere landaretzagatik.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R26

Elementua

ETXEA HENDAIA KALEA, 8an,
"DUCOUREAU ETXEA"

Elementu-mota

Hiri etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1922

Lurralde Unitatea

3.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Hendaia Kalea, 8

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Antzaran auzoan dagoen eraikina, Plaiaundiko zonaldea menderatzen duen gain batean. Etxe partikular gisa eraiki zen XX. mende hasierako joera erregionalistaren eredua jarraituz. Konposizioari dagokionez, simetriarik gabeko eraikina da, bi gorputz erantsiekin. Bolumenean nabarmentzen da nola ageri den teilatu gainetik dorre-miradorea. Eraikina duela gutxi goitik behera berritu da Mondragon Unibertsitateko fakultate bat jartzeko, jatorrizko fatxadak mantendu dituelarik.

Ezaugarri historikoak

1922 Ramon Cendoya

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Duela gutxi goitik behera berrituta. Mondragon Unibertsitatearen egoitza da.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkinek

- Bere presentzia urbanoagatik nabarmentzen den eraikina, Bidasoa ibai ahoa menderatzen duen gain batean dagoen lursail handian. Eraikin garrantzitsua bolumetriari dagokionez, eta euskal joera berrien barnean funtsezko pieza ez den arren, joera horretan sar daitezkeen konposizio-elementuak dauzka. Garrantzitsua litzateke bolumenaren kokapena baloratzea jabetzari orokorki dagokionean eta eraikinak duen garrantzia Irungo perfilaren gainean objektu nabarmen bezala, badiatik ikusten baita. Gainera, lursail beraren elementu naturalen balioa, garai jakin bateko berezko arkitekturaren balorazioarekin batera.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R27

Elementua

ETXEA POLICARPO BALTZOLA,
15ean, "MARIA LUISA ETXEA"

Elementu-mota

Hiri etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1920-21

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Calle Policarpo Baltzola, nº 15

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Eraikinak erdisotoa, goiko 2 solairu eta teilatupea du. Bi isurkiko estalkia du eta fatxada nagusiarekiko perpendikular doan gailurra. Arkitektura erregionalista batean oinarrituz eraikita dago, bai egituran eta bai materialei dagokienez. Jatorrian familia bakarreko etxebizitza izan zen eta, egun, Musika Udal Fundazioaren egoitza da eta inguratzen duen lorategia Mendibil parkea da. Bigarren eraikina, atezain funtzioa betetzen zuena eta lorategiaren sarreran kokatzen dena, egun hartzaindegia da. Aipatu zabaltze lanak, osorik, erdisotoko solairuan egin dira, jatorrizko bolumenari bere ezaugarri bolumetrikokoak mantentzeko aukera ematen diotelarik.

Ezaugarri historikoak

1987

Kontserbatorio gisa moldatzeko proiektua.

2002-2005 Alberto Pombo

Zabaltzea-Berritzea

1920-1921 Luis Vallet

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Azpimarratzeko da familia bakarreko etxe honetan lursailean duen kokapena, baita dagoen landaretza ere. Eraikinaren balioa areagotzen laguntzen baitute. Berezko balioak gehiago du arkitektura mota batekoa izateagatik, izan ere, etxebizitza isolatuei batez ere erantzun bat eman nahi izan zitzaion.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R28

Elementua

ETXEA GUDARI KALEA, 14an

Elementu-mota

Hiri etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1923

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea

5.2.14

Kokapena

Calle Gudari, nº 4



DESKRIBAPENA

Deskribapena

3 altuerako eraikina da Gudari kalera ematen duena, eta 4 altuerakoa, atzealdeko lorategira ematen duena, lurraren orografia delarik horren arrazoia. Bi isurkiko estalkia du eta fatxadarekiko perpendikular doan gailurra. XX. mende hasierako estilokoa da, estilo erregionala berreskuratzen saiatu zena. Eraikuntza asimetrikoa ageri du. Harlangaitzeko hormez eta barnealdeko egitura egurrez eraiki zen. Estalki handia nabarmentzen da, eraikinaren bolumentu definitzen duena.

Ezaugarri historikoak

1923 Jose Elizalde

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Bere bolumentu eta lursaileko kokapena azpimarragarria da. 20. hamarkada aldera zabaldu zen arkitektura baten beste adibide bat da.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R29

Elementua

ETXEA GUDARIA KALEA, 2an
"CARMEN ETXEA"

Elementu-mota

Hiri etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1913

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Calle Gudari, nº 2

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Planta karratuko eta lau altuerako eraikina, horietako azkena mansardatua. 2005ean berreraiki da, jatorrizko fatxadaren bolumetria eta egitura gordez. Baok dituzten azpaduretan hareharri txapeatuzko apaingarriak ageri dira, sarrerako fatxadaren miradoreetan eta izkinetan bezala, hori guztia jatorrizko eraikinaren harlandua gogoratuz.

Ezaugarri historikoak

2005

Birrerakuntza

1913 Pedro de Aristegi

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean. Duela gutxi goitik behera berrituta.

ERREGULAZIOA

Babesa

Ingurumen Babesa

Iruzkinak

- Eraikin xume baten aurrean aurkitzen gara konposizioari era eraikuntzari begiratuz gero. Bolumen kubikoa nagusi da frantses estiloko arkitekturarekin. Duela gutxi bota egin da eta ondoren berreraiki, kanpo aldetik jatorrizko eraikinak zeukan itxura bera gordez.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:

Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R30

Elementua

IRU-BIDE ETXEA

Elementu-mota

Hiri etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1931

Lurralde Unitatea

6.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Calle Olaketa, nº 1

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Eraikin honek behe solairua, lehena eta teilatupea du. Lurraren desnibelak ahalbidetzen dio erdisoto solairu bat edukitzea garaje bezala erabiltzeko, lorategitik sartuta. Estalkia asimetrikoa du, bi isurkikoa, eta gailurra ipar-mendebaldera jotzen duen fatxada nagusiarekiko perpendikularra da. Etxerako sarrera aterpe baten bitartez egiten da eta behe solairuaren eta erdisotoaren tarteko maila batean kokatzen da. XX. mende hasierako estilokoa da, nekazal giroko eraikuntzetan oinarritutako estilo erregionala berreskuratzen saiatzen zena; horregatik ageri dira hainbat elementu, adibidez, egurrezko balaustradak, fatxadako dekorazioak egurrezko bilbadurak imitatuz, egurrezko kontra-leihoak... Harlangaitzezko hormez eraiki zen eta barneko egitura egurrezkoa da.

Ezaugarri historikoak

1931 Jose Luis Recarte

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturezko Kontserbazioa

Iruzkina

- Familia bakarrarentzat sortutako etxea, lursail handi baten barnean. Bere presentziak inguru hurbila dominatzen du. Euskal erregionalismoak berezko duen hizkuntza formala.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.

Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R31

Elementua

MONTANO ETXEA

Elementu-mota

Hiri etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1925

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Calle Zuberua, nº 10

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Etxe hau, Luis Vallet-ek proiektatu zuen eta berak erabiltzeko zen. Eraikinak behe solairua, lehen solairua eta teilatupea du. Lurraren desnibelagatik erdisoto solairu bat edukitzea ahalbidetzen du, lorategiko ipar-ekialdeko fatxadan ikus daitekeenez. Mendibil auzoan kokatzen da. Estilo eklektikoa du, tradizio arkitektoniko anglosaxoiaren erreferentziekin, "bow-windows" kasuan. Arku kanopial eta behekatuak daude, bai harlanduzko piezetan eta bai bilbaduran. Estalkiak mugimendu bat erakusten du, hegal nagusien aldapa, gorputz erantsi eta petoen aldaerarekin.

Ezaugarri historikoak

1925 Luis Vallet

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkina

- Lorategia duen lursail batean konkapan zentratua. Eraikuntza eta estilo xehetasunak erabakitzerakoan kalitate bikaina.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R32

Elementua

FORUEN KARRIKA, 5

Elementu-mota

Etxebizitza eraikina

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1883

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Calle Fuegos, nº 5

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Etxebizitza eraikina, 4 altuerakoa eta Foruen karrika eta Legia karriken arteko izkinan kokatua. Jatorrizko eraikuntzatik behe solairua bakarrik geratzen da, 1939an berreraikia izanik. Fatxadaren konposizioa oso ordenatua da, bao bertikalen eta lerro horizontalen bitartez, tradizio neoklasikoari erantzunez, eta izkinak garrantzia hartzen du bere balkoi jarraitu eta burdinazko lanekin.

Ezaugarri historikoak

1939 Jose Luis Recarte

Birrerakuntza

1883 Ezezaguna

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Eraikin hau, Irungo herriak aurreko trazatu urbanoak gogoratzen egiten duen ahaleginaren erakusgarri da, horietako asko Espainiako Gerra Zibilean desagertu ziren arren.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R33

Elementua

LEGIA KARRIKA 4

Elementu-mota

Etxebizitza eraikina

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1926

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Calle Legia, nº 4

DESKRIBAPENA

Deskribapena

4 altuerako eraikina, mehelinean artean. Planta karratua ageri du, maila bakoitzean orientazio bikoitzeko etxebizitza batekin. Konposizio simetrikoa du hiru ardatzen bitartez, baoak bertikalki antolatzen baitituzte, eta balkoi jarraituen bitartez, konposizioa horizontalki antolatzen dutelarik. Baoen azpaduretako dekorazioa eta forja azpimarragarriak dira. Mendialdeko erregionalismoaren adibide ona da.

Ezaugarri historikoak

1926 Jose Angel Fernandez de Casadevante

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Etxebizitzak. Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Konposizio orekatua fatxadan, osotasunezko tratamenduarekin, elementuaren batasuna lortzeko. Baoen diseinua solairuen eta erabileren hierarkiaren arabera da, bakoitzaren xehetasunari jarraituz gero.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R34

Elementua

HONDARRIBIA KALEA, 39-41

Elementu-mota

Etxebizitza eraikina

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1927

Lurralde Unitatea

3.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Calle Fuenterrabia, nº 39-41

DESKRIBAPENA

Deskribapena

5 altuerako eraikina, bi ezkaratzekin, bolumen bakarra osatuz. Eraikinaren proiektua egin zenean behe solairua + 3 izan zen, baina azkenean altura bat gehiago eraiki zen. Fatxada nagusiak simetriazko ardatza ageri du 39 eta 41. zenbakiek konpartitzen duten mehelinean. Bere konposizioan basamendu bat bereizten da, behe solairuari dagokiona, gorputz nagusia, lehen solairutik hirugarrenera doana, eta goikoa, 4. solairuari dagokiona. Ezkaratz bakoitzak bi etxebizitza ditu solairuko.

Ezaugarri historikoak

1927 Jose Angel Fernandez de Casadevante

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Nortasun propioa mantentzen du, etxebizitzaren bloke isolatu gisa, Hondarribia kalean bereizgarri egiten dutelarik.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R35

Elementua

RAMUNTZO TRINKETA

Elementu-mota

Hiri etxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1926

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Avenida de Iparralde, nº 12

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Trinket gisa erabiltzeko eraikitako eraikina, gorputz nagusia, trinketari berari dagokiona, eta alboko gorputza, etxebizitza, duena. 1917ko kongresuaren ondorengo garaiko joera erregionalistak jasotzen dituen eraikina da.

Ezaugarri historikoak

1933

Birmoldaketa

1926

Luis Vallet

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Proiektatu zenean zeukan egitekoa galdu duen arren, kanpoko konfigurazioa gorde egin da. Lursailleko kokapena zertxobait atzeratua du kalearen lerrokadura orokorrarekin alderatuta, horrela, sarrerako espazioan irabazten duelarik.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R36

Elementua

IPARRALDE HIRIBIDEA, 14

Elementu-mota

Etxebizitza eraikina

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1911

Lurralde Unitatea

5.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Avenida de Iparralde nº 14

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Etxebizitzen eraikina, bakarra, 4 solairu eta teilatupearekin. Estalkia lau isurkikoa du. Ondoko eraikinei lotu gabe egoteak ezaugarri atipikoa ematen dio Irungo tramari begiratuz. Fatxadaren konposizioa simetrikoa da. 4 ardatz bertikal ditu, ertzetan banakako balkoiekin eta balkoi bikoitza erdiko hutsuneetan. Fatxada nagusiaren kuxindura azpimarragarria da. Tratamendu hau fatxadaren aldamenetara bakarrik doa, izkinetan. Gainera, kuxinduraren hizkuntza astunaren gainetik erreminta-lanen berezitasuna nabaria da.

Ezaugarri historikoak

1911 Pedro de Aristegi

Gauregungo egoera

Etxebizitzak. Kontserbazio egoera onean.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Iparralde hiribideko fatxada bereizgarria, fatxadaren testurarekin, balkoietako erremintalanak eta errematea bi pinoi simetrikoetan egiten duela ardatz zentralaren arabera.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R37

Elementua

"PIO BAROJA" IRAKASKUNTZA
ERTAINETAKO INSTITUTUA

Elementu-mota

Irakaskuntza Ertaineko Institutua

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1964

Lurralde Unitatea

5.1

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Calle Elkano, nº 2

DESKRIBAPENA

Deskribapena

"L" forma duen eraikina, eskolak emateko erabiltzen dena. 3 gorputz nagusi ditu, estalki lauetan amaituta. Sarrera nagusiak aterpeen bitartez eratzen dira, behe solairua iragazkorra egiten dutelarik. Lerro horizontalek dominatzen dute fatxaden konposizioa.

Ezaugarri historikoak

1964 Alvaro Livano

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Kontserbazio egoera onean

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkinak

- Ikastetxea, dagokion erabilerarako konfigurazio espazial egokia duena, ondoko espazio libreek bezala.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

R38

Elementua

"HERMANOS ITURRINO"
ANBULATORIOA

Elementu-mota

Osasun Zentroa

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

1954

Meaka auzoan kokatzen den baserria. Planta laukizuzenekoa da, iparraldetik neurri txikiagoko eranskin batekin, mendebaldeko hormaren aprobetxamendua konpartitzen dutelarik. Bi altuera eta ganbara dauzka bi gorputzetan. Egurrezko estalkia du, bi isurkikoa, eta gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra. Ekialdeko fatxada nagusiko parte handi batean eta hegoaldeko fatxadako hormak harlangaitz zarpiatutakoak dira eta izkinak hareharri landuzkoak. Fatxada nagusiaren gainerakoan eta ipar eta mendebaldeko fatxadetan ageriko harlangaitza ikusten da.

Ezaugarri historikoak

XVI. mendea

Jatorrian baserria izan zen, horren aztarna gutxi geratzen den arren, agian mendebaldeko fatxada.

XIX. mendea

Egituraren gainerako egin zen.

Gauregungo egoera

Ukuilua

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Balizko Arkeologiko deklaraturako zonaldea, Euskadiko Elkarte Autonomoak, (1997-09-11ko ebazpena) (1997ko urriaren 30eko 208. EHAO).
- Eusko Jaurlaritzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.

Bibliografia

- Meaka, Aiako Harriko parke naturalaren ataria. Meakako ibarra parkearen atari-aurrea. Nekazal munduko ondarera hurbilketa. Arantzadi. 1999.
- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A16

Elementua

OIARTZABAL

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Meaka D, 32



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Planta laukizuzeneko eraikina, teilatua bi isurkikoa eta gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra. Bi solairu eta teilatupea ditu. Behe solairuan harlangaitzezko hormez eraikia, eta egurrezko bilbadura lehen solairuan eta teilatupean. Sarrerako atea egurrezko ateburuaren bitartez egituratzen da. Baoen antolaketa bilbadurak markatutako erritmoan moldatzen da.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Eusko Jaurlearitzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.

Bibliografia

- Meaka, Aiako Harriko parke naturalaren ataria. Meakako ibarra parkearen atari-aurrea. Nekazal munduko ondarera hurbilketa. Arantzadi. 1999.
- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A17

Elementua

IBARROLA

Elementu-mota

Dorretxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

7.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Barrio Meaka I, 13

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Meaka auzoan kokatzen den eraikina, izen bereko errota zaharraren ondoan, planta laukizuzenekoa: 7,05 x 5,10 m plantan eta 9 m. altueran. Hiru altuerakoa da eta estalkia lau isurkikoa. Barnetik erabat berrituta eta kanpo aldetik paramentuak zarpiatuta. Izkinetako harlanduzko kateak izan ezik, bere benetako balioa ez da antzematen.

Ezaugarri historikoak

XV-XVI. amaier

Eraikuntza

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturata dago (A mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.

Bibliografia

- Meaka, Aiako Harriko parke naturalaren ataria. Meakako ibarra parkearen atari-aurrea. Nekazal munduko ondarrera hurbilketa. Arantzadi. 1999.
- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

A18

Elementua

ARANBURU

Elementu-mota

Oinetxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia**Lurralde Unitatea****Egikaritze Unitatea**

R9.1.02

Kokapena

Barrio Olaberria D, nº 63

**DESKRIBAPENA****Deskribapena**

Bi altuerako eraikina, estalkia lau isurkikoa. Harlangaitzezko hormez eraikita dago, izkinetan eta bao batzuetako azpaduretan harlandua nabarmenduz, baita Irun aldera Olaberria ibarra dominatzen duen ipar-mendebaldeko fatxadan sarrerako arkuan ere. Armarria du. Goitik behera berritu da eta hormigoizko egitura berregin zaio eta atze aldeko fatxada erabat berritu da.

Ezaugarri historikoak**Gauregungo egoera**

Etxebizitza

ERREGULAZIOA**Babesa**

Kontserbazio Partziala

Iruzkina**Bibliografia**

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A19

Elementua

GORROAGA

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

R9.1.02

Kokapena

Barrio Olaberria D, 66



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Bi altuera eta teiltupea duen eraikina, estalkia bi isurkikoa eta gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra (ipar-mendebaldean). Horma perimetralak harlangaitzezkoak dira eta izkinak hareharri landuzkoak. Bi isurkiko estalki beraren azpian bi eraikuntza desberdin bereizten dira, forjatuen jarraipenean etena dagoelako. Bi eraikuntzek egurrezko bilbadura ageri dute fatxada nagusiaren goi aldean.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Eusko Jauraritzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrasto eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A20

Elementua

IGIÑIZ

Elementu-mota

Etxe Armarriduna

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

R 9.1.02

Kokapena

Barrio Olaberria D, 36



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Planta laukizuzeneko eta tamaina handiko baserria, Olaberria auzoaren sarreran kokatuta, nolabaiteko zonalde lauan, beste eraikin interesgarri batzuen ondoan, esaterako, Santxotenea Errota eta Beltranenea baserria. Eraikina bere tamaina handiagatik nabarmentzen da eta fatxada nagusian egurrezko bilbadura eta aterpea duelako. Egitura perimetralean harlangaitzezko hormak ditu, izkinetan eta bao batzuen azpaduretan harlanduarekin. Eraikinaren barne aldean, duela urte batzuk, egurrezko egitura kendu eta hormigoizko beste egitura bat jarri zitzaion.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Ukuilua

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Badu proposamena Euskadiko Ondare Kulturalaren 7/1990 Legearen bitartez babestua izateko (Monumentu Kalifikatu eta Inbentariatuak).

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A21

Elementua

ZAMORA

Elementu-mota

Oinetxea

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

R9.1.02

Kokapena

Barrio Olaberria D, 65 y 67



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Olaberria ibarra dominatzen duen kasko batean dagoen baserria. Bere tamaina handia nabarmena da. Planta laukizuzena du eta bi solairu eta teilatupea. Egurrezko estalkia bi isurkikoa da eta gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra. Egitura perimetralean harlangaitzezko hormak ditu, izkinetan eta bao batzuen azpaduretan harlanduarekin. Hainbat elementu ageri ditu, adibidez, hormigoizko eskailera, fatxada nagusiari erantsiak, bere jatorrizko itxura eraldatzen dutenak. Fatxada horrek egurrezko bilbadura ageri du, zeina mortairuzko zarpiatuaren bitartez ezkutaturik geratzen den.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Badu proposamena Euskadiko Ondare Kulturalaren 7/1990 Legearen bitartez babestua izateko (Monumentu Kalifikatu eta Inbentariatuak).

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A22

Elementua

ZABALETA

Elementu-mota

Baseria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

2.1

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Katea auzoa, 97

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Katea auzoan dago eraikin hau, izena ematen dion muinoan (Zabaletako gaina). 1580. urtean aipatzen da jada eta Isastiren bilduman oinetxe gisa ageri da. Oin laukizuzena du, tamaina handikoa, jatorrizkoak izan dituen handitzeen ondorioz. Zurezko estalkia du, bi isurikoa, eta gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra. Gorputz nagusiak landu gabeko harriz eginiko egitura du, harlanduak kantoietan eta atzealdeko fatxadako bao batzuen inguruan. Alboetako gorputzak geroago erantsiak dira; horietan Hegoaldekoa gorputz nagusiaren irizpide berdinekin eraikia da eta Iparraldekoa, berriz, hormigoizko egiturarekin.

Ezaugarri historikoak

1580

Aipatua

Gaur egungo egoera

Bigarren etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Maila Partziala

Iruzkina

Bibliografia

- Irungo zazpi auzoak (L.U.K.T.) Irun. 1998ko abendua. Antonio Aranburu Peluaga.
- Gipuzkoako Artxibo Orokorra (PT 902, 288 r-290 vº)

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A23

Elementua

ARANIBAR ZAHAR

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

2.1

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Urbanización Jaizkibel, 1

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Bi solairu eta teilatupea duen eraikina, estalkia bi isurkikoa eta gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra. Horma perimetralak harlangaitzezkoak dira, eta baoen azpaduretan eta izkinetan hareharri landuzko xehetasun lobulatuak ditu. Fatxada nagusian (hego-ekialdean) atari handia eta goiko solairuko kanpoko egurrezko bilbadura azpimarratzekoak dira.

Ezaugarri historikoak

Gaur egungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Eusko Jaurlearitzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.
- N-1 errepidea zabaltzen denean, errepide hau egun dagoena baino askoz ere gertuago egongo da eraikin honetatik.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A24

Elementua

MOKOZORROTZ

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Zehaztu gabe

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Katea / Ventas, 41



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Bi altuera eta teilatupea dituen eraikina, altuera txikikoa, planta laukizuzenekoa eta teilatua bi isurkikoa, gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra duelarik. Fatxada nagusia egurrezko bilbaduraz egina dago altuera osoan, eta haize-babeseko horma handiez markatuta geratzen da. Jatorrizko aterpea itxita dago.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Dezente hondatuta

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Eusko Jaurlearitzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.
- Moko zorrotzeko Plan Bereziaren eremuan sartuta dago. Idazketa fasean dago.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.
- "Moko zorrotz Errekako Korridore Berdea" Plan Berezia. 2008ko otsaila. Francisco de Leon, Arquitectura y Urbanismo S.L.

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

A25

Elementua

OLAKIÑETA

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia**Lurralde Unitatea****Egikaritze Unitatea****Kokapena**

Barrio Katea / Ventas, 29

**DESKRIBAPENA****Deskribapena**

Olaberria ibarra eta Lapitze auzoaren artean dagoen baserria, Elatzeta mendiaren hegoaldera dagoen ibar txiki batean, Santiago Bidearen ondoan. Planta laukizuzena du eta bi solairu eta teilatupea. Estalkia egurrezkoa da, bi isurkikoa, gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra. Azpimarratzeko da fatxada nagusiko egurrezko bilbadura. Egitura perimetralean harlangaitzezko hormak ageri ditu, izkinetan eta bao batzuen azpaduretan harlanduarekin.

Ezaugarri historikoak**Gauregungo egoera**

Etxebizitza

ERREGULAZIOA**Babesa**

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Badu proposamena Euskadiko Ondare Kulturalaren 7/1990 Legearen bitartez babestua izateko (Monumentu Kalifikatu eta Inbentariatuak).

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A26

Elementua

ENPARAN

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

2.1

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Katea auzoa, 103

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Katea auzoan dago eraikin hau, "Zabaletako Gaina" muinoaren Iparraldeko hegalean. Isastiren bilduman oinetxe gisa ageri da. Oin laukizuzena du, tamaina handikoa. Bi solairu eta estalkipea ditu. Zurezko estalkia du, bi isurikoa, eta gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra. Hormak landu gabeko harrizkoak kantoietan harlanduarekin.

Ezaugarri historikoak

1962

Berritze lan txikia

1971

Berritze lan txikia

Gaur egungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Maila Partziala

Iruzkinak

Bibliografia

- Irungo zazpi auzoak (L.U.K.T.) Irun. 1998ko abendua. Antonio Aranburu Peluaga.
- Udal Artxiboko dokumentazioa 1942ko (1381/4) eta 1971ko berritze lanena (6061/20).

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

A27

Elementua

TXUMARRAGA

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia**Lurralde Unitatea**

2.2

Egikaritze Unitatea**Kokapena**

Calle Olakineta, nº 9

DESKRIBAPENA**Deskribapena**

Bi altuera eta teiltupea duen eraikina, estalkia bi isurkikoa eta gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra. Harlangaitzezko hormez eraikita dago eta jatorrizko eraikinari gorputz batzuk erantsita ditu. Fatxada nagusiko goiko solairuak egurrezko bilbaduraz eginak daude.

Ezaugarri historikoak**Gauregungo egoera**

Etxebizitza

ERREGULAZIOA**Babesa**

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak**Bibliografia**

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A28

Elementua

ALTZUBIDE

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Lapitze, 7



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Lapitze auzoan dagoen etxea, 1625ean armarridun oinetxe gisa jada ageri dena. Behe Erdi Aroko dorretxea zen, toki estrategikoan kokatua eta komunikabide garrantzitsuen ondoan, eginkizun militarrik eta bizitoki funtzioa konbinatuz. 1881ean erre egin zen, beraz, egungo eraikina ondoren berreraiki zen. Egungo baserriak harlanduez aztarnak kontserbatzen ditu atze aldean itxita dagoen arku dobelatu batean, bao batzuen azpaduretan, hauek ere itxita, eta izkinetan. Eraikina planta laukizuzenekoa da eta estalkia bi isurkikoa, eta izen bereko errotaren ondoren kokatuta dago. Bi altuera eta teilatupea du.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Teilatua duela gutxi berritu da. Gainerakoak ez du kontserbazio egoera ona erakusten.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturik dago (A mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A29

Elementua

ALTAMIRA

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Lapitze, 18



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Planta laukizuzeneko eraikina eta estalkia bi isurkikoa, izen bereko mendia kokatuta eta erromatarren garaiko meategi batzuetatik gertu, 100 bat metrora. Bi altuera eta teilatupea du. Atzealdeko fatxadan harlanduzko arkua nabaria da. Izkinetan ere harlanduzko piezak ageri dira, horietako batzuk harlangaitzezkoak direlarik. Eraikinak, barnealdeko egitura eta estalkia hormigoizkoak ditu.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturik dago (A mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A30

Elementua

TONPES

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

2.1

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Pozuetakogaina, 14

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Planta laukizuzeneko eraikina eta estalkia bi isurkikoa, Letxunborro hiribidea eta Urdanibia auzoaren artean kokatzen dena. Tamaina handiko eraikina da, planta laukizuzeneko eta bi solairu eta teilatupearekin. Egurrezko estalkia du, bi isurkikoa, gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra. Horma perimetralak harlangaitzezkoak dira, eta izkinak eta fatxada nagusiko behe solairuko baoen azpadurak harlanduzkoak dira.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturuta dago (A mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A31

Elementua

BELTRANENEA

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Olaberria I, 45



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Planta ia laukizuzena duen eraikina, estalkia bi isurkikoa, Olaberria auzoan kokatua, Igiñiz baserriaren eta Aranburuko Errotaren inguruan. Tamaina txikiko eraikina da, bi solairu eta teilatupearekin. Estalkia egurrezkoa du, bi isurkikoa, gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikularra. Horma perimetrala harlangaitzekoa da eta izkinak, eta ekialdeko fatxadan, behe solairuan dagoen arku dobelatua, harlanduzkoak dira. Hegoaldeko fatxada, non bao kopuru handiena duen, aldameneko hormen luzapenek babesten dute. Eraikinak, gaur egun, gorputz erantsi pila ageri du, jatorrizko itxura eraldatuz.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Duela gutxi bota egin da eta birreraikitze fasean dago.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturata dago (A mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A32

Elementua

MAKATZONDO

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Meaka D, 40



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Planta laukizuzeneko eraikina, estalkia bi isurkikoa. Bi altuera eta teilatupea du. Egungo eraikina, duela 15-20 bat urte eginiko berritze proiektu baten emaitza da, non eraikinaren egitura oso-osorik berritu zen, barnealdeko egitura eta baoak aldatuz, nahiz neurri batean itxurak gorde ziren. Beraz, egun, 8 dobelako "canapel" arku bat giltzarriduna ikus dezakegu hareharri landuan egina, iparraldeko fatxadan kontserbatzen dena. Bere kokapena eta itxura Burutaran baserrian dagoenaren antzekoa da. Baoaren tipologiagatik XVII. mendean kokatzen da.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Eusko Jaurlearitzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.
- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturata dago (A mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.

Bibliografia

- Meaka, Aiako Harriko parke naturalaren ataria. Meakako ibarra parkearen atari-aurrea. Nekazal munduko ondarrera hurbilketa. Arantzadi. 1999.
- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.

Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

A33

Elementua

TXIMISTA

Elementu-mota

Baseria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia**Lurralde Unitatea****Egikaritze Unitatea****Kokapena**

Barrio Olaberria D, 78

**DESKRIBAPENA****Deskribapena**

Planta laukizuzeneko eta tamaina handiko baseria, Olaberria auzoaren barnealdean kokatua, Urunko parajea dominatzen duen zonalde altu samarrear. Eraikina azpimarragarria da bere fatxada nagusiagatik, egurrezko bilbadurak dituelako fatxadan eta xehetasun trilobulatuak izkinetan. Egitura perimetralean harlangaitzezko hormak ditu, izkinetan eta bao batzuetako azpaduretan harlanduarekin.

Ezaugarri historikoak**Gauregungo egoera**

Etxebizitza

ERREGULAZIOA**Babesa**

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Eusko Jaurlaritzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.

Bibliografia

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A34

Elementua

ARBELAIZTXIPI

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia**Lurralde Unitatea****Egikaritze Unitatea****Kokapena**

Barrio Meaka D, 38



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Planta laukizuzeneko eraikina, bi solairu eta teilatupearekin, eta gailurra, fatxada nagusiarekiko perpendikularra. 1999an goitik behera berritu zen, kanpoaldeko kaxa mantenduz. Azpimarratzekoa da alboetako hormak mantendu izana, harlanduzko hegada trilobulatuez amaituta baitaude.

Ezaugarri historikoak**Gauregungo egoera**

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Eusko Jaurlaritzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.

Bibliografia

- Meaka, Aiako Harriko parke naturalaren ataria. Meakako ibarra parkearen atari-aurea. Nekazal munduko ondarrera hurbilketa. Arantzadi. 1999.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A35

Elementua

ALTZOLARAN

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

1.2

Egikaritze Unitatea

1.2.02

Kokapena

Araba Kalea, 40



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Bi solairu eta teilatupea dituen eraikina. Eraikuntza atxikiak ditu bai fatxada nagusian eta bai atzealdeko erdialdean, bere jatorrizko itxura galduz. Gorputz nagusiak bi isurkiko teilatua du. Fatxada nagusiko behe solairua harlanduzkoa da, izkinak ere hala direlarik, non xehetasun bilobulatuak dauden. Gainerako paramentuak zarpiatuta eta margotuta daude. Lehenengo solairua irtena dago behe solairuarekin alderatuz, eta jatorrizko balkoia desagertu egin da.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitzak

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Eusko Jaurlearitzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.
- Plangintza Orokorren berrikusketan "Araba" R 1.2.02 esparruan sartuta dago.

Bibliografia

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

A36

Elementua

PEDRONEA

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia**Lurralde Unitatea****Egikaritze Unitatea****Kokapena**

Barrio Olaberria I, 43

**DESKRIBAPENA****Deskribapena**

Bi altuera eta teilatupea duen eraikina, Olaberriako errepide ondoan kokatua. Bi isurkiko estalkia du eta, gailurra, fatxada nagusiarekiko perpendikularra, ipar-mendebaldera begiratzen duena. Fatxada horrek egurrezko bilbadura ageri du goiko solairuetan. Kubo perimetralaren gainerakoa harlangaitzekoa da, errekarri gorrixkaz egina.

Ezaugarri historikoak**Gauregungo egoera**

Etxebizitza

ERREGULAZIOA**Babesa**

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Eraikina duela gutxi goitik behera berritu da eta bai barnealdeko egurrezko egitura eta bai horma perimetralak lehengo egoeran mantendu ditu, junturak berdindu eta zarpiatzea izan ezik. Estalkia oso-osorik aldatu da eta aurreko egoera ia erabat mantendu du. Behe solairuan gorputz erantsiak ditu, eraikin nagusiak dituen harlangaitz berak erabiliz eraikiak.

Bibliografia

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

A37

Elementua

LABEKOETXEA

Elementu-mota

Baserria

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Olaberria I, 43



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Pedroenea eta Beltranenea baserrien artean dagoen eraikina, Olaberria ibarrean. Bi altuera eta teilatupea du, eta gailurra, fatxadarekiko perpendikularra. Auzokoa duen Pedroenea baserriak bezala, horma perimetralak harlangaitzezkoak dira, errekarri gorrixkaz egina, eta fatxada nagusiaren goiko solairuetan egurrezko bilbadura ageri du.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Jatetxea

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

Bibliografia

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

C1

Elementua

ALTZUBIDE

Elementu-mota

Burdinola-errota multzoa

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Erdi Aroa eta Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Lapitze, 6



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Altzubide multzoa Lapitze auzoan dago, Zubeltzu mendiaren oinetan eta Altzubide erreka ondoan. Egun, toki horretan baserri bat dago, lehen errota izan zena eta hori baino lehen ola, Zeina 1518an aipatua den. 1638an desagertu zen ola. Eraikinak ez du interes handiegirik, bere fisonomian baserri arrunt bat besterik ez da, alegia hiru solairuko eraikina da, harlangaitzean egina eta bi isurkiko teilatua. Presa kontserbatzen du, eraikinaren ondoan kokatua, ekialdeko fatxadatik. Presa hori tamaina handikoa da eta hormak harlanduzkoak ditu eta duela urte gutxira arte funtzionamenduan egon da. Hustubidearen arkuarekin hareharri landuz fabrikatuta dago eta oso beheratuta dago. Barnean kontserbatzen dira, bere tokian, bai makinaria eta bai gurpilak egoera onean. Bi pare harri zeuzkan, burdinazko 2 errotorez eragiten direnak, eta egurrezko ardatzak.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturik dago (D mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.
- A.H.T.ren trazatuaren aurreproiektua kontuan hartzen bada, zonalde honetan obrek eragina izango dute.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.
- Txingudiko Inguru Fisikoaren Ikerketa. Arantzadi. 1983 - Udal Liburutegiko artxiboa.
- Gipuzkoako olak. Ikuspegi sozio-ekonomikoak, laboralak eta fiskalak (XIV-XVI. mendeak)- Luis Miguel Díez de Salazar Fernandez.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

C2

Elementua

ARANTZATE

Elementu-mota

Burdinola-errota multzoa

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Erdi Aroa eta Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Meaka D, 102



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Olaren antepara osorik kontserbatzen da, beranduago mearen garbitokia jartzeko balio izan zuena, aipatu olaren energia hidraulikoaren sistema berraprobetxatuz. Bertan ikus daitezke burdinola izan zitekeenaren markak, bota egin zelarik, eta bere tokian Ola baserria eraiki. Antepara nahiko ongi kontserbatuta dago, 10-12 m-ko altuerarekin. Gainaldean erregulazio-presa ikusten da, kontrahormez eutsita. Kanalaren trazatua ere kontserbatzen da, arrokan partzialki zulatua, bi eta lau metro arteko zabalera duena eta malda erdian doana, urak gorago hartzen dituelarik. Ibaian gora lodiera handiko bi horma ikusten dira, presa edo ura jartzeko dikea izan daitekeena. 1998an baserri hori bota egin zen eraikin berri bat egiteko eta instalazioak sagardotegi bihurtu ziren. Garai horretan esku-hartze arkeologikoa egin zen eta antzinako burdinolaren tailerraren arrastoak aurkitu ziren.

Ezaugarri historikoak

1476

Dokumentuetan lehen aipamena.

Gauregungo egoera

Etxebizitza-Sagardotegia

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Osoa

Iruzkina

- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturik dago (D mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.

Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.
- Txingudiko Inguru Fisikoaren Ikerketa. Arantzadi. 1983

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

C3

Elementua

ENDARA

Elementu-mota

Burdinola-errota multzoa

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Erdi Aroa eta Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

-

Kokapena

Junto a la Iglesia Endarlatsa (Barrio Bidasoa nº 43)



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Egun kontserbatzen diren hondakinak ibaiko errota batenak dira, C-133 eskualdeko errepide ondoan aurkitua, justu Endara erreka gainean Nafarroarekin muga egiten den tokian, Endarlatsa deitzen den puntuan. Lehenik eta behin burdinola izan zen eta, beranduago, bere instalazioak berrerabili egin zituzten errota gisa eta, ondoren, zentral elektriko gisa. Aipatu burdinolaren lehenengo erreferentzia zeharka ematen da, alegia, 1588an Irun eta Lesaka bereizten zituzten mugarriak errekonozitzearen ondorioz aipatu zen. Eraikinak kontserbazio erregularra ageri du. Arkitektura tradizionalako eraikina da eta planta laukizuzeneko da, bi solairu eta teilatupearekin. Teilatua bi isurkikoa da. Bere hormak partzialki luzitutako harlangaitzezkoak dira eta izkinetan harlandua ageri du. Antzinako burdinolaren antepararen parte bat kontserbatzen du, kontrahorma batez (7,5x4,85x4) bereizitako bi salto dituelarik. Hormak harlanduzkoak dira, 1,20 m. zabalekoak. Antepararen azken zatiko tunela edo estolda berraprobetxatu egin da errotape gisa eta horren gainean errota eraiki zen. Egun, errotapera sar daiteke dintela duen isurbide txiki batetik (3,55x0,75x0,94). Estoldaren luzera 6,8 metrokoa da, faktura desberdineko bi zatitan banatuta, antepararen parte bat aprobetxatzearen ondorioz, beranduago tramo bat erantsi zaiolarik. Grabitate presa ere kontserbatzen da, ibaian gora 150 bat metrora dagoena, ibilguaren perpendikular, egur tratatukoa, azaleko 11 taulak kontserbatzen dituelarik, burdinazko iltzeekin eta estribu batzuekin. Ondoren egin zaizkion berrerabiltzeen ondorioz, egitura berriak erantsi izan zaizkio, alegia: harri eta zementuzko beste presa bat, erregulazio-presat bat eta kanal bat. Kanaletik gordetzen den bakarra presa ondoan dagoen pareta da, eta kanalaren zati bat ere bai, anterapatik berraprobetxatua burdinolarako, zeinaren hormak harlanduzkoak diren.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Biltegia

ERREGULAZIOA**Babesa**

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Makinaria gordetzen duen eraikina, eta azpiegitura hidraulikoaren zatirik handiena Lesakako udalerrian kokatzen da.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

C4

Elementua

IBARROLA

Elementu-mota

Burdinola-errota multzoa

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Erdi Aroa eta Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

7.2

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Barrio Meaka I, 7

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Errota izan zela ezagutzen da, egun bizitoki moduan erabiltzen baita, eta izen bereko antzinako burdinolarekin zerikusia izan dezakeelarik. Meaka auzoan kokatzen da, izen bereko dorretxearen ondoan. Ibarrolako burdinolaren erreferentziak nahiko antzinakoak dira. Lehenengoak 1470ekoak. Eraikinak ez du gordetzen errota edo burdinola izan zeneko inongo elementurik, baina ura hartzeko kanalaren parte bat kontserbatzen du eraikinaren atze aldean, lur azpitik Ibarla errekarara joaten dena, errepidearen beste aldean kokatua.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturuta dago (D mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.
- Meaka, Aiako Harriko parke naturalaren ataria. Meakako ibarra parkearen atari-aurrea. Nekazal munduko ondarrera hurbilketa. Arantzadi. 1999.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

C5

Elementua

OLABERRIA

Elementu-mota

Burdinola-errotak multzoa

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Erdi Aroa eta Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

R9.1.02

Kokapena

Barrio Olaberria D, 26



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Bere garaietan, dirudienek, burdinola eta ondoren errota izan zen eraikina da. Perujaran harrobitik hurbil kokatzen da, Olaberriako errepide ondoan. Errotak 1975ean utzi zion lan egiteari. Orduetik kontserbatzen da ehotze-makinaria (turbina bat eta ehotzeko harri desberdinak). Antepara lurrez bete zen eta egun baratza da. Estoldaren dobelak harlanduzkoak dira, baita sarrerako eta leihoren bateko azpadurak ere.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturata dago (E mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.
- Eusko Jaurlaritzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.
- Txingudiko Inguru Fisikoaren Ikerketa. Arantzadi. 1983

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

C6

Elementua

ANTOJU

Elementu-mota

Ibai Errota

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Barrio Katea / Ventas, 39

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Errota eta atxikitako baserri multzoa, 1725ean jada aipatua dena, eta Katea auzoan kokatua, Elatzeta mendiaren oinetan, Moko zorrotz erreka ondoan. Ibaiko errota da, planta laukizuzenekoa eta teilatua bi isurkikoa, altuera bakarrekkoa eta hormak harlangaitzezkoak. Azpiegitura hidrauliko eta errotaren egitura osoa kontserbatzen du. Arku dobelatua ageri du, puntu erdikoa, ura irteteko. Presa kota altuagoan dago eta ibilguarekiko zeharka doa, kareharrizko harlandu handien fronte batekin. Zuzena da, ezponda eta estribuekin bi aldeetan, eta hortik kanala ateratzen da. Hau, 210 metro luzekoa eta presatik 1,19 metrora kokatua, arrokan zulatuta dago eta harlangaitz ilara batez gogortua. Presatik 70 metrora gainezkabide bat du. Antepara, etxe ondoan kokatua, harlangaitzezko hormekin, 10 metro hartzen ditu eta 40 metroko luzera eta 13 metroko zabalera du gehienez. Presatik errotara eramaten du ura tutu metaliko batetik.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza. Duela gutxi berritu da.

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Balizko Arkeologiko deklaraturako zonaldea, Euskadiko Elkarte Autonomoak, (1997-09-11ko ebazpena) (1997ko urriaren 30eko 208. EHAO).
- Eusko Jaurlaritzak udal/herriko intereseko izendatua eta agiri urbanistiko egokiaren katalogoaren bitartez babestu beharrekoa.
- A.H.T.ren eraikuntzaren aurreproiektuak eragina du.

Bibliografia

- Txingudiko Inguru Fisikoaren Ikerketa. Arantzadi. 1983
- "Tratado de Molinología". Antxon Aguirre Sorondo.
- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

C7

Elementua

ARANBURU

Elementu-mota

Ibai Errota

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Olaberria I, 59



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Ibaiko errota, 1625ean jada aipatua dena eta egun baserri bihurtuta. Olaberria erreka-urez elikatzen zen eta Aranburu baserritik hurbil dago. Errota, egun, deseginda dago eta baserriaren atze aldeko altxaerari itsatsita dago. Duela gutxi erre egin zen, eta harlangaitz eta ageriko adreiluaz eginiko eraikuntza txikia da. Bi altuera ditu eta teilatua hiru isurkikoa. Errotatik azpimarratzekoa da hustubidearen kamara, hareharri landuzkoa. Presa, parte batean lurrez estalia, 3 metro zabaleko hormarekin, harlangaitzekoa da eta ongi egindako harlanduzkoa. Olaberria erreka-urez elikatzen zen. Depositu bat bazuen, beharrezkoa zenean, erreka-ur guztia aprobetxatzen zuena.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Biltegia

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturik dago (D mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.

Bibliografia

- Txingudiko Inguru Fisikoaren Ikerketa. Arantzadi. 1983
- "Tratado de Molinología". Antxon Aguirre Sorondo.
- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:

Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFICACIÓN**Código avance**

C8

Elemento

URUNEA

Tipo Elemento

Molino Fluvial

Tipo Patrimonio

Patrimonio Histórico Arquitectónico

Cronología

Período Moderno

Unidad Territorial**Unidad de Ejecución****Localización**

Barrio Olaberria D, nº 62

**DESCRIPCIÓN****Descripción**

Hoy en día el molino está totalmente desmantelado y convertido en vivienda, no conservando a la vista ninguna infraestructura del antiguo molino. Sólo se conserva una piedra de moler. La vivienda es un edificio de dos alturas, de paredes de mampostería, todas ellas salvo la fachada principal donde aparece un entramado en la fachada de las plantas superiores. Se alimentaba con las aguas del Arroyo Malkorra, que pasa por su lado Oeste.

Características Históricas**Estado actual**

Vivienda

REGULACIÓN**Protección**

Nivel de Conservación Parcial

Criterios de consideración**Bibliografía**

- Catálogo del Patrimonio Arqueológico y Arquitectónico del término municipal de Irun. Julio de 2001. Catálogo Arquitectónico: Luis Sesé Madrazo y Asier Acuriola. Catálogo Arqueológico: Mercedes Urteaga Artigas y Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

C9

Elementua

ERROTABERRIA / SANTA ELENA

Elementu-mota

Ibai Errota

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Erdi Aroa eta Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

6.3

Egikaritze Unitatea

-

Kokapena

Ermita Karrika / Calle Ermita, 16

**DESKRIBAPENA****Deskribapena**

Ibaiko errota, Esterenkako errekaaren urez elikatzen zena, ezkerraldeetik igarotzen baitzen. 1541ean jada aipatua izan zen eta 1962 arte lanean jardun zuen, Santa Elenako iturriaren ondoan kokaturik. Egun, deseginda dago eta etxebizitza modura erabiltzen da. Anteparako hormak mantentzen dira eta kanalaren zati bat ere bai, Santa Elena ermitaren atze alderaino iristen baita.

Ezaugarri historikoak**1708**

Hondarribiko Akta Liburuan jasoa.

1934

Irina egiteko herriko errota bezala alta eman zioten eta hala jarraitu zuen 1961 arte.

1962

Azkeneko aldiz ehotzi zuen.

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA**Babesa**

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren xede den eremuan sartuta dago.
- Balizko Arkeologiko deklaraturako zonaldea (D mota), Euskadiko Elkarte Autonomoak, (1997-09-11ko ebazpena) (1997ko urriaren 30eko 208. EHAO).

Bibliografia

- Tratado de Molinología". Antxon Aguirre Sorondo.
 - Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
- Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

C10

Elementua

UGALDE

Elementu-mota

Ibai Errota

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

1.3

Egikaritze Unitatea

1.3.02

Kokapena

Elizatzko Hiribidea nº 53



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Ibaiko errota hidraulikoa da, 1625ean jada aipatua, azpiegitura hidrauliko osoa kontserbatzen duena (presa, kanala, depositua, saltoa eta hustubidea) eta ehotzeko makinaria ere bai, duela 20 urte utzi baitzion lan egiteari. Eraikin laukizuzena da, bi altuera eta ganbararekin eta teilatua bi isurkikoa. Harlangaitzezko hormak ditu, zuriz luzituak. Presa kontserbatzen du, grabitate motakoa, txikia baina egoera onean, lurrean zulatutako kanalarekin, 150 bat metro luzera eta 1,2 bat metro zabalekoa. Antepara kanalaren zabaltze bat da, saltotik 25 bat metrora, harlangaitzezko hormez gogortua. Estolda edo tunela beranduago eraikitako terraza moduko baten azpian aurkitzen da eta ezinezkoa da bertan sartzea, urez estalita dagoelako.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Itxuraz erabilerarik gabe

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkina

- 1998ko Plan Orokorreko 1.3.02 eremuko Plangintza Bereziaren garapenak lursaila kalifikatzen du eta eraikina, kanala eta presa "Hirugarren Sektorekoa - Ostalaritza" gisa jasotzen du.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:

Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

C11

Elementua

IRUGURUTZETA

Elementu-mota

Kaltzinazio Labeak

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Barrio Meaka D, nº 108

DESKRIBAPENA

Deskribapena

Irugurutzetako instalazioak hainbat terrazetan kokatzen dira, lurraren aldapa aprobetxatuz. Lehenengo terrazan, altuena, minerala oraindik gordinean, ustiatze eremura eramaten zuen plano inklinatua amaitzen zeneko tokia zen. Bigarren terrazan eraiki zen labe multzoa, eta horiek eraikitzeko tipologia desberdinak aukeratu ziren. Guztira 12 labe daude burdina karbonatua erretzeko, Meazuriko meategietatik atera ondoren. Ilaran kokatzen dira eta plataforma artifizial ireki batean daude, aldapan zulatua, kareharri eta hareharrizko bi horma harlangaitzez eusten zaiela. 1865 eta 1900 urte bitartean eraiki ziren. Labeen ondoan deskargatzeko arranpa ere eraiki zen. Azkenik, beheko terrazan minerala ateratzeko lanak egiten ziren. Egitura hauen ondoan minerala kargatzeko toki zabal bat dago, harlangaitzez eta hormigoiez eraikita.

Labeak tipologia oso desberdinekoak diren arren, antzekotasunak ere badituzte. Egitura zirkularrak edo laukizuzenekoak dira, behe aldean deskargatzeko zuloarekin eta aireztatze leihoeekin, labeen indarra areagotzeko. Kasu batzuetan fabrika harri landuarena da eta besteetan adreiluarena, eta batzuetan bi fabrikak konbinatu ere egiten dira. Labe guztiek komunean dutena kono metalikoa instalatzeko oinarria da, banatzaile bezala eta deskargatzeko plaza gisa erabiliko zelarik. Elementu hau, labeetan beti presente dagoena, piramidala da, alde konkaboekin eta arista kurboekin, erretako masa banatzeko, hauek ateetatik erregulartasunez irten zitezzen, zeinen atariak zati inklinatu batez eta elementu irten batez osatuta zeuden, zabortegia izango litzatekeena.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Berreskuratze bidean

ERREGULAZIOA

Babesa

Kontserbazio Partziala

Iruzkinak

- Proposamena badu babestua izateko Euskadiko Kultur Ondarearen 7/1990 Legearen bitartez (Monumentu Kalifikatuak eta Inbentariatuak). - Aiako Harriko Parke Naturalaren eremuan sartuta.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

C12

Elementua

SAN NARTZISO

Elementu-mota

Urtegia/Garbitokia

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Aro Garaikidea. XX. Mendea

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

R9.1.02

Kokapena



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Eusteko presa bat da, San Nartziso erreka bidean kokatua eta Elatzeta eta Ttuturu mendien maldetan oinarritua. Presa hau Ebanjelietako Borda baseritik 200 m. hegoekialdera dago eta ia osorik aurkitzen da. Trazatu zuzeneko presa bat da, 18,80 metro luzekoa, hareharri landuez egina, hormigoi hidraulikoez lotuta eta iparraldeko ertzean hautsita. Gainaldea zementuzko geruza batez estalita ageri da, 2.3 cm. lodierako harri-koskor piloarekin, puntu honetan 0,65 metroko lodiera hartzen dtuelarik. Itxuraz hustubide bakarra zeukan, bere erdialdean. Presaren jatorrizko altuera 5 bat metrokoa izango zen, lehenengo 2,60 metrotan trazatu zuzena erakutsiz, ondoren, oinarrian zabaltzeko. Behe aldean, erabat lohiz beteta ageri da erreka ekarritako jalkinen bitartez. Funtzionalki, presa bat baino gehiago minerala garbitokira pasatu baino lehenagoko dekantazio baltsa bat izango zela dirudi. Presa hau eraiki zeneko garaiak ez dirudi, ez formalki eta ez egitura mailan, XX. mende hasiera baino lehenagokoa denik.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitza

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturezko Kontserbazioa

Iruzkina

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.

Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

C13

Elementua

OLAKINETA

Elementu-mota

Urtegia/Garbitokia

Ondare-mota

Ondare Historiko Arkitektonikoa

Kronologia

Aro Gariakidea

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Mineral garbitokia, Olakineta errekan eraikia, izen bereko baserritik 225 metrora. Eusteko presa bat da eta horri atxikita dago garbitoki berori. Gaur egun, biak ere partzialki kontserbatuta ageri dira, errekek eragin duen suntsitze efektuagatik. Presa grabitate motakoa da, tamaina handikoa, harlangaitzean egina, mineralezko ertz eta zati kopuru handiekin, argamasa oso konpaktuaren bitartez elkartuta. 28,40 metro luzera eta 3,20 metroko zabalera ageri ditu batz bestea. Errekatik behera luzetako zapata bat jarri zen, 0,70 m irteten zena, barneko bultzada arintzeko. Ura edukitzeko esparruak laukizuzen irregularraren itxura dauka, gutxi gora behera 15x12 m eta 1m lodierakoa. Hareharri landuz eta harlangaitzez egina dago, presaren antzera.

Era honetako garbitokiak oso ohikoak dira garrantzi maila bat zeukaten meategi eremuetan, eta horren egitekoa, funtsean, minerala garbitzea izaten zen, lohia kentzeko xehetu eta dekantazioaren bitartez garbitu ondoren. Eraiki zeneko garaia ez da ezagutzen, baina dauzkan ezaugarriengatik XIX. mende amaierakoa dela esan daiteke.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Dezente hondatuta

ERREGULAZIOA

Babesa

Egiturazko Kontserbazioa

Iruzkinak

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

ONDARE ARKEOLOGIKOAREN KATALOGOAREN FITXAK

KATALOGO ARKEOLOGIKOAREN FITXEN AURKIBIDEA

Z.- Oiasso Eremu Arkeologikoa

Z1	Santiago
Z2	Santiago 29
Z3	Santifer
Z4	Tadeo Murgia
Z5	Junkaleko Eskolak - Atzealdea
Z6	Beraketa
Z7	Sarjia Parkea
Z8	Francisco de Gainza Karrika 1-3
Z9	Sarasate Karrika 10
Z10	Junkal. Plazotxo eta Eliza
Z11	Bidasoa
Z12	San Juan

E.- Ermitak

E1	Andremariaren Borda
E2	Elizatzoko Ermita

F.- Gotorlekuak

F1	Gazteluzar
F2	Astigarraren Borda / Conrad
F3	San Martzial
F4	Gain Gainean
F5	Pagogaina
F6	Harresi Modernoa
F7	Harresi Karlista
F8	Endarlatsa
F9	Zubeltzu
F10	Pika
F11	Elatzeta
F12	Mendibil
F13	Azken Portu / Evans

P.- Padurak

P1	Hiru Kanale Zubia
P2	Palmera Montero

M.- Erromatarren Garaiko Meategiak

M1	Altamira I
M2	Altamira II
M3	Altamira III
M4	Altamira IV
M5	Belbio I
M6	Belbio II
M7	Olakineta I
M8	Olakineta II
M9	Olakineta III
M10	Olakineta IV
M11	Zubeltzu I
M12	Zubeltzu II

N.- Elur-Zuloak

N1	Arburuko Gaina
N2	Elurretxe
N3	Pikabea
N4	Sorginola

O.- Beste

O1	Arburuko Gaina
----	----------------

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

Z1

Elementua

SANTIAGO

Elementu-mota

Kai Erromatarra

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa. K.o. I-III mendea

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Santiago Karrika / Calle Santiago

DESKRIBAPENA

Deskribapena

1992an, kalearen saneamendu eta urbanizazio obrak egin zirenean, presazko interbentzio arkeologikoa egin zen eta 5x10 metroko banda bat zulatu zen. Aztarna arkeologikoak kalearen sestra azpitik 2 metrotara ageri ziren eta itsasoaren mailatik gora metro eta erdira, gutxi gora behera. Aztarnategia 10-15 metroko mortairu-geruza oso konpakto batez estalita zegoen, 1,80 metroko sakoneran kokatua, XIX. mendearen erdialdera eraikitako kanalaren oinarriarekin bat eginda. Horren gainean, eta errepidearen asentamendu-maila arte, betelanaren materialak ageri ziren, buztin kopuru handiarekin, baliabide mekanikoen bitartez kendu zelarik.

Berehala, kanalaren zoru azpian erromatarren garaiko mailak agertu ziren. Aurkikuntza hauen bitartez, Junkaleko elizaren inguruan eta Santiago kalearen puntu batzuetan egin ziren zundaketari lotuta, material arkeologiko higigarrien multzo oso zabala lortu zen, eta garrantzi handiko portu bat egon zenaren testigantza ere bai. Zeramikazko material ugariarekin batera (terra sigillata-ren milaka zati -subgaliko hispanikoa-, tokiko zeramika arrunta, horma fineko ehunka zeramika zati, argiontzia, pitxerrak, mortairuak...) jatorri organikoko aztarna ugari ere aurkitu zen, estuarioko lohiez estalita egotean kontserbazioa ere ziurtatuta eduki baitzuten. Bereziki azpimarragarria da kaiaren armazoiaren eta oinarriko eraikuntzan erabili zen egurraren konterbazioa, baita aldameneko biltegien parte batean ere: topeak eta tamaina handiagoko bloke sartuak, piloteak, sare formako bilbadura, habeak/arrastelak, defentsarako ohol horma edo bestelako oholak.

Santiago kaleko portu eremuan kalatuzko arranpa bat, ihien domeinu bat eta biltegien beste bat bereizten dira. Kalatuzko kaia edo arranpa (egurrezko bilbadurazko plataformarekin, "obra-hondakinez beteta indartzen dena eta lauza txikiez zolatuta) I. mendearen erdialdera eraikiko zen eta II. mendean zabaldu egingo zen harri-lubeta paralelo (6 metro zabalekoa) baten bitartez, estaka ilarez trazatua, harri bloke handien plataforma ziurtatzen dutelarik. Harri-lubetaren atzean hamarren bat metroko padura-banda bat dago, biltegi eraikinek okupatutako parajera arte doana: padura/ihien eremu honetan egurrezko plataformadun ontziraleku baten aztarnak aurkitu dira, portuko biltegi bezala erabiliko ziren ondoko harrizko eraikinen arrastoekin zerikusia izan dezaketenak. Biltegien eremuko hasierako

eraikuntza I. mendeko bigarren erdialdekoa izango zen eta II. mendean berrituko zen -kaia eta bere harri-lubeta zabaldu ziren bezala-. Eraikitakoaren planta handitu zuten, zoruaren maila igoz material ligneo askotarikoaz betelana eginez eta ondorioz fatxaden orientazioa aldatuz. Zundaketa arkeologikoa amaitzean eta aurkitutako egiturak bertatik ateratako lohiarekin berriz estaltzean, kolektorearen obrek jarraitu egin zuten, kolektorea erromatarren aztarnen maila baino kota altuagoan jarritz.

Irungo erromatar garaiko portua, ikertutako materialen arabera -zermamikazko ia 14.000 pusketa- erregional mailako portua izango zen, Bizkaiko golkoan zentratutako jarduera-erradioarekin eta iparraldetik Garonako bokaleraino iritsiko zena. Itsas kostako testuinguru honetan, Oiassok barne aldeko lurraldeen merkataritza erakarriko zuen, Garonako ezker aldeko lurrak, Ebro edo Errioxako erdialdeko haranak hartuz. Oiasson elkartzen ziren portua eta erromatarren galtzada baten amaiera, Tarragonatik Ebro haranaren birtartez kantauriko kostaldera arte iristen baitzen, beraz, bide sarearen norabidean merkataritza joera bat kanalizatzen lagunduko zuten, bai lurretik eta bai itsasotik eginiko merkataritza, hain zuten. Santiago kalearen nortasuna Bidasoaren igarobide nagusietako bati lotuta dago, Behobia eta Hondarribiarekin batera. Ontzireleku nagusienak Junkaleko elizaren ondoan kokatzen ziren, eskuinaldean, eta Santiago de Zubernoako Ospitalean ere bai, Hendaian. XIX. mendean hasi zen padura okupatzeko prozesua eta ardatz modura komunikazio kanala hartu zen. 1852an eraiki ziren kaiak eta ontzirelekuak eta modu horretan areagotu egin zen desekazio prozesuaren eta zonaldea urbanistikoki hedatzearen abiadura. Mende amaieran portuko instalazioak errekan behera aldatu ziren, tarteko espazioak kolonizatzea erraztuz. Azkeneko ontzirelekua 1992an desagertu zen, kaleko saneamendu eta urbanizazio obren ondorioz.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio

Iruzkina

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

Z2

Elementua

SANTIAGO, 29

Elementu-mota

Kai Erromatarra

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa. K.o. I-III mendea

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea

5.3.05

Kokapena

Santiago Karrika / Calle Santiago, 29



DESKRIBAPENA

Deskribapena

1993an, Santiago kalean esku-hartzea egin ondoren, kale horretako 29. zenbakiko orubean balorazio-zundaketa batzuk egin ziren. Gutxi gora behera 4x3 metroko neurriko kata bat egin zen eta 1,60 metrotara erromatarren garaiko aztarnak agertu ziren. Lur organikoko azalaren lehenengo geruza bat kendu ondoren, buztinezko geruza bat agertu zen eta ondoren limo grisezko geruza bat, 32 cm-ko potentzia batekin, non sigillata pusketa txiki batzuk jaso ziren. Limo horrek sekzio laukizuzeneko sei habez osatutako egitura bat estaltzen zuen, 12 eta 20 cm. arteko zabalera aldagarri batekin eta iparralderako orientazioarekin, zeinak beheragoko egurrezko maila batean finkatzen ziren. 1998an, orubean eraiki baino lehen, eta eraikin berriaren proiektuan sotoak egitea aipatzen ez bazen ere, 1993an eginiko zundaketak zabaltzeari ekin zitzaion eta lagin berriek aurreko urteetan lortutakoen antzeko emaitzak eman zituzten. Antzeko fisionomia zeukaten egurrezko egiturak aurkitu ziren eta Santiago kalean eginiko zundaketetan lortutako aztarnen alineazio bera, beraz, esan daiteke orube honetan aurkitutako egiturak lehen aipatutako portuko erabilerarekin zerikusia duela.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Gaingan etxebizitzaren bloke bat eraiki da.

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio

Iruzkina

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

Z3

Elementua

SANTIFER

Elementu-mota

Kai Erromatarra

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa. K.o. I-III mendea

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Salís Hiribidea / Avenida de Salís, 1

DESKRIBAPENA

Deskribapena

1993an, eta Ertzaintzaren komisaria eraiki behar zutela eta, esku-hartze arkeologiko bat egin zen eta hiru bandatan banatutako hainbat zundaketa egin ziren. Bat orubearen zonalde altuenean, bigarrena erdialdean eta azkenekoa beheko zonaldean. Goi aldeko bandetan eginiko zundaketek balio izan zuten terraza-egitura sortzeko eginiko esku-hartze moderno bat zehazteko, XX. mendean Santifer eremua eraikitzeko. Gainaldean nabarmentzen ziren metaketak zulatu eta beheko aldean pilatu zituzten. Beheko zundaketetan, bestalde, buztinezko betelaren azpian estuarioko metaketak aurkitu ziren. 4. zundaketan metaketa hauek itsas mailatik gora 0,99-0,28 artean agertzen dira eta horien azpian ibaiako terrazaren arrastoak. 3. zundaketan, hala ere, 2,10 metro lodierako isurkin modernoaren azpian, Santiago kalean kalatuzko arranparen aztarnak estaltzen zituzten erromatar-metaketen antzekoak ageri dira, beraz, zonalde honek ere Oiasoko portuko eremuarekin zerikusia duela esan daiteke. Aurkikuntzak lorategi batean kokatzen dira, beraz, horrek beren kontserbazioa bermatzen du.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio

Iruzkina

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

Z4

Elementua

TADEO MURGIA

Elementu-mota

Kai Erromatarra

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa. K.o. I-III mendea

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea

5.3.04

Kokapena

Tadeo Murgia, nº 6, 8 (trasera) y Santiago Karrika / Calle Santiago, 39-41 (trasera)



DESKRIBAPENA

Deskribapena

1996an, Santiago kaleko 35 eta 37. zenbakietan, Tadeo Murgia kalearekin izkina egiten duen tokian, orubea ebaluatzeko zundaketen kanpaina bat egin zen. Guztira hiru zundaketa egin ziren eta horietako bik emaitza positiboak eman zituzten. Erromatarren garaiko portuko egituren arrastoak eta ajuarrak aurkitu ziren bi metroko sakoneran, gutxi gora behera.

1998an, Tadeo Murgia kaleko atzealdeko orubeetan (Santiago kaleko 35-37 zenbakietako atzealdean) etxebizitzaren blokeak eta garajeak egiteko asmoa zegoenez, kaiaren eremua arkeologikoki atera eta testuinguruan kokatzeko esku-hartze bat egitea programatu zen, beste neurri osagarriekin batera, luzera Oiasso Museoa jasotzea ahalbidetuko zutenak. Kasu honetan, Beraun muinoaren oinetan kokatutako portu-instalazio bat deskubritu zen, uretara hurbiltzeko harmailetan edo plataformetan antolatuta, enborrak elkarren kontra jarriz eginak. Egurrezko egitura harrizko lauzen gainean finkatzen zen eta zonalde batzuetan egurrezko pibote edo falken bitartez finkatuta zegoen, tope modura erabiltzen baitziren; enborrak finkatu ondoren, harriz eta betegarri organikoez estaliko ziren. Kaiaren ertzean zabalduko zen ura ontziak bertara hurbiltzeko, buzamendu handia antzematen delarik geruza naturalen eta ia erabat antzu ziren betegarrien artean.

Hala ere, kaia lurrari lotzen zitzaion sektorean betelan handiak nabarmentzen dira, metro eta erdikoak ere bai, dirudienez kalatu txikiagoko zonalde bat delako, eta deskargetako hondakinak behin eta berriz botatzearen emaitza izan daiteke. Zundaketaren hegomendebaldean, biltegi gisa identifikatutako eraikinen egurrezko piloteen gaineko zimentazioak bereiztu dira. Metaketak erregistratu dira, zeinetan material organiko ugari jasotzen den (hondakin bejetalak, animaliazkoak, ehunen aztarnak, egur eta hezurrezko tresnak, ...) eta ez-organikoa ere bai (zeramika, brontzezko ajuarrak, ...)

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Gainean garajeen eraikin bat eraiki da.

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio

Iruzkina

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

Z5

Elementua

JUNKALEO ESKOLAK -
ATZEALDEA

Elementu-mota

Terma erromatarrak

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa. K.o. I-IV mendea

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea

5.3.09

Kokapena

Eskoleta Karrika / Calle Escuelas, 3



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Santiago kalean erromatarren garaiko portua agertu ondoren, inguruan prospekzio berriak egin ziren aukera desberdinak aprobetxatuz. Salis hiribideko 28 zenbakian eraikin berri bat eraikitzeko mendi ertzean eginiko obretan erromatarren garaiko adreilu piloa aurkitu zen, inguruan errauts eta suak gorritutako buztin pilo handia zuelarik, beraz, labe bat izango zela pentsatu zen. Datu hauek balio izan zuten ondoko orubean zundaketen kanpaina bat planteatzeko (Junkaleko eskolen atzealdean), eta 1996ko udaberrian burutu zen kanpaina hori. Prospekzioetarako hiru banda egin ziren beren potentzial arkeologikoa ezagutzeko:

lehenengo lerroa Sarasate kaleari paraleloan, bestea tartekoa eta azkenekoa Salis hiribidearen ezponda ondoan. Gainaldeko zundaketek hutseko emaitza eman zuten, buztin naturalak soilik erregistratuz. Behekoak oso eraldatuta zeudela ikusi zen Salis hiribidean lehenago eginiko obregatik, eta tarteko zundaketek eman zituzten emaitza onak. Zundaketa hauetan horma zabal baten (ia metro batekoa) zimentazio aztarnak aurkitu ziren, kokapen zirkularrekoa, eta adreilu txikiak "opus spicatum" moduan jarrita zolatutako zoladura, hormigoizko ohearen gainean, zeinaren kontserbazio egoera ona den. Garbi ikusten da non desagertu diren piezak, izan ere hormigoizko ohean arrastoak utzi dituzte, masa fresko zegoenean ipinitakoak baitira. Hormaren kanpo aldean okupazio metaketak hedatzen dira, non ajuar interesgarriak aurkitu diren, horien artean azpimarratzekoak brontzeko behe-inperial txikiak eta zintzarri bat.

Plantako eraikuntza-arrasto hauek -akaso abside-formakoa eta mortairu/zolakoa-, terma gisa erabiltzeko erromatarren asentamendu batenak direla esaten da. Testigantza honen identifikazioan garrantzi berezikoak da hurbileko paraleloak aurkitzea. "San Juan El Viejo" eraikinaren kasua da, Antonino ibilbideko Imus Piranaeus mansioa, J.L. Tobie-ren lanetan (1966-1971) aipatua. Deskribapen datuekin eta planimetriarekin jarraituz, Donibaneko bainurako piszinen eta Irunen aurkitutakoen artean antzekotasun handiak daude. Zoladura mota bera, mortairua eta eraikitzeko forma bera konpartitzen dute, abside erako tramo perimetralen bitartez.

Ezaugarri historikoak**Gaureungo egoera**

Aztarnategiaren gainean babes metaliko bat dago

ERREGULAZIOA**Babesa**

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio

Iruzkina

- Terma multzoa Bizkaiko Golkoko Erromanizazio Museoan sartuta dago.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

Z6

Elementua

BERAKETA

Elementu-mota

Hiri Okupazioko Maila Erromatarra

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa. K.o. I-II mendeak

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea

5.3.10

Kokapena

Beraketa Karrika / Calle Beraketa



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Beraketa kaleko esku-hartze arkeologikoa, 1997ko iraila eta Abendua bitartean Irunen egin ziren Arkeologia eta Dendrokronologia formazio ikastaroen barnean egin zen.

Aukeratutako lekua Irungo kalerik antzinakoenetako bat da eta, gainera, azkeneko urteetan aldaketa gutxi egin zaizkio. Junkaleko elizaren inguruan kokatzen da, Eskoleta eta Santiago kaleen atzealdean, erromatarren garaiko aurkikuntzak egin diren tokien inguruan, hain zuzen. Lan arkeologikoez erromatarren garaiko testuinguruak erregistratzea ekarri zuten.

Lehenik eta behin, zoladura bat erregistratu zen, eraiki zeneko data ezagutzen ez den arren 1904 baino lehenagokoa dela zehaztu daitekularik, urte horretan uste baita Beraketa kalean hustubideen kanalizazioa eraiki zela. Erregistratutako testuinguruak aztertuta erromatarren garaiko kronologia duten aztarnen erregistroa eragin zuten, erdi aroko kronologia duten materialekin batera. Horrek pentsarazten du zoladura eraiki zeneko garai horretara kalea egokitzeko prozesuaren ondorio direla testuinguru horiek. Harriz, zepaz eta lurrez eginiko zoladura honen azpian, oso-osorik konpaktatua, erromatarren kronologiako testuinguruak erregistratu ziren eta egitura baten parte bat eta egitura bera erorita aurkitu ziren. Aurkitutako materialen artean azpimarratzeko moduko gisa aipatuko ditugu Augustoren garaiko txanpon bat, K.a. 12-6 urteetakoa, Gipuzkoan kontserbatzen den ondare numismatikoetan txanponik zaharrena dena, eta, gainera, burdinazko pieza asko, une kronologiko berean kokatuak. Objektu hauek zulo batean aurkitu ziren, buztinezko lur naturalean espreski egina. Finkatu eta itsatsitako tatxet ugarietz gain, burdinazko bi objektu nabarmentzen dira, korrosioaren ondorioz hondatuta zeudenak, berritu ondoren ikertzeko modua izan baitzen.

Antzeko ezaugarriak dauzkaten bi pieza dira eta erremintari baten tresna gisa identifikatu ziren. Beraz, kontuan eduki behar genuke zonalde hau erremintari baten eragin-eremuan kokatuko zela. Erantsi beharra daukagu Beraun etxearen lorategian, Beraketa kaleari pegatuta baitago, noizen behin erromatarren garaiko materialak aurkitu izan direla lorazain lanetan ari zirela. Aurkitutako aztarnak izan dira anfora baten hanka, zeramika arruntaren pusketak eta terra sigillata.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio

Iruzkinak

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

Z7

Elementua

SARJIA, PARKEA

Elementu-mota

Aztarnategi erromatarra

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa. K.o. I-II mendeak

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Sarjia Parkea / Parque de la Sargia

DESKRIBAPENA

Deskribapena

1998an parkean egin zen birmoldaketaren ondorioz, eta kontuan hartuta aurkikuntza garrantzitsuak egin zireneko zonaldeetatik gertu dagoela, balorazio bat egiteko esku-hartze arkeologikoa egin zen. Horretarako lau zundaketa irekitzea planteatu zen. Beheko zonaldeetan egin zirenak portuko egituren arrastoak aurkitzeko asmoarekin egin ziren, eta Santiago kalean bezala, emaitza negatiboak eman zituen; aitzitik, parkearen kota altuagoetan eginiko bi zundaketek emaitza positiboak eman zituzten. Bi kasuetan, erdi aro ondorengo materialen metaketan atzean, beste maila batzuk aurkitu ziren eta maila hauetan lehen aipatutako materialak erromatarren garaiko beste batzuekin nahastuta zeuden, eta lur naturaletik gertueneko metaketetan bakarrik aurkitu ziren soilik erromatarren jatorriko arrastoak. Irungo beste zonalde batzuetan gertatzen den bezala, erromatarren garaiko materialak oso higituta eta hondatuta zeuden eta horrek pentsarazten du metaketa horiek muinoaren parterik altuenetik etorriko zirela, Arbelaitz Jauregitik gertu, eta maldan behera mugitzen joango zirela. Gertaera horrek azaltzen du erromatarren eremua ez dela Beraun Muinora bakarrik mugatzen, baizik eta esku-hartze honetan aurkitutako materialen bitartez posible dela planteatzea Udaletxearen inguruetan, San Juan plazaren zonaldean ere erromatarren hiriaren testigantzak kontserbatu ahal izango zirela.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Parkea gainazalean

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio

Iruzkina

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

Z8

Elementua

MOJA LAGUNTZAILEEN
BARATZAK

Elementu-mota

Aztarnategi erromatarra

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa.

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea

5.3.07

Kokapena

Francisco de Gainza Karrika / Calle Francisco de Gainza, 1A



DESKRIBAPENA

Deskribapena

1998ko lehenengo hilabeteetan, Parrokiko Moja Laguntzaileen baratzetan (Iparralde hiribideko 6, 8 eta 10 zenbakien atzealdean) balorazioa egiteko esku-hartze bat egin zen, eta ikusi zen erromatarren garaiko materialen arrastoak bazirela. Hala ere, erromatarren garaiko aztarna material hauek aurkitu direneko metaketetan erdi aro ondorengo garaiko materialak ere aurkitu dira. Zeramikazko hondakinak oso higituta eta hondatuta daude, tokitik mugitu direnaren itxura dutelarik.

Horrek guztiak adierazten du prospekzioa egin deneko eremuan ez dela erromatarrek okupatutako maila garbi bat aurkitu eta ziurrenera, garai horretako materialak egotean Beraun muinoko zonalde altuagoetan izandako okupazio-mailetatik behera mugitu izanaren ondorioz egongo direla hor.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitzaren eraikin bat eraikitzen ari dira

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio

Iruzkina

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:

Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

Z9

Elementua

SARASATE KARRIKA, 10

Elementu-mota

Hiri Okupazioko Maila Erromatarra

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa.

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea



Kokapena

Sarasate Karrika / Calle Sarasate, 10

DESKRIBAPENA

Deskribapena

1998ko udako hilabeteetan Sarasate kaleko 10 zenbakian eraikin berri baten eraikuntzako obren kntrol arkeologikoa egin zen eta erromatarren garaiko materialen arrastoak zeudela ikusi zen. Hala ere, aztarna materialak, gehienak zeramikazkoak, oso higituta eta hondatuta daude, tokiz mugitu direneko aztarnekin. Horrek guztiak adierazten du prospekzioa egin deneko orubean ez dela erromatarren okupazioaren maila garbirik aurkitu, eta ziurrenera orubearen kota altuagoak arrasatzeagatik izango dela, alegia, egun dauden okupazio mailetakoro damentuen ondorioz, edo aurreko eraikina, "casa del lejero" deitua, eraikitze prozesuaren ondorioz.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Etxebizitzan eraikin bat dago lursailean

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio

Iruzkina

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

Z10

Elementua

JUNKAL, PLAZATXOA ETA ELIZA

Elementu-mota

Hiri Okupazioko Maila Erromatarra

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa. K.o. I-III mendea

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea

5.3.07 y 5.3.08

Kokapena

Junkal Plazatxoa / Plazoleta del Junkal



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Junkaleko plazako aztarnategia J. Rodríguez Salis-ek aurkitu zuen 1969an eta kanpaina desberdinetan indusketa lanak egin zituzten, 1969-1970 bitartean, J. Rodríguez Salis, J. Lomas eta J.L. Tobie-k.

Kanpaina hauetan lau zundaketa egin ziren, horietako hiru plaza barneko puntu desberdinetan eta, bestea, harresi ondoan. Azken hau izango da "in situ" erromatarren garaiko material arkeologikoak emango dituen. Plaza barnean eginiko estratigrafia eta zundaketetako materialak nahastuta daudela dirudite, betegarrien geruzen estratigrafia bat ageri baita, toki desberdinetatik ekarriak (ziurrenera zonalde hau Beraun muinotik ekarritako lurrez beteta dago). Metaketa hauek erromatarren garaiko zeramika multzo handi bat gordetzen zuten, eta garai bereko eraikuntzen aztarnak ere bai. Material hauek K.o. I. mendetik II. mendera arteko kronologia ematen dute.

Harresiaren ondoan induskatu zen bandak erromatarren garaiko hiru maila erakutsi zituen eta erdi aroko arrastoak ere bai, harresiaren zimentazioaren azpian kokatuz. Metaketa hauetako lehena (VII. maila) lur ilunez osatuta zegoen, gizakien hezurren pusketa eta aztarnekina, beraz, maila hau Irungo eliza primitiboari atxikita egongo zen antzinako hilerriarekin, egungoaren aurrekoa, lotzen da; maila honek, erdi aroko materialez gain, erromatarren garaiko zeramika ere eman zuen. Hurrengo metaketa (VIII. maila) sute baten mailari dagokiona da, hemen ere erromatarren garaiko materialak lortuz. Azkenik, lur beltz samar eta harri-koskorrez osatutako metaketa bat (IX. maila) ageri zen eta hemen ere erromatarren garaiko materialak lortu ziren, baita zeharkako horma baten erregistroa ere, harresiaren horma-ataletik hasten zena. Zimentazioko zapataren ondoan, adreilu pilo bat agertu zen eta bere ondoan dauden arrastoengatik altuera handiagokoa izango zela ondorioztatzen da. Hala ere ez da ezagutzen zertarako erabiliko zen.

1993an, Junkaleko elizaren atzealdean, zehazki Platanoen plazatik hasi eta Salis hiribidearen amaierarekin lotzen den zonaldean, eta kale horretako 1 eta 3 zenbakien parean, saneamendu obrak egiten ari zirenean, erromatarren kronologiako aztarnak aurkitu ziren. Zuloak, 3 metro zabalera eta 2,5 metro sakonerakoa, 5 metro luzeko espazio bat erakusten zuen eta marroi koloreko betegarria zeukan, asfalto azpian, eta gero, 1,90

metroko sakoneran, 20 cm-ko potentzia zuen maila ilun bat zetorren. Maila honetan erromatarren garaiko arrastoak zeuden, gure garaiko II eta III. mende bitartean ezartzen den kronologiarekin. Beherago buztin horiaren geruza bat ageri zen, antzua.

Gaineratu beharra dago Junkaleko elizaren inguruan kokatzen zirela XVII. mendera arte Kontseju Etxea eta Santa Margarita ospitalea, biak suntsituta geratu zirelarik 1638an frantesek eginiko erasoan.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio

Iruzkinak

- 265/1984 (07-17) Dekretu bidez kalifikatutako ondasuna.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

Z11

Elementua

BIDASOA

Elementu mota

Aztarnategi erromatarra

Ondare mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea

5.3.03

Kokapena

Santiago Karrika, 53-59

**DESKRIBAPENA****Deskribapena**

Etxebizitzak eta garajeak eraiki behar zituzten orube batean egindako interbentzio arkeologikoa da. Bi lan fase egin ziren: lehenengoa enpresa sustatzailearen ekimenez, ordu hartan zundaketa programa bat egin zen 2008ko urtarrilean eta I. eta II. mendeetako lurraren okupazio zabala atzeman zen, 800 m²-ko hedadura eta metro bateko lodiera zituena. Zeramikazko zati ugari aurkitu ziren zundaketa horietan. Bigarren fasean, berriz, zabaleran induskatu zen orubea arestian aipaturiko interes arkeologikoko sedimentu horiek ateratzeko.

Orubearen hego-mendebaldeko sektorea da estratigrafia arkeologikoa hoberen ikus daitekeen lekua, eta ekialdeko zerrendan, berriz, Santiago karrikaren inguruetan, desagertu egin dira estuarioko urek garbitu izanagatik.

“Horreum” delakoaren zimenduez gainera, milaka objektu atzeman dira orubean: zeramikari dagokionean aipagarriak dira sigillata bildumak eta aurkitu den anfora kopuru handia. Beirazko testigantzen artean berria da saila. Era berean, eraikuntza material eta burdinazko zepa ugari azaldu da, eta harrigarria bada ere, oso urri dira fauna hondakinak.

Sigillataren atalean, esan behar da, ekoizpen mota horren zati ugari azaldu direla, testuinguru batzuetan % 50etik gora baitira, Oiasson orain arte azaldutako kopuruak nabarmen gaindituz. Era berean, aipatzekoa da, bilduma italiarrak ere azaldu direla sudgaliarrez eta hispaniarrez gainera.

Anforen atalean aipatzekoak dira jatorri betiarreko ontziak. Beirazko zatiei dagokienean, oso ugari dira, eta badira luxuzko ekoizpenen adibide batzuk ere, millefiori, mosaiko edo polikromo moldekoak.

Interbentzio arkeologiko honetan aipagarriena da “Horreum” baten oina aurkitu izana. Eraikin berezia da, elikagaien (garia, olio, ardoa eta abar) biltegitako erabiltzen zutena, baina bazituzten beste batzuk egurra, eraikuntza materiala, bazka eta abar edukitzeko erabiltzen zituztenak ere. Aurkitutako eraikin honek neurri handiak ditu, hiru habearte eta 12-14 metroko zabalera.

Alboetako itxiturak atzeman dira eta, guztizko luzera zenbatekoa zen ez badakigu ere, 20 cm luzeko zati bat azaldu da bederen. Iberiar penintsulan aurkitutakoetan adierazgarrietakoetako bat bilakatzen dute neurri horiek.

Kontuan izan beharreko beste emaitza bat da okupazioaren lehorreko izaera eta aldameneko estuarioarekin duen lotura, orubeko sektore batean ageri baita hura ere.

Ezaugarri historikoak

Gaur egungo egoera

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio.

Iruzkinak

Bibliografia

- Interbentzio Arkeologikoa Irungo Bidasoa kaleko 3. zenbakian eta Santiago karrikako 55. eta 59. zenbakietan. Oinarrizko Memoria. 2009ko azaroak 15. ARKEOLAN.

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

Z12

Elementua

SAN JUAN

Elementu mota

Aztarnategi erromatarra

Ondare mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erromatarren aroa

Lurralde Unitatea

5.3

Egikaritze Unitatea

5.3.11

Kokapena

San Juan Plaza eta Jenaro Etxeandia Plaza

**DESKRIBAPENA****Deskribapena**

San Juan eta Jenaro Etxeandia plazen inguruan egin da interbentzio arkeologikoa. Jada gauzatzen ari den plangintza esparru baten barnean dago inguru hori, eta antolamenduan aurreikusten da lurpeko aparkalekua, udal liburutegiaren egoitza, auditoriuma eta hotel bat egin behar direla bertan. Interbentzio arkeologikoaren aurretik miaketa geofisikoa egin zen interbentzio esparruaren zati batean. Erromatarren garaiko harresia Prudencia Arbide kalearen goiko aldean egongo zelako hipotesia eraman zen Oiasso museotik Irungo udalera eta leku horretan miaketa geofisikoa egitea gomendatu zen balorazioan aurrera egin ahal izateko, ibilgailuen bideek okupatzen duten lurra ez induskatu behar izateko. Emaitzek erakutsi zuten ustez harresia egon zitekeen leku horretan zorupean ez zegoela nabarmentzeko moduko elementurik, eta ezta miatutako gainerako lekuetan ere.

7 hilabete iraun du interbentzio arkeologikoak. Bigarren fasean presazko indusketa handi bat egin zen San Juan plazako biribilgunean, eta lodiera handiko erromatarren garaiko deposituak atzeman ziren ezustean. Material arkeologiko ugari eskaini zituzten depositu horiek. 300 m² inguruko eremua induskatu zen interbentzio honetan, eta horri esker, 150 testuinguru edo unitate estratigrafikotik gora erregistratu ahal izan ziren. Eremu hori induskatu ondoren, aparkalekuko pilareak jartzeko zuloak egin ziren Leon Iruretagoiena eta Jenaro Etxeandia aldeetan, eta egiaztatu ahal izan zen erromatarren garaiko mailak bazeudela biribilgunearen mugetatik kanpo ere, baina aro modernoko eta garaikideko eraikuntzek zorupea gehiegi aldatu ez duten lekuetan bakarrik betiere. Emaitza positibo horiek lortu ondoren, 45 m²-tan zabaldu behar izan zen indusketa arkeologikoa. Lan horiek egin ziren bitartean, lurreko sakongune batean erromatarren garaiko material arkeologikoen erregistroa errepikatzeaz gainera, Eliza karrikan izan zen eraikineko zimendu-hormetako baten azpian lurpeko ganbera bat atzeman zen erromatarren garaiko betegarriak zituena. Oraindik kontserbatzen zuen zurezko forruaren zati bat.

Bosgarren faseko kontrol arkeologikoan, aro modernoko eta garaikideko aztarnez gainera, erromatarren garaiko materialez egindako lauza hondakinak agertu ziren, eta baita Erdi Aroko hilarri bat eta dolare bat ere XVII. mendearen lehen erdialdekoa.

San Juan plazaren kasuan, lurra saturatua dagoenez, mantendu egin dira sedimentuak zeuzkaten landareen makrohondakinak, eta horri esker haien azterketa arkeologikoa egin ahal izango da. Hezetasun baldintza egokietan kontserbatu diren material mota horiek erreferentzia puntuak dira Europako leku askotako ikerketa arkeologikoetan, baina erromatarren garaiko alerik ere ez dago ia.

Bilduma arkeologikoak:

Erromatarren garaiko zeramikari dagokionean, oso balio handiko bilduma arkeologikoa da, piezetako asko ia oso-osorik berreskuratu baitira. Aipatzekoak dira sigillata subgaliarreko multzoak, argi armiarmak dekorazio ikusgarriekin eta tamaina handiko ontziak, ia osorik kontserbatu direnak. Teila hondakinak ere ugari dira (kurbatuak eta lauak), adreilu batzuekin batera. Fauna hondakinei dagokienean (hezurak eta maskorrak), aipatzekoa da, beste hiri arkeologia interbentzio batzuetan berreskuratutakoak baino gutxiago direla kopuru aldetik, eta pentsa liteke lurraren azidotasun handiak eta depositu batzuen hezetasunak desagerrarazi egin dituztela hondakin gehienak.

Metalezko objektuen atala ez da bereziki ugaria, baina burdinazko zepak, iltzeak eta kobrezko objektu txiki batzuk bildu dira. Hezurrekin ere beste hainbeste, lurraren azidotasun handiak ez zien kontserbatzen utzi. Interesgarria da halaber agertu den gai organikoa (larrua, zura eta haziak) lurra buztintsua delako eta hezetasunari eutsi egin diolako. Berreskuratutako hazien artean aipatzekoa da mahats hazi ugari agertu direla.

Ezaugarri historikoak

Gaur egungo egoera

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren memorian araututa dagoen "Z" kategoriari dagokio.

Iruzkinak

Bibliografia

- San Juan eta Jenaro Etxeandia plazak Birmoldatzeko Plana. Irun Atariko Txostena. Azterketa eta Ikerketa Historiko-Arkeologikoen Zentroa (ARKEOLAN). Irun 2010eko urriak 6. Egina: Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

E1

Elementua

ANDREMARIAREN BORDA

Elementu-mota

Ermita

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Erdi Aroa eta Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

Egikaritze Unitatea

Kokapena

Barrio Meaka D, nº 20



DESKRIBAPENA

Deskribapena

Ibaieta mendian kokatzen zen Andremariaren Borda, egun desagertuta dagoena. Bere tokian duela gutxi eraikitako etxe bat dago baina toponimoa mantendu egin du. Ama Birjinari eskainitako ermita honen inguruan dauden lehenengo albisteak 1547koak dira, elizako kontuetan agertu baitziren. Era horretako erreferentziak 1584an eta 1660an ere aurkituko ditugu. Horregatik pentsa daiteke aipatu baserria ez zela XVI. mendean elizaren jabegoa bakarrik izango, baizik eta erreferentzi motagatik gerta daiteke gurtze toki bat ere izatea garai hartan. 1739an toki hau aipatuta ageri da hirian existitzen ziren bost ermiten artean, baina 1840an jada ez zen gurtze tokia izango, ermita gisa ez da aipatzen eta.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Desagertuta. Etxebizitza berri bat dago bere tokian.

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "E" kategoriari dagokio

Iruzkinak

- A.H.T. eraikitzeko aurreproiektuak eragina du.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila. Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa: Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA**Aurrerakinaren Kodea**

E2

Elementua

ELIZATXOKO ERMITA

Elementu-mota

Ermita

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

6.3

Egikaritze Unitatea

6.3.01

Kokapena

Zona Elizatxo-Olaketa-Lapitze

**DESKRIBAPENA****Deskribapena**

Elizatxoko Kristo Santuaren edo Gurutze Santuaren ermita Olazabal gainera Kateatik abiatzen zen errege bidearen ondoan kokatuta zegoen. Lope de Isastik jada aipatu zuen eta horren aurretik XVI. mendeko dokumentu batean. Jakina da gurtze toki izateari utzi ziola 1769an. 1775ean desagertuko da bota egin zelako autoentzako Errege Bidea eraiki zelako, Oñako Baroiaren zelaitik "Erremintari" izeneko zonaldera joan behar baitzuen bideak (egun "Hermanos Iturrino" anbulatorioak okupatzen du toki hori) eta Elizatxoko ermita eta seroraren etxea bota egin ziren.

Ermitaren kokapen zehatza ez da ezagutzen eta erreferentzia bakarrak Elizatxo-Olaketa-Lapitze zonaldeari buruzkoak dira, beste arrazoi batzuzengatik ere oso interesgarria dena, izan ere etxe bateko lorategi pribatua duela urte batzuk erromatarren garaiko txanponen aztarna isolatuak aurkitu ziren, eta gertakari hori Lapitze toponimoarekin lotuz gero zonalde hau erabat interesgarri bihurtzen baitute. Mitxelenak Lapitze izena toponimo latindar batekin lotzen du: "(..)Una indicación posible, muy sugestiva, a un camino antiguo es el nombre de Lapitze, nombre del actual abrrío de Irun, precisamente sobre el camino de Francia. Se puede proponer, a mi juicio, con mucha verosimilitud una etimología basada en el lat. Lapis-piedra, con el sentido miliario(..)"

Ezaugarri historikoak**Gauregungo egoera**

Desagertuta

ERREGULAZIOA**Babesa**

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "E" kategoriari dagokio

Iruzkina

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

F1

Elementua

GAZTELUZAR

Elementu-mota

Gaztelua

Ondare-mota

Ondare Arkeologikoa

Kronologia

Aro Modernoa

Lurralde Unitatea

8.1

Egikaritze Unitatea

8.1.07

Kokapena

Gazteluzar Ibilbidea / Paseo Gazteluzar, 3



DESKRIBAPENA

Deskribapena

XVI. mendeko eraikuntza militar bat da. Egun, Gazteluzar gotorlekutik hondakinak baino ez dira geratzen. Gazteluaren barne aldeko egituraren homen zati bat eta izkinak errematatzen zituzten bastioietako baten traza bakarrik kontserbatzen da. Forma trianguluarra zuen, bere algeluetako bakoitzean kubo batekin eta horietako baten gainean dorre bat. Sendotasun handiko eraikina zen. Antzinako gotorlekua muino batean zegoen, bertatik Behobia auzoa dominatzen baita eta Bidasoako pasagune estrategikoa ere bai, Frantzia eta Espainia arteko muga naturaltzat jotzen baitzen. Horren eraikuntza Fernando Katolikoaren 1512ko azaroaren 21eko Errege Zedula baten bitartez egin zen. 1539an botatzea erabaki zen Karlos V.aren Aginduz, etsaientzat baliagarriagoa zela uste zuelako. 1719an berreraiki egin zen eta badirudi hauxe izan zela gotorleku hau azkeneko aldiz erabili zena mugaren alde honetako defentsa modura, baina pentsa daiteke bere hondakinek balioko zutela babes eta defentsa gisa beranduago egingo ziren Konbentzio, Independentzia eta Karlisten gudetan.

Ezaugarri historikoak

Gauregungo egoera

Aurriak, berreskuratze prozesuan.

ERREGULAZIOA

Babesa

Ondare Arkeologikoaren Memorian araututa dagoen "F" kategoriari dagokio

Iruzkina

- Egun, "Balizko Zonalde Arkeologiko" gisa deklaraturata dago (E mota), 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera.

Bibliografia

- Irungo udalerriko Ondare Arkeologiko eta Arkitektonikoaren katalogoa. 2001eko uztaila.
Katalogo Arkitektonikoa: Luis Sesé Madrazo eta Asier Acuriola. Katalogo Arkitektonikoa:
Mercedes Urteaga Artigas eta Pía Alkain Sorondo.

IDENTIFIKAZIOA

Aurrerakinaren Kodea

F2

Elementua

